

**Txostena**  
**Informe**

**Gipuzkoako**  
**Lurralde Historikoaren**  
**Kontu Orokorra**

**Cuenta General**  
**del Territorio Histórico**  
**de Gipuzkoa**

**2007**



Herri-Kontuen  
Enskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Foru aldundiaren kontuari buruzko iritzia.....	14
II.3 Uliazpi erakunde autonomoari buruzko iritzia .....	15
II.4 Sozietate publikoei buruzko iritzia .....	15
<b>III. KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK</b> .....	<b>17</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	17
III.2 Sarrera fiskalak .....	19
III.3 Kontratazioa .....	24
III.4 Diru-laguntzak .....	28
III.5 Langileria .....	34
III.6 Ondarea .....	34
III.7 Uliazpi erakunde autonomoa .....	35
III.8 Izfe, SA Sozietate Publikoa .....	35
III.9 Bidegi, SA Sozietate Publikoa.....	35
III.10 Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA Sozietate Publikoa.....	36
<b>IV. FINANTZAREN ANALISIA</b> .....	<b>38</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>41</b>
V.1 Foru Aldundiaren kontuak .....	41
V.2 Uliazpi erakunde autonomoaren kontuak .....	44
V.3 Sozietate Publikoen kontuak.....	45
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>47</b>



<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>101</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>102</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad .....	102
II.2 Opinión sobre la Cuenta de la Diputación Foral .....	108
II.3 Opinión sobre el Organismo Autónomo Uliazpi .....	109
II.4 Opinión sobre las sociedades públicas.....	110
<b>III. ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES .....</b>	<b>112</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	112
III.2 Ingresos fiscales .....	114
III.3 Contratación .....	119
III.4 Subvenciones.....	123
III.5 Personal.....	130
III.6 Patrimonio.....	131
III.7 Organismo Autónomo Uliazpi.....	131
III.8 Sociedad Pública Izfe, SA .....	131
III.9 Sociedad Pública Bidegi, SA .....	132
III.10 Sociedad Pública Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	132
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>134</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>137</b>
V.1 Cuentas de la Diputación Foral .....	137
V.2 Cuentas del Organismo Autónomo Uliazpi .....	140
V.3 Cuentas de las Sociedades Públicas.....	141



**ANEXOS..... 143**

A.1 Aspectos generales .....	143
A.2 Presupuesto .....	144
A.3 Gastos de personal .....	146
A.4 Compras de bienes corrientes y servicios.....	149
A.5 Transferencias y subvenciones concedidas .....	150
A.6 Inversiones, inmovilizado y patrimonio .....	152
A.7 Ingresos y deudores tributarios .....	156
A.8 Deudores y acreedores presupuestarios .....	159
A.9 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	160
A.10 Inmovilizado financiero y activos financieros .....	163
A.11 Deuda y gastos financieros .....	165
A.12 Operaciones extrapresupuestarias.....	166
A.13 Tesorería e ingresos patrimoniales .....	167
A.14 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	168
A.15 Análisis de contratación .....	169
A.16 Análisis de subvenciones.....	178
A.17 Organismo Autónomo Uliazpi.....	183
A.18 Sociedad Pública Izfe, SA .....	184
A.19 Sociedad Pública Bidegi, SA .....	185
A.20 Sociedad Pública Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	186

**ALEGACIONES ..... 187**

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 30a

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 2009



## I. SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren barruan sartzen dira, 2007ko ekitaldian zehar, aurrekontu, ondare eta diruzaintza arloan honako erakunde hauek egin dituzten eragiketa guztiak: Gipuzkoako Foru Aldundia (aurrerantzean GFA), Uliazpi foru erakunde autonomiaduna (adimen urri sakonekoei egoitza-arreta), IZFE, SA foru sozietate publikoa (% 100eko partaidetza, foru eta udal administrazioei informatikako zerbitzuak ematen dizkie), Bidegi, SA foru sozietate publikoa (% 100eko partaidetza, A-8 eta AP-1 autobideak eta horien instalazio eta zerbitzuak mantentzea, kontserbatzea, eraikitzea eta ustiatzea du helburu) eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA (% 100eko partaidetza, helburua jarduera ekonomikoak, etxebizitzak eta era guztietako ekipamendu publiko guztien kokaleku izateko lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu, erosi eta saltzea da).

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007ko ekitaldiko kontuari buruzko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera burutu da, eta 2008ko HKEEren Lanerako Planean jasoa dago.

Txosten honek honako alderdiok besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Foru administrazioaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera.

Erakunde autonomoak eta foru sozietate publikoek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### ZERGA EXENTZIO, KENKARI ETA HOBARIAK (ikus A.9 eranskina)

1. Ebazteko daude GFak Europar Batasuneko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrean aurkeztutako errekurtsuak, Europar Batzordeak 11/1993 FAren 14. artikulua, 7/1996 FAren 26. artikulua eta 7/1997 FAren Xedapen Gehigarri Hamargarrena ez-legezko izendatzeko erabakiei dagokienez.

Halaber, ebazteko daude 14 enpresak Foru Epaitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean aurkeztutako errekurtsuak, jasotako laguntza fiskalak itzultzeko agintzen dien GFaren ebazpenei dagokienez. Bestalde, Europar Batzordeak azalpenak eskatu ditu GFak hartutako erabakien exekuzioari dagokionez gauzatutako jardueren gainean, txosten hau idatzi dugun datan horien gaineko irizpenik eman ez duela.

Amaitzeko, 1994an enpresa bati emandako zerga-exentzioei dagokienez, GFak 2007ko ekitaldian ikuskaritza jarduerak ekin zituen, 2008ko azaroan 2002 eta 2003ko ekitaldiei buruzko hiru desadostasun aktaren likidazioarekin amaitu direnak, guztira 60.125 mila eurokoak (% 18 inguru beste zerga sarrera batzuei legozkieke). Likidazio hauek Foru Epaitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean errekurritu dituzte. Gainera, enpresa honi dagokionez, GFak 1994tik 2001eko ekitaldietarako laguntzak itzultzeko Ebazpen bat ebatzi du, guztira 44.855 mila euroko zenbatekoduna, eta horren aurka zergapekoak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu du. Bi errekurtsu hauek ebazteko daude txosten hau idatzi dugun datan.

#### SARRERA FISKALAK

2. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2008ko otsailaren 13an ondoko eduki honekin aparteko ekarpena egiteko erabakia hartu zuen:

- 2007ko ekitaldi itxierako azken emaitzak ikusita, Eusko Jaurlaritzak 21.012 mila euro ekarriko ditu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 8.988 mila euro, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean zati-banatzeko, hurrenez hurren 21.000 eta 9.000 mila euro.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek behin-betiko kitatu eta baliogabetutzat jo dituzte zergazko foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak, kudeaketan izandako desadostasunen, beste administrazio batzuetan okerreko diru-sarreraren eta zerga mailako beste auzi batzuen ondorioz, data honetan erabakitzeke daudenak.

Aparteko kontribuzioaren ekarpenak ez daude arrazoituak kontribuzio hori eragiten duen kontzeptuan, ez eta erakunde bakoitzak eman eta jaso beharreko zenbatekoan ere, eta ez dira ez kuantifikatu, ez xehatu kitatutzat eta baliogabetutzat jo diren foru administrazioen arteko erreklamazioak.

3. 2005eko abuztuan, GFaren Finantzen Zuzendaritzako Artekariak eta Auditoria Zerbitzuak hainbat akats azaleratu zituen Irungo Diru-bilketa Bulegoak izapidetutako





zerga sarrerren baliogabetze espedienteetan. GFak espediente horiek Ministerio Fiskalari igorri zizkion 2006ko irailean eta honek, 2007ko maiatzean, erantzukizun penala eragin zezaketen ustezko zantzuen aurrean, dagokion salaketa aurkeztu zuen Irungo Instrukzioko Epaitegian; txosten hau jaulki dugun datan atal horrek amaitu gabe dauka prozeduraren instrukzioa. HKEEk ez du Artekaritza eta Auditoria Zerbitzuaren txostena jaulki zenetik espedientea Fiskaltzari igorri bitartean GFak gauzatu dituen jardueri buruzko dokumentazioa eskuratu, izan ere, GFak jakinarazi baitio dokumentazio hori aipatutako espedientearen atal dela, espediente horren alde aurreko eginbideak isilpeko izendatu dituztelarik. Adierazitakoogatik guztiagatik, mugaketa bat dago Irungo Instrukzioko Epaitegiaren aurrean salatutako zerga sarrerren baliogabetzeen gainean.

## LANGILE GASTUAK

4. GFak ez ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren etekin modura barne hartzen ez 16 zuzendari nagusiri ordaindutako 99 mila euroko zesantiak, ez sei langileri ordaindutako 352 mila euroko erretiro sariak ere, ez baititu zerga horri lotutako ordainsaritzat hartzen; ordea, zerga arautegiak ez du ordainsari horiei dagokienez inongo salbuespenik aurreikusten.

## ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

5. Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekitaldian 276 mila euroko gastua egiteko baimena eman zuen, 2004ko abenduaren 9ko Auzitegi Gorenaren Epaia dela eta, GFaren defentsa egiteagatik abokatu bati ordura arte zorpetutako ordainsariak ordaintzeko, alde aurretik aldean eskubide eta obligazioak arautuko zituen inongo kontraturik izenpetu ez zela.

Antzeko egoeraren aurrean gaude abokatu berari egindako 290 mila euroko beste ordainketa bati dagokionez, Europako auzialdien aurrean emandako aholkularitza juridikoaren ordainetan, Europako Batzordeak GFaren hainbat zerga-xedapen legez kontrako jotzen dituen Erabakiak jaulkitzeagatik. Gastu honen egikaritzari dagokionez, ez dakigu baimendutako gastu hau denboran zehar zenbat luzatuko den, izan ere, gaurko egunez, profesional honek lanean dihardu.

6. GFaren 2007tik 2011ra bitarteko aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoaren sustapenerako kanpaina hedatzeko zerbitzuen kontratazioa, 142 eta 175 mila euroko zenbatekoekin, bi espedientetan zati-banatu da, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren -APKLTB- 68. artikulua urratuz, helburu bereko kontratuak zatikatzea eragozten baitu. Bestetik, nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den, APKLTBren 78. artikulua urratzen du, ez baita ez BOEn, ez DOUEn argitaratzen. (ikus A.15.1 eranskina).
7. 2004-2007 aldirako Inbertsioen Aparteko Planari buruzko informazioa hedatzeko zerbitzuak horretarako eskumenik ez duen atalak kontratatu ditu 183 mila euroko zenbatekoarekin, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez, 210 b) artikulua babes hartuta; ordea, ez dago inongo justifikaziorik salbuespen horretarako, prozedura



irekian gorde behar diren publizitate eta lehia printzipioak urratu direla. Espedientea gerora Diputatuen Kontseiluak baliokidetu du.

8. GFak urratu egin ditu publizitate eta lehia printzipioak, ez baitu kontratazio arautegiak aurreikusten duen esleipenerako prozedura irekiaren moldea erabili ondotik adierazitako kasuetan:
  - Guztira 809 mila euroko zenbatekoarekin publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez –eskaintzak eskatu gabe- aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko hamaika kontratu izapidetu dira, prozedura hori erabiltzea bideratuko duten arrazoi teknikoak edo eskubide eskusiboen babesarekin lotutakoak behar hainbat egiaztatuak geratzen ez direla, (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 210 b) art.) (ikus A.15.3 Eranskina).
  - Kopurua aintzat hartuta, publizitaterik gabeko bost prozedura negoziatu izapidetu dira, horretarako xedea zatikatuz; ordea, 120 mila euroko prozedura ireki bidez izapidetu behar zatekeen (ikus A.15.3 Eranskina).
  - GFak ez ditu administrazio kontratazioko derrigorrezko espedienteak izapidetu xede bakarrarekin egindako lanetan, ondotik laburbilduko ditugun gastu bakoitzaren exekuzioari dagokionez: Guztira 639 mila euroko 7 obra, 93 mila euroko zenbatekoa egiten duten 2 hornidura, 22 laguntza tekniko guztira 3.650 mila euroan eta guztira 310 mila euro egin dituzten 2 kontratu pribatu. (ikus A.15.4 eranskina).
9. GFaren eraikinak garbitzeko zerbitzua, 3.298 mila euro egin dituen, zuzenean kontratatzen da 2001eko urtean lehiaketa publiko baten esleipen bidez lehenagoko ekitaldian zerbitzua ematen zuen enpresarekin; honek agortuak zuen jada APKLTBk aurreikusten duen luzapen kopuru gehienekoa eta honenbestez, publizitate eta lehia printzipioak urratu ditu. Egoera bera gertatu da Eibarko egoitzetxean asteburuko zaintzaileen zerbitzuen emakidan, 2007ko ekitaldian 1.541 mila euroko gastua izan duena, izan ere, gastua APKLTBk agintzen duen prozedura irekia gauzatu gabe zorpetu baita.
10. Hainbat kontraturen exekuzioan aldaketa adierazgarriak gertatu dira, APKLTBn jasotako lehiaketa printzipioak urratzen dituztenak, izan ere, igoeren zenbatekoak desitxuratu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere, arrazoi berri edo ustekabekoen ondorio izan gabe.
  - Santa Teresa Komentua zaharberritzeko proiektua -proiektu aldaketa, obra zuzendaritza, kalitate kontrola eta segurtasuna eta osasuna-, 2000ko irailean 257 mila euroan esleitu zen eta 2007ko otsailaren 27an onetsitako aldaketaren ondoren, zenbatekoa 853 mila eurora igo zen, % 232ko igoaldia, hain zuzen ere.
  - GI-131 barianteko obren zuzendaritza, Martutene-Hernani bide-zatia, 2003ko irailean 1.546 mila euroan esleitu zen eta 2007ko azaroaren 27an onetsitako aldaketaren ondorioz, zenbatekoa 2.173 mila eurora igo zen, % 41eko igoaldia izanik.
  - GI-131 barianteko obren zuzendaritza, Donostia-Martutene bide-zatia, 2005eko abenduan 942 mila euroan esleitu zen eta 2007ko irailaren 25ean onetsitako aldaketaren ondorioz, zenbatekoa 1.667 mila eurora igo zen, % 77ko igoaldia izanik.



- Haurren egoera arriskutsu edo babesgabearekin lotutako proiektu bati buruzko aholkularitza eta laguntza zerbitzua 2006ko uztailean esleitu zen bi urtetarako eta urteko 471 mila euroko zenbatekoarekin; ordea, 2007ko ekitaldian % 78 aldatu zen eta urtekoa 365 mila euroan gehitu zen.
11. 2007ko martxoaren 27an GFak 1000 euroko diru-laguntza eman zion enpresa pribatu bati zaharren egoitza bat eraikitzeko, 7 eta 17/2007 Foru Dekretuak babes hartuta, aldi berean GFak konpromisoa hartu zuelarik etorkizunean enpresa horrekin eraikiko den zentroan egonaldietarako hitzarmena sinatzeko. GFak prozedura irekia izapidetu behar zukeen, laguntza zerbitzuen esleipenean publizitate eta lehia printzipioak bete daitezzen.

### DIRU-LAGUNTZAK (Ikus A.16 eranskina)

12. 2007ko azaroaren 13an Diputatuen Kontseiluak zergapeko batek aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioak onartzea erabaki zuen, 164 mila euroko zenbateko kalte-ordaina emateko eskubidea aitortuz, Europako Erkidegoetako Auzitegiak 2005eko urriaren 6an emandako epaiaren ondorioz, zeinak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arauak zuzenbidearen kontrako izendatzen baitzituen; izan ere, erosketa kontzeptuan jasandako zergaren izaera kengarria mugatzen baitzuten, erosketa diru-laguntza bitartez finantzatua izan zenean. Erreklamaturako kopuruak 1998 eta 1999ko ekitaldiei dagozkie, fiskalki preskribaturako ekitaldiak, horien gainean enpresak inongo erreklamaziorik egin ez zuela eta honenbestez, kontsolidaturako egoera izanik.
- 2008ko urtarrilean Auzitegi Gorenak aipaturakoa bezalakoxe erreklamazio bati buruzko epaia ebatzi zuen eta bertan esaten da Justizia Auzitegiaren doktrinak epaia “iraungi gabeko” egoera juridiko ebatzi gabeei ezartzea aurreikusten duela barne zuzenbidearen arabera; honek epaia ezartzetik salbuesten ditu kontsolidatuta egoteagatik berrikusi ezin daitezkeen haiek.
13. Diputatuen Kontseiluak 52 diru-laguntza zuzen eman ditu guztira 13.876 mila euroko zenbatekoarekin, publizitate eta lehia printzipioak sustatzeko ezintasuna justifikatu gabe. Hona hemen laguntza horien onuradunak: Hogeita zazpi toki entitate (9.276 mila euro); 8 enpresa (2.907 mila euro) eta irabazi asmorik gabeko 17 entitate (1.693 mila euro).
14. -2007ko maiatzaren 15ean Diputatuen Kontseiluak errepide bidezko bidaiarien garraio publikoko linea erregularren kontzesionario ziren 11 enpresekin hitzartuak zituen zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen aldaketa onetsi zuen, “Txartel Bakarra” ezarri asmoz; eragiketa honekin txartel kontzeptuan guztira 24.540 mila euroko diru-sarrera finkoak bermatu zituen; ordea, ez da egiaztatu konpentsazioa soilik enpresa emakidadunei eragindako kalteari uztartzen zaiola eta ez dituela ziurtatzen lehen emakidadunak bere gain hartutako arriskuari zegozkion mozkinak, APKLTBren 156. artikuluan aurreikusitako arriskuaren printzipioari jarraiki. GFak 2007ko ekitaldian ordaindutako zenbatekoak 544 mila euro egin ditu.



Bestalde, APKLTBren 101 artikulua urratu da, izan ere, ez baita onetsitako kontratuak aldatzeko espediente justifikagarririk gauzatu, ez eta nahitaezko diren alde aurreko txosten juridiko eta fiskalizaziokoak ere.

15. Foru diputatu batek 279 mila euroko zuzeneko diru-laguntza eman dio irabazi asmorik gabeko erakunde bati, araudiak foru diputatu batek zuzeneko diru-laguntza emateko ezarritako gehiengo kopurua gaindituz, 15 mila eurokoa dena, honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007rako Aurrekontu Orokorren 9/2006 Foru Arauaren 16.5 artikulua urratzen du.
16. GFAk udal ondasunetan 237 mila euroko obra bat egitea onetsi du eta honenbestez, bere buruari diru-laguntza zuzena eman dio, publizitate eta lehia printzipioak ezartzeko ezintasuna justifikatu gabe.
17. 2007ko ekitaldian 800 mila euroko diru-laguntza eman zaio enpresa pribatu bati 8 autobus erosteko. Diru-laguntza hau arautzen duen foru dekretuak ezartzen du laguntza hauek bateraezinak direla xede bereko diren beste batzuekin edota helburu bera aurreikusten duten haiekin eta % 55eko gehienezko finantzaketa-ehunekoa ezartzen du. 2006ko ekitaldian zehar 672 mila euroko zuzeneko diru-laguntza eman zitzaion inbertsio berari eta ondorioz, finantzaketaren azken ehunekoa % 99,24koa izan zen, finantzaketaren bateraezintasuna eta ehunekoa arautzen duten dekretuko artikulua urratuz.
18. Garapen bidean dauden herrialdeei kooperaziorako laguntzetan (7/06 FD, 1. eranskina), 31 entitateri guztira 3.272 mila euroko laguntzak eman zitzaizkielarik, gutxieneko puntu kopuruarekin laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen zituen entitate bati laguntza ukatu zitzaion eta puntuaketa bera zuten gainerako entitate guztiei laguntza eman zitzaion, batzuk hautatzea eta bestea saihestea justifikatu gabe. Egoera bera errepikatzen da nekazal ustiaketatik inbertsioak egiteko emandako laguntzetan (80/04 FD), 101 erakunderi guztira 3.108 mila euroko zenbatekoarekin emandakoak; izan ere, puntu gutxienekoa egiten duten 20 eskabide atzera bota baitziren eta 10 erakunderi, berriz, diru-laguntza eman baitzitzaion, proiektu batzuk hautatu eta beste batzuk saihesteko arrazoirik batere eman gabe.
19. Gizarte zerbitzuetako zentroetan inbertsioak egiteko emandako laguntzetan (7/2007 eta 17/2007 FD) 40 onuraduni guztira 9.818 mila euroko laguntzak eman zitzaizkietan, baldintza guztiak betetzen zituzten 15 eskaerari uko egin zaie, proiektu batzuk hautatu eta beste batzuk saihesteko arrazoirik batere eman gabe. Berebat, 12 proiektu lan-munduratzeko guztira emandako 2.273 mila euroko laguntzetan (52/04), ez da justifikatu emandako zenbatekoa, ezta aurkeztutako 15 proiektu uko egin izana ere.



## ONDAREA

Diputatuen Kontseiluak 2007ko maiatzean Zubietako Garraio Zentroan bere jabetzako lursail bat enpresa pribatu baten -Hernaniko saihesbideko obrek kaltetutakoa- jabetzako beste lursail batekin trukatzeari onesten du. Akordioaren edukiak nagusiki 2002an Aldundiko Zuzendari batek adostutako baldintzak transkribatzen ditu (aipatutako akordioa izenpetzeko eskumenik ez zuen atala), lursailen ezaugarri eta balorazioei dagokienez. 2002an adostutako trukearen balantze ekonomikoa GFaren alde 3.224 mila eurokoa zen eta Diputatuen Kontseiluaren erabakian kopuru hori 322 mila euroan murrizten da enpresak erositako lursailean egindako urbanizazio lanen % 50aren ordainetan..

20. Eragiketa honi dagokionez alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Trukea egiteko beharra egiaztatuko duen alde aurreko espedienterik ez da gauzatu, 8/1996 Foru Arauaren 48. artikulua urratuz. Izatez, desjabetze espedienteari trukea egiteko erabaki proposamenaren ondoren ekin zitzaion.
- Besterendutako lursaila 5.024 mila eurotan baloratu da, lehiaketa publiko bitartez Garraio Zentroan besterendutako beste lursail baten jasanarazpen balioa erabiliz; ordea, balorazio honek ez dezake 8/1996 Foru Arauaren 48. artikuluan higiezinak trukatzeko eskatutakoa ordezkatu. Erositako lursailari dagokionez, 1.800 mila euroan baloratu dena, ez dago inongo balorazio txostenik eta honenbestez, aipatutako artikulua urratu da.

Lursailen balorazioak 2002ko urtean finkatu ziren, orduz geroztik prezioak batere gaurkotu ez direla edo horiei bere horretan eustea justifikatu ez dela, 2007ko urtean trukea gauzatzeko orduan.

- GFak enpresak egindako urbanizazio lanen % 50a bere gain hartzeko erabakia, GFari 322 mila euroko gastua ekarri diona, ez zuen alde aurretik GFaren inongo atalek onetsi, ez da justifikatu eta kontzeptuari dagokionez, gogoan izan behar da GFak Garraio Zentro osoaren urbanizazioa hartu duela bere gain eta lursailak jada urbanizatuta entregatu dituela; hori dela eta, enpresak egindako bestelako zeinahi gastu ez dator bat GFak truke kontratuan bere gain hartutako inongo obligazioekin.
- Enpresak lursaila prekarioan erabili du, eraikuntza lanak trukea gauzatu aurretik egin baititu, GFak lursailaren egiazko okupazioa bideratuko zukeen inongo ekintza administratiborik bideratu gabe.

21. GFak honako higiezin hauek erosi ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko 8/1996 Foru Arauaren 38. artikuluan aurreikusitako lehiaketa publikoaren prozedura saihestuz eta prozedura negoziatua erabiltzeko bide ematen duten inguruabarrak egiaztatu gabe:

- Errenteria eta Donostian adingabeen egoitza harrerarako bi etxebizitza atxiki, hurrenez hurren, 978 eta 906 mila euroan erositakoak. Erosketa hauetan lau eskaintza eskatu dira beste hainbat udalerritan eta lehenengo etxebizitzari dagokionez, erosketa prezioak 46 mila euroan gainditu du tasazio prezioa.
- Azkoitiko Insausti gunean lursail baten % 50a, 3.000 euroan erosi da.



22. GFak 1.000 mila euroan FIK Ekimena, Interes Ekonomikoa duen Taldearen akzioak erosi ditu kapital sozialaren % 2aren erakusgarri; honek 12/1991 Legearen 4. artikulua urratzen du, apirilaren 19koa, Interes Ekonomikoa duten Taldeei buruzkoa, izan ere, honek agintzen baitu enpresa, nekazaritza edo artisautza jarduerak gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei, ikerketara emaniko irabazi asmorik gabeko erakundeek eta lanbide liberalak dituzten haiek soilik eratu ahal izango dituztela.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantza egoera, 3. paragrafoan deskribatutako mugaketa eta aipatutako gainerako ez-betetzeak salbuetsita, Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 FORU ALDUNDIAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

1. GFaren Diruzaintza Geldikina 2007ko abenduaren 31n 4.702 mila euroan soilik gehitu behar da, ondoko doiketa hauen ondorioz:
  - GFak ez ditu aurrekontuan erregistratzen ez zordunak, ez zerga hartzekodunak ere. Honen ondorioz, diruzaintza geldikinean ere ez da kaudimengabeziatarako zuzkidura, ez erakunde konpromisoetarako zuzkidura islatzen. Kontu-sail hauen ondorioz, aurrekontuko kontabilitatetik sortu den diruzaintzako geldikina 9.647 mila euroan gehitu behar da (ikus A.7 eranskina).
  - GFak aurrekontuz kanpoko kontuetan 4.111 mila euroko saldo hartzekodun garbia dauka, hiru Foru Aldundien arteko akordioaren ondorioz eskagarri izateari utzi diona, foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak behin-betiko kitatutzat eta baliogabetzat jo direlarik; honenbestez, diruzaintza geldikina kopuru horretan gehitu behar da (ikus A.7 eranskina).
  - GFak sarrera modura erregistratu ditu 9.056 mila euro, dedukzio eta hobari fiskalengatik Estatuko laguntzen itzulketa kontzeptuan eta sortutako beranduntza interesen kontzeptuan. Sarrera hauek errekurritu egin dira eta honenbestez, ez dira behin-betikoak, GFak ez duelarik dagokion hornidura zuzkitu, diruzaintza geldikina urrituz (ikus A.9 Eranskina).
2. Ondotik zehaztutako ibilgetuko kontuek ez dute banakako xehekapenik, kostua eta amortizazio fondoa egiaztatzeko bide emango dutenak. Bestalde, uraren zerbitzuak kudeatzeko azpiegitura hidrauliko horiek erabiltzen dituzten mankomunitate eta partzuergoei lagatzea ez da kontularitzan erregistratu.



	Mila euro	
	Kostua	Amortiz. F.
Aplikazio informatikoak.....	89.555	66.653
Abian dauden ikerketa, azterlan eta proiektuak.....	21.781	15.494
Instalakuntza teknikoak (obra hidraulikoak).....	408.499	43.497
Higigarriak.....	22.040	14.277
Informazio prozesuetarako ekipoa.....	13.155	11.229
Makineria, tresneria, bestel. instal., segurtas. ekipoa eta beste.....	48.510	36.110
Mendietan hobekuntzak.....	4.716	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>608.256</b>	<b>187.260</b>

Gure iritzira, 1etik 3rabitarteko paragrafoetan aipatutako ez betetzeak alde batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2007ko aurrekontu ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten du, ondarearen eta 07.12.31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldi horretan bere eragiketen emaitzena.

### II.3 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOARI BURUZKO IRITZIA

- Uliazpi Erakunde Autonomoak ez ditu administrazio kontratazioaren nahitaezko espedienteak izapidetu, publizitate eta lehia printzipioak urratuz 74 mila euroko obra kontratu batean, 140 mila euroko hornidura batean eta 141 mila euro egin dituzten hiru zerbitzu kontratutan (ikus A.17 Eranskina).

Epaitegi honen iritzira, Uliazpi erakunde autonomoak, aurreko ez-betetzea salbuetsita, zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia eta bere kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, baita ondarearen eta ekitaldi itxieran finantza egoeraren isla leiala ere.

### II.4 SOZIETATE PUBLIKOEI BURUZKO IRITZIA

#### IZFE, SA

#### Legea ez betetzea

- Sozietateak zuzenean kontratatu ditu hainbat zerbitzu (internet bi konpainiarekin guztira 266 mila euroan eta telefonia konpainia batekin 48 mila euroan), derrigorrezko administrazio kontratazioarako espedienteak saihestuz eta publizitate eta lehia printzipioak urratuz (ikus A.18 eranskina).



## **BIDEGI, SA**

### **Legea ez betetzea**

- Sozietateak inongo hautaketa prozesurik deitu gabe bi langile kontratatu ditu zuzendari nagusiak bertan iraungo duen aldirako, langileen kontrataziorako ezarritako berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.
- Laguntza teknikoaren emateko kontratu batean, 356 mila euroan esleitutakoan, % 33ko aldaketa bat onetsi da; honek APKLTBn jasotako lizitazio printzipioak urratzen ditu, aldaketaren zenbatekoak kontratuaren xedea desitxuratzen baitu (ikus A.19 Eranskina).
- Laguntza teknikoaren emateko 3.804 mila euroan esleitutako kontratu batean, 2007ko azaroaz geroztik esleipen hartzailea kopuru horiek gainditzen dituzten zerbitzuak fakturatzeko ari da, dagokion aldaketa espedientearen izapidetu gabe. 2007ko abenduaren 31ra arte fakturaturako zenbatekoak esleitutako kopurua % 7an gainditzen du (ikus A.19 eranskina).
- Langileak hautatu eta kontratatzeko zerbitzu emakida zuzenean kontratatu da 34 mila euroko zenbatekoarekin, publizitate eta lehia printzipioak urratuz, nahitaezko diren kontratazio espedienteak ez baitira bideratu (ikus A.19 Eranskina).

## **ETORLUR, SA**

### **Legea ez betetzea**

- Sozietateak 2.000 mila euroko banku kreditua eskatu du, Fiskalitate eta Finantzen Sailaren nahitaezko alde aurreko baimenik gabe eta 9/2006 Foru Arauaren 4. artikulua urratuz, zorpetzea gehienera 300 mila eurokoa izan daitekeela agintzen baitu. 2007ko abenduaren 31n erabilitako kredituaren zenbatekoa 60 mila eurokoa da (ikus A.20 Eranskina).
- Sozietateak guztira 2.115 mila euroko zenbatekoarekin eraikitzen ari diren etxebizitzaren eroslearen aldeko abalak eman ditu, salerosketa kontratuengatik jasotako konturako aurrerakinen berme modura. Berebat, administrazio publikoaren aurrean 342 mila euroko abalak eman ditu. Jarduera hauek guztiek Aurrekontu eta Finantza Araubideari buruzko 4/2007 Foru Arauaren 108. artikulua urratzen dute, abalak emateko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari soilik aitortzen baitio.

Epaitegi honen ustetan, Izfe, SA, Bidegi, SA eta Etorlur, SA azaleratu diren ez-betetzeak salbuetsita, GFaren meneko diren sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2007ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia eta bertako kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute ekitaldi horretako jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta ekitaldi itxierako finantza egoeraren isla leiala.





### III. KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

##### Konpromisozko kredituak

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko 17/1990 FAren 52.1 artikulua adierazten du konpromisozko kredituen egoera ekitaldian zehar konprometitu daitezkeen urteanitzeko gastu guztiek osatzen dutela, exekuzioari betiere ekitaldi horretan bertan ekiten bazaio. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 FAren 54.7 artikulua adierazten du Diputatuen Kontseiluak baimentzen dituen urteanitzeko gastuei onesten diren ekitaldian ekin behar zaiela.

2007ko ekitaldiaren itxieran, konpromisozko kredituen egoerak, 293.308 mila euroko zenbatekoan aurrekontu egindako konpromiso kreditua zuten hainbat jarduera barne hartzen zituen (konpromiso kredituen aurrekontuaren % 69,7) erabilitako edo hitzartutako fasera iritsi ez direnak. Bestalde, ez dira hitzartu modura ageri 45.898 mila euroko konpromiso kredituak, ekitaldian horien zuzkidurak horrela erregistratuak ageri direla.

**Konpromiso kredituen aurrekontua zorroztasun handiagoz egin behar da, hainbat ekitaldi besarkatuko dituzten jarduerak barne hartuta, betiere horri indarreko ekitaldian ekiten bazaio.**

##### Kreditu txertaketa

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko 17/1990 Foru Arauaren 61.2 artikulua ezartzen duenez, txertatutako kredituak baliorik gabe geratuko dira, baldin eta kreditu-txertaketa hori gertatzen den ekitaldiaren barruan aitortzen ez bada obligazioa, betiere urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan besterik ezarri ezean. 2007ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren 14.4 artikulua agintzen du Lurralde Historikoaren interesak hala eskatuko balu, salbuespenez eta Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez, beste aurrekontu kreditu batzuk txertatu ahal izango direla, inongo mugarik gabe. 2007ko ekitaldian ez da legezko aurreikuspen hau erabili.

**Gure iritzira, aurrekontuen urteko arauak ez luke aurrekontuen oinarritzko araua modu adierazgarrian eragin behar, Diputatuen Kontseiluari kredituak txertatzeko mugarik gabeko baimenak emanez.**



## Kreditu Transferentziak

- Finantza gastuen aurrekontua gehiegizkoa izan da azken ekitaldietan eta horrek kreditu transferentziak egiteko bide eman du, 2007ko urtean 4.008 mila euro egin dituen.

## Diruzaintza Geldikina eta Erabili gabeko zorpetzea

- GFak, azken ekitaldietan zehar, baimendutako eta erabili gabeko zorpetze bidezko sarrerak aurrekontuan kontabilizatu ditu, guztira 204.950 mila euro; kopuru honek ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen emaitzak handitu ditu eta gaurko egunez, Diruzaintzako Gaindikinean jaso dago.

Nolanahi dela ere, GFak Diruzaintzako Geldikinaren berri ematerakoan, “Erabili gabeko kreditu eragiketekin Diruzaintzako Gaindikin Bateratua” izeneko kontzeptu berria sartu du; hor sartzen da 2007ko abenduaren 31ko Diruzaintzako Geldikin Erabilgarria, guztira 189.132 mila euro, eta kreditu-lerroen bidez gauzatutako aurrekontu finantziarioa, erabili ez dena, guztira 204.950 mila eurokoa.

**Erabili gabeko zorpetzea ez da aurrekontuko sarrera modura aitortu behar.**

## Bestelako alderdiak

- Inbertsio errealen kapituluaren barruan egin du GFak “errepideak, bideak eta basoko pistak hobetzea” kontzeptuaren aurrekontua, 2007ko ekitaldian 50.847 mila euroko gastua izan duena; ordea, ondareari dagokionez, galera eta irabazien atalean erregistratzen dira, izan ere, nagusiki konponketak izan direnez, kapitalizagarritzat jotzen ez diren eragiketak jasotzen baititu. Orobat, kapitalizatu ez diren inbertsioen beste 1.052 mila euro existitzen dira. Honenbestez, funtzionamendu gastuetan jaso behar liratekeela uste dugu.
- Hainbat inbertsio jakin, bereziki 2004-2007ko Inbertsioen Aparteko Planari dagozkionak, aurrekontuko kontu-sail ezberdinetan daude erregistratuak, sail bati baino gehiagori dagozkionak. Inbertsio bakoitza aurrekontuko kontu-sail batean aurrekontuetaratu behar litzatekeela uste dugu, exekuzioaren jarraipen egokia eta kontrola bideratzeko.
- Desjabetzeen aurrekontuzko exekuzioa banakako ordainketa bidez egiten da, zeinetan aurrekontu exekuzioaren atal guztiak ekintza bakar batean metatzen baitira.

Gastua baimentzeko fasea jaso behar litzatekeela uste dugu, eraginpeko ondasun eta eskubideen gaineko balorazio txostena abiaburu hartuta, gutxi gorabeherako izaerarekin, bai kopuruan, bai eraginpeko ekitaldietan, hartara desjabetzen exekuzio denborazko eta aurrekontuzkoa egokitzearen. Bestetik, gure iritzira -gutxienez aurrekontu-ekitaldiaren itxieran- konprometitutako gastu modura zenbatetsi eta erregistratu behar lirateke desjabetzapen haiek,



zeinetan GFak jada eraginpekoei eskaintza egina baitie, izan ere, eskaintza hori bera gutxieneko konpromisoa baita.

- “Kanpoko enpresek egindako bestelako lanak” aurrekontuko azpi-kontzeptuak 2007ko ekitaldian 7.321 mila euroko exekutaturako gastua du, era honetako kontzeptuak besarkatzen dituela: txostenak, gizarte zerbitzuetan laguntza teknikoak, nekazaritza eta bestelako kontzeptuak, euren aurrekontu aplikazio propioa dutenak; honenbestez, kontzeptuko aurrekontu exekuzioaren informazioa desitxuratzen ari da.
- Finantza ibilgetuaren balio-galeragatikozuzkidura ez dago gaurkotuta. GFak gaurkotu egin behar du zuzkidura, partaidetzen dituen enpresen urteko kontuetatik eratortzen diren balorazioen arabera.

## III.2 SARRERA FISKALAK

### Sarreraren baliogabetzea

- 2007ko ekitaldian 13 mila euro egin dituzten 14 zergapekoren zerga likidazioak iraungi direlako bajaran eman dira, borondatezko aldian lau urtetik gorako antzinatasuna zuten NUIZeko zorrei dagozkienak. Egoera hau gertatu da zorrak jakinarazteko gauzatu beharreko izapideak bete ez direlako..
- Kobratu ezineko diren kredituen ondoriozko bajak 2007ko ekitaldian 2.069 mila eurokoak izan dira, zordunen ondare egoera aztertu izanaren ondorioz. Baja hauei dagokienez, GFA erantzukizuna desbideratzeko prozedurari ekiteko aukera aztertzen ari da, GLHren 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 178tik 182ra bitarteko artikuluetan aurreikusia dagoena, soilik 50 mila eurotik gorako zorrei dagokienez eta kopuru hau baino txikiagoei dagokienez, jaso gabeko jarauntsi eta ondasun erkidegoetakoak badira.

Kaudimen-gabeziagatikoko baja guztietan erantzukizuna eratortzeko prozedurari ekiteko ezintasunaren egiaztagiria barne hartu behar litzateke.

- 2007ko ekitaldian gauzaturako lehiaketa-prozeduretan izenpetutako hitzarmen judizialei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:
  - 2007ko ekitaldian zehar 986 mila euroko zerga zorren kitak onetsi dira, konkurtso-prozeduretan dauden lau sozietateri emandako lehentasun eta pribilegiozko kredituei dagozkienak. Kita hauek GLHren 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 168.4 artikuluari jarraiki gauzatu dira; honek, zordunarekin bat etorrita eta egoki irizitako bermeekin, ordainketa baldintza bereziak adosteko bide ematen du, baina horiek ezingo dira prozesu judiziala amaiarazten duen hitzarmenean edo akordioan jasotakoak baino onuragarriago izan zordunarentzat. Gainerako zorrarentzat onetsitako kita eta gerorapen baldintzen xehapena honakoa da:



Mila euro					
	Bajaren zenbatekoa	% baja GFA	% baja H. judiziala	GERORATUTAKO ZERGA ZORRA % interesa	Bermea
1. Zorduna .....	0	% 0	% 40	% 0	Ez da eskatu
2. Zorduna .....	0	% 0	% 50	% 0	Ez da eskatu
3. Zorduna .....	938	% 40	% 100	% 0	Ez da eskatu
4. Zorduna .....	48	% 30	% 50	Legezkoa	Hipotekarioa
<b>GUZTIRA</b>	<b>986</b>				

Gure iritzira, irizpide orokorrak zehaztu behar lirateke konkurtso prozeduretan dauden sozietateen lehentasun eta pribilegiozko kredituen kita-ehunekoak, berandutza interesak eta bermeak ezartzeko.

- 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak agintzen du Zerga Administrazioaren organo eskuduna izango dela zerga zorren kitetan esku hartuko duena, 2007ko ekitaldikoak Foru Diputatuak onetsi dituela. Aurreko Foru Arauan organo eskuduna Diputatuen Kontseilua zen. Kopuruaren arabera diru-sarrerak baliogabetzeko eskumenak arau bidez garatu behar liratekeela uste dugu, gastu zein sarrerekin lotutako bestelako ekintza administratiboentzat egiten den legez.
  - 2007ko ekitaldi itxieran, 2.257 mila euroko ordaintzeko saldoa zuten bi zordunek (horietako bati, 1998an zerga zorretik 2.421 mila euroko kita egin zitzaion), ez dituzte bete konkurtso-prozedurak onetsi ondoren izenpetutako hitzarmenetan onartu ziren geroratutako zorren ordainketa planak. GFak ez du ez-betetze hauen aurrean ezer egin eta honenbestez, gomendagarria da ez-betetzeagatik horiek inpugnatzea, zorra birgaitu ahal izateko.
  - Azkenik esan behar da, konkurtso prozeduretan zordunen egoeraren kontrola eskuz gauzatzen dela; ordea, komenigarria litzateke horien egiazko egoera kontrolatzeko bide emango duen aplikazio informatiko bat ezartzea, egoera ezagutzeko banakako espedienteetara jo beharrik izan gabe.
- Zergen Foru Arau Orokorrak (194.3 art.) agintzen du “irimoak diren zerga zehapenak Fiskalitate eta Finantzen Saileko Foru Diputatuak soilik barkatu ahal izango dituela grazia bidez. Interesdunak aldeztatik eskatuta, eskaera Ogasuneko Zuzendari Nagusiak bideratuko du, betiere ezarritako zehapena exekutatzeko ekoizpen gaitasunari eustea larriki eta funtsean eragingo balu edota guztien intereserako galera handiak ekarriko balitu. Erregelamendu bidez zerga zehapenak barkatzeko betekizunak eta prozedura garatuko dira”. GFak ez du aurreikusitako erregelamendu bidezko arautzea onetsi. Aztertu ditugun hiru zerga zorren barkamenetan, guztira 315 mila euro egin dutenetan, ehuneko ezberdinak ezarri dira ( % 100, % 25 eta % 100).



Foru arauan aurreikusitako erregelamendu bidezko arautzea gauzatu behar litzatekeela uste dugu, barkamen ehunekoak ezartzeko irizpide orokorrak finkatuz.

## Zerga zorren ordainketaren gerorapenak

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketarako Erregelamenduak 44.2 artikuluan gehieneko sei hilabeteko epea aurreikusten du gerorapen eta ordainketaren zatikapen eskariak ebazteko. 2007ko ekitaldi itxieran, epe hori gaintitzen duten ebazteko dauden eskabide kopurua aurreko ekitaldian zeudenekiko nabarmen murriztu dela ikusten da, ondoko taula honetatik erator daitekeen moduan:

EBAZTEKE DAUDEN GERORAPEN ESKABIDEAK	31/12/2005		31/12/2006		31/12/2007	
	Esp. zk.	Zenbatekoa	Esp. zk.	Zenbatekoa	Esp. zk.	Zenbatekoa
Hiru urtetik gora .....	11	14.032	7	11.676	-	-
2 urtetik 3ra .....	9	9.548	1	610	2	2.633
1 urtetik 2ra .....	7	7.708	10	3.996	1	460
6 urtetik 1era .....	19	5.221	24	11.543	10	22.802
<b>GUZTIRA</b>	<b>46</b>	<b>36.509</b>	<b>42</b>	<b>27.825</b>	<b>13</b>	<b>25.895</b>

2007ko ekitaldi itxieran, 6 hilabetetik gorako antzinatasuna izanik ebazteko dauden 13 eskabideetatik, 1.146 mila euroko zenbatekoa egiten duten 3 baizik ez dira ebazteko geratu 2008ko ekainaren 30ean, data horretan 16 eta 17 hilabete bitarteko atzeraldia izanik.

GFAk ez du zor hauekiko inongo ebazpenik jaulki eta honenbestez, kontura ematen diren zenbatekoak eta ordainketa epeak zordunak ezartzen ditu, GFAk inongo onespenerik egin gabe.

Ordainketen gerorapen eta zatikapenen eskabideak ebaztean atzeratzeak aldi horretan ez dela bermerik osatuko esan nahi du, atzerapen aldi zehar gauzatu beharreko ekintzak arautuko dituen prozedurarik batere ez dagoela. Zergapekoek ordainketa plan partzialak eskatzen dituzte, berariazko baimenik izan gabe zorraren ordainketari ezartzen zaizkionak.

Azkenik esan behar da egoera honek bermerik gabeko ordainketa plana ezartzea dakarrela, eskumena duen atalak onetsi gabe.

- Hona hemen 2007 ekitaldi hasieran ebazteko zeuden gerorapenei zegokienez –sei hilabeteko epea gaintitua zutenak- 2007 eta 2008ko ekitaldian gauzatutako ekintzak (42 gerorapen eskatu ziren, guztira 27.825 mila euro egin zituztenak):



	Mila euro	
	Kopurua	Zenbatekoa
2007 HASIERAN 6 HILABETETIK GORAKO GERORAPEN EBATZI GABEAK GUZTIRA	42	(*)30.537
2007an emandakoak .....	20	19.076
2007an uko egindakoak.....	9	2.987
Zordunak 2007an egindako sarrera .....	11	5.729
2007 ITXIERAN GERORAPEN EBATZI GABEAK GUZTIRA	2	2.745
2008an uko egindakoak.....	2	2.745
2008 ITXIERAN GERORAPEN EBATZI GABEAK GUZTIRA	-	-

(\*) Emandako zenbatekoaren eta 2006ko abenduaren 31n ebazteko zeudenen arteko aldea 2007an zehar zor berrien metaketaren ondorio da.

GFAk 2007 eta 2008an zehar antzintasun handieneko gerorapen eskabide guztiak ebatzi ditu eta ildo honi jarrai behar lioke ebazteko finkatutako legezko gehiengo epea gainditzen duten gainerakoekin eta baita, aldi berean, eskabide berriek Diru-bilketa Erregelamenduan aurreikusitako epea betetzeari dagokionez ere.

- Aurreko ekitaldian emandako 5.947 mila euroko zenbatekoa egin duen gerorapen espediente batean, bermea nekez exekuta daiteke eta aldatu egin behar da aktiboen balorazioan (jokalariak) egindako aldaketan arabera. Nahiz bermea ez den eratu, Diputatuen Kontseiluak gerorapen baldintzak aldatu zituen eta ezarri zuen indarrean eutsiko zaiola harik eta lehenengo mailan zein bigarrenengoan eusten dion bitartean. 2008ko ekainean gerorapena baliogabetu zen.
- 2007ko ekitaldian emandako 24.063 mila euroko 22 gerorapen aztertu ditugu eta honako alderdi hauek gailendu behar ditugu:
  - Atzerapenez eman dira 16.787 mila euro egiten zuten 13 gerorapen, 6 hilabeteko gehiengo epea gaindituz. Hauetatik, 4k 1.966 mila euroko zenbatekodunak, atzeraldian zehar zor berriak metatu zituzten, borondatezko ordainketa aldiari eutsiz.
  - Bermea atzerapenez gauzatu da 3 espedientetan, 1.739 mila euroko zenbatekoa egiten zutenak.
  - Zatikatutako zorra 237 mila eurokoa zuen espediente batean, lehenagoko beste bat barne hartzen da, 5 hilabetetan zehar bete ez dena eta 194 mila euroko saldoa egiten zuena. Zergapeko honek kontratuak izenpetu ditu GFArekin, hainbat lizitaziotan betebehar fiskaletan eguneratua dagoela agertzen baita.

Hona hemen zerga zorren ordainketa geroratzeko espedienteak berrikustean azaleratu zaizkigun beste zenbait alderdi:

- Arautegiak aurreikusten duen bi urtez baino gehiago geroratutako zorrak dituzten enpresen diruzaintzaren egoerari buruzko informazioa ez da jasotzen; ez eta kapital zabalkuntzako akordioei buruzkorik ere (38/2006 FDren 44.5 artikulua).



- Bermeen salbuespen erabateko edo partziala eskuratu duen zordunaren egoera ekonomiko-finantzario eta ondarezkoaren jarraipena ez da egiten, Erregelamenduak aurreikusten duen modura (38/2006 FDren 42.5 artikulua).
- Gerorapenak emateko erabakien baldintza bereziak betetzen diren egiaztatzeko jarraipenik ez da egiten, enpresaren ibilgetu materialaren atal diren ondasunen salmentatik eskuratutako produktua geroratutako zorra ordaintzeko erabiltzeari dagokiona. Datu baseak ere ez du informazio hau jasotzen.

Azkenik, gerorapen espedienteetan aurkeztu beharreko bermeei dagokienez, honako huts hauek azalera dira:

- Gerorapeneko hiru espedientetan eta konkurtso prozedura batean, zerga zor nagusi zatikatua hurrenez hurren 3.540 eta 148 milioi eurokoa zutenetan, ez zuten galdatutako bermea aurkeztu edo gauzatu (38/06 FAren 40.7. artikulua), eta GFAk ez zituen emandako zatikapenak indargabetu. Aipatu ditugun hiru espediente horietatik, bi zordun bati berari dagozkio, guztira 3.177 mila euroko zenbatekoa egiten dutenak, 2008ko ekitaldian konkurtso prozedura egoerara aldatu dena, eta hirugarrena, 363 mila eurokoa, 2008ko martxoan baliogabetu da ezbetetzeagatik.
- Zerga zorra zatikatzeko 9.305 mila euroko espediente batean, Diputatuen Kontseiluak erabakia hartu zuen, hitzez hitz zera dioena: “Bermetik guztiz salbuestea, nahiz enpresaren lursail guztien gainean higiezinaren hipoteka eratu beharko den, zeinetan lehenagoko zamen balioa data honetan lursailen tasazio balioa baino askoz ere handiagoa den”. Hipoteka bermea ez da eratu eta honenbestez, zatikapena emateko ezarritako baldintzak urratzen dira.

## Diru-sarrerak beste administrazio batzuetan

GFAk ondare kontabilitatean beste administrazio batzuetan gauzatutako zerga sarreren kontzeptuko zordunak ditu erregistratuak, osotasunean zuzkituak, 119.655 mila euroko zenbatekoarekin eta ondoko zehapen eta egoera erakusten dutenak:

- Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) eta Arabako Foru Aldundia (AFA), hurrenez hurren 45.384 eta 10.321 mila euroko zenbatekoa egiten dutenak. Berebat, GFAk aurrekontuz kanpoko kontuetan BFARI ordaindu beharreko 4.111 mila euroko saldo garbi hartzekoduna dauka eta honenbestez, BFAk kobratu beharreko saldo garbia 41.273 mila eurokoa litzateke.

2008ko otsailaren 13ko Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak erabaki zuen, 2007ko ekitaldi amaierak azken emaitzak ikusita, Eusko Jaurlaritzak 21.012 mila euro eta BFAk 8.988 mila euro emango zituztela, AFA eta GFAREN artean zati-banatzeko, hurrenez hurren, 21.000 euro eta 9.000 euro, alegia. Ondotik erabaki zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek behin-betiko kitatutzat eta desegintzat ematen dituztela foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak, kudeaketako desadostasun, beste administrazio batzuetan okerreko diru-sarrera edota zerga mailako beste auzi batzuen ondorioz, data horretan erabakitzeke daudenak.



GFAk aurrekontuz kanpoko kontuetan dituen saldoek, lehenago aipatu direnak, beste hainbat eragiketaren artean, GFAk 2001ean BFari sozietate zergen kobrantzagatik 7.256 mila euroan egindako atxikipenak barne hartzen dituzte, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari aitortu ez zaizkionak. Erakunde honen aipatutako erabakiak, foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak behin-betiko kitatu eta baliogabeko izendatzen dituenak, ez du aintzat hartu Ekarpenen Legeak itunpeko zergen diru-bilketagatik sarrera guztiak gogoan hartzeko ezartzen duen obligazioa, ekarpenen kalkulua egiteko ondorioetarako.

GFAk erregularizatu egin behar ditu BFari eta AFari erreklamaturako saldoak. Aipatu ditugun zenbateko horiei 1.245 mila euroko beste bat gaineratu behar zaio; honako hau ondare kontabilitatean erregistratua dago eta GFAk Bizkaian izapidetu zen konkurtso prozedura batean erreklamatu zuen.

- Beste administrazio batzuk, guztira 63.950 mila euroko zenbatekoarekin. Aldi honetan 30.144 mila euroko zenbatekoa gailentzen da, 1992-1998 aldiko BEZ aitortpenetan jatorria duena, ez baita kontutan izan Gipuzkoan fabrikazio instalakuntza bat zegoela.

Zor hau formalki 1999an erreklamatu zen eta horretarako eskumena duen jardute-atalak ebatzi zain dago. Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak, 65 eta 66. artikuluetan dio Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean edo hauen eta beste zeinahi Autonomia Erkidegoren artean sor daitezkeen auziak konpontzeko atal eskumenduna Batzorde Arbitrala dela; atal hau 2007ko irailean sortu da eta txosten hau idatzi dugun datan ez du artean eratu aurrean sortutako auzien gaineko iritzirik plazaratu.

### III.3 KONTRATAZIOA

#### Kontratuen Erregistroa

Artekaritza eta Auditoria Zerbitzuak, GFaren Kontratuen Erregistroaren arduradun denak, ez du departamentuetatik izapidetu dituzten kontratuei buruzko informaziorik jasotzen. Lehiaketa publiko edo enkanteak kontrolatzen ditu, soil-soilik Kontratazio Mahaian ordezkariarik bada.

Honela, bada, “2007ko Kontratazioaren Oroitidazkia” mamitzerakoan, publizitaterik gabeko prozedura bidez izapidetuztat hartzen ditu kopuruaren arabera publizitaterik gabeko prozedurentzat finkatutako gehiengo mugen baitan sartzen diren kontratu guzti haiek, inongo egiaztapenik batere egin gabe. Bestetik, ez dago kontratu luzapen eta aldaketei buruzko informaziorik; honenbestez, kontratu bakoitzaren egoera esleipena egiten duen departamentuak soilik ezagutzen du.

GFAren Kontratuen Erregistroak ez ditu 24/2001 Foru Dekretuan finkatutako alderdi guztiak jasotzen, egiteko moldea arautzen duena. GFAk kontabilitatearekin integratutako prozedura finkatu beharko luke kontratuen erregistroa egiteko.





## Kontratazio espedienteak (ikus A.15.1 eta 2 eranskinak)

2004an 44.682 mila euroan esleitutako 24 kontratazio-espediente eta aurreko urteetan esleitutako beste 18 espediente- 2004an 124.145 mila euroko exekuzioa izan dutenak- aztertu dira. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- 2007ko ekitaldian guztira 78.776 mila euroan esleitutako 10 espedientetan eta bete gabe utzitako espediente batean, Administrazio Klausula Partikularren Pleguek esleipen irizpide modura kontratarien kaudimenari buruzko alderdiak barne hartzen dituzte (azken ekitaldietan antzeko lanen exekuzioan kalitatea, esperientzia antzeko lanetan, giza taldearen balioa, obrara atxikitako langileria, obrari atxikitako makineria eta baliabide osagarriak); hauek guztiak, ordea, lizitazio unean egiaztatu behar dira eta ezin dira esleipenean hartu aintzat, une horretan eskaintza baizik ezin baita balioztatatu.
- 2007ko ekitaldian guztira 77.891 mila euroan esleitutako hamaika espedienteren administrazio klausulen pleguek ez dute esleipen irizpideak ezartzeko modua zehazten, horien garapena eta balorazioa esleipeneko txosten teknikoetan zehazten dela. Gure iritzira, pleguek esleipen irizpideei ezarri behar zaizkien balorazioen ahalik eta xehetasun handiena barne hartu behar dute.
- 2007an zehar guztira 77.023 mila euroan esleitutako zortzi espedienteren administrazio klausulen pleguek eskaintza ekonomikoa balio-neurtzeko formula finkatzen dute; formula hau objektiboa eta publikoa izan arren, pleguan bertan aurreikusitako prezio faktorearen ponderazioa murrizten du. Honela, bada, nahiz lizitazioaren baldintzetan aurreikusten den prezio faktoreak lehiaketan % 40 eta % 50 inguruko pisua izan behar duela, egiatan, formulak ezarri ondoren, garestienaren eta merkeenaren puntuaren arteko aldea ehunekoetan 3 eta 11 puntu eskasekoa izan ohi da; honen ondorioz, pisua galtzen du irizpideen guztizko balio-neurketan.
- 2007ko ekitaldian guztira 609 mila euroan esleitutako obra kontratu batean, kontratazio atalak ez du segurtasun eta osasun plana onetsi.
- 2007ko ekitaldian guztira 2.563 mila euroan esleitutako obra espediente batean, kontratazio atalak ez du lanerako plana onetsi.
- 2007an guztira 20.774 mila euroan esleitutako hamabi espedientetan, aurrekontuan aurreikusitako finantzaketa ez zaio exekuzio erritmoari egokitzen.
- 2007an guztira 69.675 mila euroan esleitutako bost obra kontratutan, proiektuaren alde aurreko zuinketa, behin-betiko onetsi aurretik egin da; halaber, 2007ko maiatzean 6.990 mila euroan esleitutako beste obra espediente batean, lanei hasiera ematea 2008ko otsailean lursailak erabilgarri izan arte eten da.
- 2007ko ekitaldian guztira 1.211 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako obra kontratazioko bi espedientetan, egiaztagiria ez dira hilero edo dagozkion hilabetearen hurrengo 10 egunetan jaulkitzen.
- 2007ko ekitaldian guztira 3.577 mila euroan esleitutako 2 obra espedientetan obrak amaitzeko aurreikusitako datatik 4 eta 3 hilabetetako atzerapenak gertatu dira, dagozkion epe luzapenak eskatu ez direlarik.



- Irungo N-1eko Iparraldeko lotunea berrantolatzeko 1 zk.ko proiektu aldatuaren obra kontratuan, 2006ko urtean 8.262 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zena, ez da materialengatiko aurrerakinak itzultzeko plana bete, kontratazio atalak 2007ko ekitaldirako onetsi zuena; plan honek obra ziurtagiri bakoitzean % 15eko dedukzioa aurreikusten zuen, aurrerakinaren emakidatik hamaika hilabete ondoren hainbat kopuru itzuli zirela.
- Batzar Nagusien egoitza berrirako eraikinaren 1. fasearen obra kontratuan, 2005ean 8.819 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zena, obra 2007ko abenduaren 28an hartu zen. Kontratistak aurkeztutako 881 mila euroko azken ziurtagiriak (esleitutako zenbatekoaren % 10a) obra zuzendaritzaren aldeko txostena jaso zuen, baina txosten hau jaulki dugun datan kontratazio atalak onetsi gabe zuen. Honez gainera, 12 hilabeteko atzeraldia gertatu da obrak amaitzeko aurreikusitako datatik aurrera, dagozkion epe luzaketak eskatu ez direlarik.
- Batzar Nagusien egoitza berrirako eraikinaren 2. fasearen obra kontratuan, 2006an 9.586 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zena, obrak 2007ko abenduaren 28an hartu ziren; ordea, txosten hau idatzi dugun datan ez da exekutututako obren azken ziurtagiria egin. Honez gainera, sei hilabeteko atzeraldia gertatu da obrak amaitzeko aurreikusitako datatik aurrera, dagozkion epe luzaketak eskatu ez direlarik.
- Lazkaon gerontologikoa egiteko obraren emakida kontratuan, 2005ean esleitu zena, zerbitzuaren kudeaketari ekin zitzaion, txosten hau mamitu dugun datan Inbertsioa Egiaztatzeko Akta ez jaulki, ez onetsi ez delarik; akta hori administrazio klausulen pleguan dago aurreikusia eta beharrezkoa da zentroaren ustiaketa baimena emateko eta obraren berme epea zenbatzeko.
- Azkenik, bost obratan kontratuan aurreikusitako epearekiko, exekuzio epea nabarmen luzatu dela ikusi da. Exekuzioaren plangintza edo kontrol desegoki honi gehitu behar zaio epea dela GFak obrak esleitzeko erabiltzen dituen irizpideetariko bat; honenbestez, esleipenean gerora izugarri aldatzen den irizpidea erabiltzen ari da.

### **Publizitaterik gabeko negoziatuak (ikus A.15.3 eranskina)**

- Guztira 927 mila euroko zenbatekoarekin aztertutako 31 espedientetan hiru eskaintza eskatu dira eta lehiatzaile bakarra aurkeztu da, lizitazio zenbatekoarekiko beheranzko zenbatekorik aurkeztu ez duela. Espediente hauetatik, 14 Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduaren Sailak izapidetu ditu, guztira 437 mila euroko zenbatekoarekin eta 9 espediente, berriz, Landa Ingurunea Garatzeko Sailak izapidetu ditu, guztira 251 mila euroko zenbatekoarekin.

Lehia printzipioa ezarri ahal izateko eskaintzen eskaera kopurua areagotu egin beharko litzatekeela uste dugu.



- Guztira 74 mila euroko zenbatekoarekin bi laguntza tekniko eta zerbitzu bat kontratatu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, eskaintzak eskatu gabe eta APKLTBren 210 b) artikulua babes hartuta, prozedura hori erabiltzeko bide ematen duten inguruabarrak egiaztatu gabe; honenbestez, eskaintzak eskatuta zegozkion negoziatuak egin behar ziratekeen.

### Bestelako alderdiak

- GFAk 784 mila euroko gastua hartu du bere gain 2006ko abenduan partzialki hartu ziren obrak egiterakoan gauzatutako hainbat akats zuzentzeko, zeinak berme aldiari baitzeuden. 2007ko azaroan Sailak espediente bat abiarazi zuen bidezubien zubi-bularretan azaldutako pitzaduren arrazoiak eta erantzukizunak zehazteko. Espediente horretan obra zuzendaritzako Zerbitzibururu arduradunak 2008ko apirilean egindako txostena dago jaso, akatsak jatorrizko proiektuaren errore baten ondorio direla dioena. Gerora, GFAk ez du inongo jarduerarik gauzatu eta espediente iraungi da. Nolanahi dela ere, GFAk espediente berrabiarazi dezake, izan ere, txosten hau idatzi dugun datan preskripzio epea ez baita amaitu.
- Kontratututako publizitate eta propaganda gastuak, bai GFAk zuzenean, bai bitarteko agentzien bitartez, 821 mila euroko zenbatekoa egiten du prentsa idatzian, 461 mila euro irrati-telebistan eta 627 mila euro bestelako publizitatean.

Indarreko erregulazioa osatu behar litzatekeela uste dugu (2/1994 Foru Araua, GFAn eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan publizitatea hedatzea arautzen duena) publizitatea irrati eta telebistan barne hartuz eta lehiaketak bideratu behar lirateke bitarteko agentziak kontratatuzeko.

### Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua

Administrazio kontratazioko espedienterik gabe kontratatutako gastua aztertu dugularik, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- GFAk ez ditu administrazio kontratazioko derrigorrezko espedienteak prozedura negoziatu bidez izapidetu xede bakarrarekin egindako lanetan, ondotik laburbilduko ditugun gastu bakoitzaren exekuzioari dagokionez: 16 obra guztira 736 mila euroko zenbatekodunak eta 21 laguntza tekniko, guztira 440 mila eurokoak (ikus A.15.4 eranskina).
- 2007ko ekitaldian zehar hainbat ondasun eta zerbitzu erosketa gauzatu dira 3.859 mila euroko zenbatekodunak; horiei dagokienez, GFAk kontratu txikiaren prozedura erabiliz erosteko aukera aztertu behar luke (ikus A.15.5 eranskina).

Ondasun eta zerbitzuen erosketaren urteko gastuak, kontzeptu homogeneouska hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gainditzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar



den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, unitate-prezioka, bai sailka bai zerbitzu nagusika.

### III.4 DIRU-LAGUNTZAK (ikus a.16 Eranskina)

#### Zuzeneko diru-laguntzak

Diputatuen Kontseiluak onetsitako diru-laguntza zuzenen bilakaera azken lau ekitaldietan, eta abenduan emandakoena, honako hau da:

DIPUTATUEN KONTSEILUAK ONETSITAKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK	Mila euro			
	2004	2005	2006	2007
Diru-laguntza zuzenen zenbatekoa guztira.....	8.314	7.833	(*)21.663	41.816
Abenduan onetsitako diru-laguntza zuzenak.....	3.414	4.432	6.549	9.043

(\*) Ez da barne hartu Berroeta Aldamar, SLri emandako 1.563 mila euroko emakida, izan ere, Balenciaga Fundazioari emandako diru-laguntza izendunean subrogatu baita.

Sozietate honekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Diputatuen Kontseiluak emandako diru-laguntza zuzenak % 93 gehitu dira 2007ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko, baina igoera zifra hau osotasunean interpretatu behar da 2006ko ekitaldian aurrekoarekiko izandako % 177ko igoerarekin batera.

Diputatuen Kontseiluak azken bi ekitaldietan emandako diru-laguntza zuzenen zenbateko altuak molde hau salbuespenez soilik erabiltzeko gomendarazten digu, publizitate eta lehia printzipioak sustatzeko ezintasuna justifikatzen den kasu haietan soilik.

- Diputatuen Kontseiluak zuzenean emandako diru-laguntzen exekuzioa % 31koa da. Ildo honetan aipatzekoa da abenduan emandako diru-laguntzen kopuru handia, guztiaren gainean % 22 egiten dutenak; halaber, azpimarratzekoak dira aurreko legegintzaldiko azken bi Diputatuen Kontseiluetan emandako diru-laguntza zuzenak, 6.480 mila euro egiten dutenak eta ekitaldian emandako diru-laguntza zuzen guztien % 15, gehienak ere exekutatzeko daudenak ekitaldi itxieran.

Diputatuen Kontseiluak ekitaldi itxieran zuzeneko diru-laguntzak ematea ez dela eraginkorra uste dugu, izan ere, materialki ezinezkoa baita ekitaldian exekutatzeko eta gainera, ordurako jada onetsia baitago hurrengo ekitaldiaren aurrekontua, zeinetan exekutatu diren diru-laguntza horiek; honi gehitzen badiogu onuradun eta diruz lagundutako xedeak errepikatu egiten direla eta horietako zenbait zuzeneko emakidan sartzea zail dela, diru-laguntza izendun modura jaso litezke Batzar Nagusien aurrean izapidetutako aurrekontuan.

## Diru-laguntza mota ezberdinen akats orokorrak

- Guztira 27.924 mila euroan esleitutako 29 espedientetan, aurrekontuan aurreikusitako finantzaketa ez zaio exekuzio erritmoari egokitzen.
- Diru-laguntzak arautzen dituzten 3 dekretutan, guztira 12.695 mila euroko zenbateko osoarekin emandakoak, diruz lagunduko den proiektuaren gehieneko ehuneko bat finkatzen dute. Honela, bada, emakidan onuradun batetik bestera aldatzen diren ehunekoak ezartzen dira -betiere, dekretuetan ezarritako gehienekoari eutsiz-, espedientean alde horien zergatia justifikatzen ez delarik.

Gure ustez, Dekretu Arautzaileetan diruz laguntzeko gehienezko portzentajeak ezartzeak, diru laguntzako portzentaje desberdinak zein kasutan aplika daitezkeen ezarri gabe, diru laguntzak behar ez bezala emateko arriskua dauka. Objektibotasuna bermatu ahal izateko, gure ustez, oinarrietan ezarritako irizpideak nola erabili diren arrazoitu beharko litzateke emandako diru-laguntzetan.

- Guztira 23.791 mila euroko zenbatekoarekin emandako 52 diru-laguntzetan ez dira Diru-laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitako onuradun izaera eskuratzeko betekizunak eskatu, GFAk Gizarte Segurantzaren aurrean zerga obligazioak bete direla soilik egiaztatuz.
  - Guztira 11.562 mila euroan emandako 23 diru-laguntzetan, onuradunei ez zaie betebeharrak fiskal eta sozialetan eguneratuak egoteko eskatu.
  - 420 mila euroan emandako diru-laguntzen bi espedientetan, deialdi publikorik bideratu gabe, xedea laguntza teknikoa ematea da, kontratazioaren araudiak agintzen duenaren arabera izapidetu behar zatekeena (APKLTB).
  - Lehiaketara meneratutako diru-laguntzen emakidak sail guztiek argitaratzen dituzte, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak izan ezik. Argitaratutako diru-laguntzen emakidek Garapen Iraunkorreko Departamentuak eta Lurraldearen Antolamendurako Departamentuak toki entitateentzat proposatutakoei soilik egiten diete erreferentzia.
- Aztertu ditugun diru-laguntzetatik, guztira 26.263 mila euroko zenbatekoarekin emandako 62 diru-laguntza ez dira Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitaratu.
- 15.028 mila euroan emandako 20 diru-laguntzetan ez dira izenpetutako hitzarmenen jarraipen batzorde mistoek egindako bileren aktak jasotzen.
  - Emandako diru-laguntzen kontura aurrerakinak emateari dagokionez, honako akats hauek azaleratu dira:
    - 16.101 mila euroko zenbatekoarekin eman diren 45 diru-laguntzetan ordainketa aurreratuak egin dira bermeak osatzeko batere eskatu gabe.



- Guztira 10.902 mila euroko diru-laguntzen emakida arautu duten zortzi dekretu arautzailek aurrerakinak emateko aukera aurreikusten dute (% 50 eta % 80 bitartean), laguntzen onuradunek aurkeztu behar dituzten bermeen zenbatekoa eta moldea batere zehaztu gabe.
- Hona hemen diru-laguntzen norakoa justifikatzeari dagokionez azaldu diren akatsak:
  - Beste erakunde batzuekin elkar-finantzatuak dauden diruz lagundutako proiektuetan, GFAk ez du gastua justifikatzeari dagokionez, jasotako finantzaketa egiaztatzeko eskatzen. 2007ko ekitaldian guztira 13.594 mila euroan emandako 16 diru-laguntzatan azalatu zaigu egoera hau.
  - Guztira 16.013 mila euroko zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen 30 espedientetan ez da eskatu, dagokien kasuetan, diru-laguntzaren onuradunak hiru eskaintza eskatzeko betekizuna, diruz lagungarri den gastuak 30 mila euroko zenbatekoa gainditzen duenean obra exekutatzeari kostuaren kasuan edo 12 mila eurokoa ekipoko ondasunen hornidura edo aholkularitza edo laguntza teknikoak emateko enpresek zerbitzua ematen duten kasuan.
  - Guztira 1.115 mila euroko zenbatekoarekin emandako diru-laguntza izendun eta zuzenen 6 espedientetan, onuradunek gastuen zerrenda bat soilik aurkeztu dute eta ez ordainagiri edo baliokiderik. Honez gainera, kirol sozietate anonimo bati emandako diru-laguntza, 820 mila euroko zenbatekoduna, Lurralde Historikoko kirol taldeei egindako ordainketa bitartez justifikatzen da, hitzarmenak agintzen duen moduan; eta kultur elkarte bati emandako 453 mila euroko diru-laguntzan, berriz, 295 mila euroko zenbatekoa justifikatzen da banku laburpenen bitartez.
  - Enpresa publiko batek ez du 32 mila euroko emandako diru-laguntzaren norakoa justifikatu eta 35 mila euroko zenbatekoarekin diruz lagundutako pertsona fisiko batek ez ditu 19 mila euro justifikatu.
  - Guztira 2.103 mila euroko zenbatekoarekin emandako diru-laguntza izendun eta zuzenen 4 espedientetan, aurkeztutako gastuen egiaztapenak diru-laguntzaren onuradunaz bestelako erakunde baten izenean daude, nahiz kontzeptua diru-laguntzaren norakoarekin bat datorren.
  - Guztira 350 mila euroko zenbatekoarekin emandako 4 diru-laguntza izendun eta zuzenetan, irabazi asmorik gabeko elkarten jardura finantzatzen da, justifikagiri modura irabaziak erakusten dituzten urteko kontuak aurkeztuz; honenbestez, datozen ekitaldietan zuzendu beharko da.
  - 2007ko ekitaldian guztira 2.497 mila euroko zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen 3 espedientetan balio erantsiaren gaineko zerga ari dela diruz laguntzen ikusi da; ordea, zenbateko hori diru-laguntzaren onuradunen aitortzetan fiskalki kengarria da. Inbertsioak amaitu ez direnez gero, diruz lagundutako kopurua erregularizatu behar da.



## Aztertutako diru-laguntzen berariazko akatsak

### Zuzenak

- Emandako eta ordaintzeko dauden diru-laguntzetan, udal bati musika talde batek jotzeko emandako 150 mila eurokoan eta fundazio bati oroit-ekitaldi bat egiteko emandako 48 mila eurokoan, ez da diru-laguntzaren norakoa justifikatu, ez 2007ko ekitaldian, ez 2008ko lehenengo seihilekoan, eta honenbestez, GFak justifikatzeko eskatu edo baliogabetu egin beharko luke.
- GFaren eskumeneko diren autobus lineen emakiden jabeei gaueko zerbitzuak finantzatzeko emandako diru-laguntzan, 428 mila euro egin dituenak, laguntzen ordainketa gauzatutako zerbitzuen arabera izango dela ezartzen da, aurretik horiek egiaztatuta. Espedientean idatzi bat baizik ez da ageri, behin epea igarota dela ordaindu egin behar dela dioena, gauzatutako egiaztatagiriaren ebidentzia txertatu behar delarik.
- Elkarte bati 120 mila euroko zenbatekoarekin obrak finantzatzeko emandako diru-laguntzan, % 100 obra amaitu baino lehenago ordaindu zitzaion; ordea, emakidaren akordioak dio azken % 50a ordaintzeko diruz lagundutako proiektuaren sarrera eta gastuen likidazioa barne hartuko dela. Bestetik, % 100eko ordainketaren unean diruz lagundutako aurrekontuaren % 67 baizik ez zen egiaztatuta.
- Nekazal elkarte batek diruz lagundu beharreko gastu modura pertsona fisiko bati hileroko ordainketak aurkezten ditu, ordezkaritza eta laguntza tekniko kontzeptuan, urteko 24 mila euroko zenbatekoarekin, gastu horren fakturazioa justifikatu gabe eta hartu agiriaren egiaztatgiriak soilik aurkeztuz.

### Txartel bakarria ezartzea

- 2007ko maiatzaren 15ean Diputatuen Kontseiluak zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen aldaketa onetsi zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko den errepide bidezko bidaiaren garraio publikoko linea erregularren kontzesionario diren enpresekin hitzartuak zituenak, autobus bidez Gipuzkoako herri arteko garraio publikoa, "Txartel Bakarria", ezarri asmoz. Iritziaren atalean adierazitako alderdi horiez gain, hona hemen azpimarratzeko diren beste zenbait:
  - Ez dira aldean eskubide zein obligazioak arautuko dituzten kontratuak gauzatu, ezta denbora esparrua ere, nahiz garraio kontzesioen iraungipena 2012 urtean den.
  - Enpresa kontzesionarioei bermatzen zaie, zerbitzu eskaintza bera emanik, txartelengatiko diru-sarrerak ez direla, inola ere, 11 enpresa kontzesionarioentzat banaka zehazten diren kopuru jakin batzuk baino txikiagoak izango eta osotara 24.540 mila euro egiten dituztenak. 2008 eta ondoko ekitaldietarako kopuru hauen eguneraketa Eusko Jaurlaritzak onesten duen tarifen eguneraketa orokorra ezarrita egingo da eta, nolana dela ere, inoiz ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumorako Prezioen Indize Orokorraren bariozioa baino txikiagoa izango. Honenbestez, zerbitzua eragin lezaketen elementu aldakorrek ez dira txertatzen.



- Bidaiari kopurua handituz gero, saria ematea aurreikusi da eta honek oreka ekonomikoa lortzeaz bestelako ondorioa dakar, izan ere, GFak ordainduko baitu eta gainera, txartelekin ziurtatutako diru-sarreretara iristeko ordaindu beharreko zenbatekoa handituko baitu.
- 2007ko ekitaldian 1.000 mila euro aurreratu zitzairen uztailetik aurrera enpresa kontzesionario guztiei, jada zerbitzua abian zen kontrolatu gabe. Izatez, horietako batek ez du 2008ko ekitaldira arte abian jarriko eta honenbestez, aurreratutako zenbatekoa itzuli beharko du. 2008an egindako 2007ko ekitaldiko likidazioa aldeko izan zen GFarentzat 456 mila euroan; honenbestez, 2007ko ekitaldiko gastua 544 mila eurokoa litzateke.

### Deialdi publiko bidez emandakoak

- Lehen sektorearekin lotutako lehiaketetarako laguntzak arautzen dituen foru agindua, 122 mila euroko laguntzak eman dituen, ez ditu eskabideak balio-neurtzeko irizpideak ezartzen.
- Gipuzkoako kultur ondarea zaharberritu eta sendotzeko emandako laguntzetan (27/04 FD), 3.600 mila euroko zenbatekoa egin dutenak, ez dira oinarri-arauetan ezarritako hainbat eskakizun bete: lanak hasi direla jakinaraztea, lanen oroi-idatzi xehakatuak, dokumentazio grafiko zein ikus-entzutezkoa, sarrera eta gastuen azken balantzea.
- Ekintzaziletza sustatzeko bi ataletan emandako laguntzetan (58/04 FD), 1.017 mila eurokoetan, eskabideak baloratzeko txostenek oinarri-arauetan aurreikusitako balorazio irizpideak azpi-irizpideetan garatzen dituzte; komenigarria da dekretuak ahalik eta gehien garatzea irizpideak, gardentasuna bermatzearen.
- 2.447 mila euroko diru-laguntzak ematen dituzten aipatutako dekretuaren beste atal batean, ez dira eskabideak baloratzen eta jaso ahala ematen dira laguntzak aurrekontua agortu arte, inori uko egiten ez zaiola.
- Gipuzkoako mendiak mantendu, hobetu eta garatzera zuzendutako laguntzak (80/00 FD), 1.326 mila euroko zenbatekoarekin eman dira gastua justifikatu ondoren, proiektua abian jarri aurretik ematea aurreikusia dagoenean.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa garatzeko sentsibilizazio eta/edo heziketa proiektuetarako eta larrialdiko laguntzetarako emandako laguntzetan (7/06 FD), hurrenez hurren, 496 eta 319 mila eurokoak, ez da diru-laguntzen norakoa justifikatzeko epea ezartzen, nahiz eta laguntzen % 100era arte aurreratzen den. Txosten hau egin dugun datan ez da norakoa justifikatu, lehenagoko deialdien justifikazioa atzerapen handiz egin delarik.
- Gizarte zerbitzuen gaitan inbertsioetarako emandako laguntzek aurrekontuko bi ekitaldi besarkatzen dituzte, inbertsioa bi ekitaldi baino gehiago luzatzen delarik; honek helburu berarekin diru-laguntza berriak eskatzera behartzen du eta horregatik, komenigarria litzateke diru-laguntzaren ebazpenak inbertsioaldi osoa barne hartzea. Honez gainera, artatu diren eskabideak zenbaitetan epez kanpo aurkeztu dira.





## Gizarte zerbitzuen hitzarmenak

GFAk egoitza eta eguneko zentroen laguntza zerbitzuen hainbat prestazio finantzatzen ditu, irabazi asmorik gabeko erakunde, toki entitate eta enpresa pribatuekin sinatutako hitzarmenen bidez, ondotik zehaztutako arauketa babes harturik:

- 70/93 Foru Dekretua, gizarte zerbitzuen alorrean erakunde publiko zein pribatuekin itunpeko jarduera gauzatzeko prozedura ezartzen duena.
- 5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituen; honenbestez, laguntza zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek dagokion homologazioa eskuratu behar dute.
- 4/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen sistema antolatzen duena.

Emandako zerbitzuei ezarri beharreko tarifak, urtero gaurkotzen dira Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez.

Ondotik, 2007ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko kontzeptu nagusien gastuak izan duen bilakaera erakutsiko dugu, eguneko zentroak eta egoitzak kontzeptuetan, hain zuzen ere.

GIZARTE ZERBITZUEN HITZARMENAK	Mila euro					
	EGUNEKO ZENTROAK		EGOITZETXEAK		GUZTIRA	
ZERBITZUA EMATEN DUTEN ENTITATEAK	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Toki Entitateak.....	2.967	3.643	6.466	7.239	9.433	10.882
Enpresa pribatuak.....	1.823	2.826	8.157	9.995	9.980	12.821
Irabazi asmorik gabeko erakundeak.....	2.708	3.049	26.410	30.089	29.118	33.138
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.498</b>	<b>9.518</b>	<b>41.033</b>	<b>47.323</b>	<b>48.531</b>	<b>56.841</b>

Gastu horren igoera globala % 17 ingurukoa da, itunpeko zerbitzuetan emandako ordu kopurua handiagoa izateaz gain, soldata igoeraren ondorio ere badena. Ildo honi jarraiki, Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekitaldian guztira 5.605 mila euroko tarifa igoerak onetsi ditu, KPIren % 2,6ko igoeraren kontzeptuan eta zerbitzu hori ematen duten erakundeetako langileen hitzarmen bidezko % 7ko igoera kontzeptuan; azken igoera hau GFAk bere gain hartu du osotasunean, onuradunari eragin beharko liokeen ondorioa barne hartuta.

Azkenik, ezintasuna duten pertsonen egoitza eta eguneko zentroetan zerbitzuak emateko irabazi asmorik gabeko erakundeekin izenpetutako hitzarmenei dagokienez, emandako kopurua % 2,6 igo da KPI kontzeptuan, gehi 3,62 euro/eguneko egoitza zerbitzuko plazei dagokienez eta 2,09 euro/eguneko, eguneko zentroetako plazei dagokienez, onesten diren tarifa berrietan lehenago barne hartuak ez zeuden amortizazio, zentroen konponketa eta zaintza kontzeptuei dagokien gastua jasotzeko helburuarekin. Aldaketa honek gastua % 15 inguru gehitzea dakar.



Erakunde ezberdinekin izenpetutako hitzarmenek KPIren bariazioaren ondorioz tarifak berrikustea barne hartzen dute. Bestelako zeinahi aldaketa tarifen berrikusketa alde batera izapidetu behar litzatekeela uste dugu.

### III.5 LANGILERIA

Atal honetan ondoko alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- GFak 2007ko urtean sei langileri guztira 352 mila euroan eman dituen erretiro-sariak GFaren Pertsonalari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera eman dira eta, Euskal Funtzio Publikoaren Legean hala aurreikusita badago ere, ez daude giza baliabideak arrazionalizatzeko inongo programatan babestuak. GFaren Giza Baliabideei buruzko Plan Estrategikoa Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 1998ko urtarrilaren 7an, indarrean egongo zena 1999ko abenduaren 31ra arte, urtero adierazi gabeko luzapenak egitea aurreikusiz. Pertsonaleko Erregelamenduan aurreikusitako erretiro-primak Plan Estrategikoan aurreikusita daudenak baino txikiagoak dira.
- GFak 2007an, apiriletik uztaile bitartean zerga aitortzen egiteko erdi mailako 102 teknikari kontratatu ditu eta horietako 24 berriz kontratatu ditu irailtik abendura, iruzurraren aurkako kanpainarako. Langile horiek urtero, programa bakoitzeko, bitarteko funtzionario gisa kontratatzen dira. Lanpostu horiek ez dira agertzen Lanpostuen Zerrendan.

Azken ekitaldietan GFA egiten ari den kontratazioak egitura mailako beharreatatik ote diren aztertu beharko litzateke, eta horren arabera, Lanpostuen Zerrendan sartu beharko liratekeen ikusi.

- GFaren aurrekontuzko plantillak ez ditu behin-behineko langileriarentzat gordetako lanpostuen banakako ordainsariak zati-banatzeko, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 21. artikuluan agintzen den moduan.
- Suhiltzaileen jai egun eta gaueko lanaren plusak nominan kontzeptu finko modura ordaintzen dira, lan baldintzen Erabakia izenpetzearekin egindako kalkulua abiaburu hartuta. Kontzeptu aldakorra dela aintzat hartuta, egiaz egindako lanaren arabera ordaindu behar litzateke.

### III.6 ONDAREA

- GFak inprimategiko makineria 22 mila euroan saldu du, inongo atalek salmenta onetsi izanaren egiaztagiririk inon ere ez dagoela.
- Diputatuen Kontseiluak ez du inbentario orokorra onetsi, Ondareari buruzko 8/1996 Faren 29. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.



### **III.7 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA (ikus A.17 Eranskina)**

Erakunde autonomo honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Hornitzaile batekin programa konbinatu eta aseguru zerbitzuak kontratatu dira, 29 eta 20 mila euroko zenbatekoarekin, hurrenez hurren, horientzat prozedura negoziatua gauzatu behar zatekeelarik.
- Ekitaldian zehar zaharberritzeko hainbat lan exekutatu dira hornitzaile batekin guztira 83 mila euroko zenbatekoarekin, elikagai hornidura hamalau hornitzailearekin guztira 299 mila euroko zenbatekoarekin, material teknikoen hornidura hiru hornitzailearekin 49 mila euroan eta suteak itzaltzeko materialaren hornidura hornitzaile batekin 25 mila euroan; horiek guztiak aleko prezioetan edo sortetan kontratazio espediente bidez kontratatuak izan zitezkeenak.
- GFaren hornitzaileekin 44 mila euroko gastuak kontratatu dira, Uliazpi Erakunde Autonomoaren eta GFaren artean kontratazio zentralizatuko sistemetarako atxikimendurik izan gabe, APKLTBren xedapen gehigarri hamargarrenak agintzen duen moduan.
- 2007an 1.929 mila euroan esleitutako espediente baten administrazio klausulen pleguek, esleipen irizpide modura kontratarien kaudimenari buruzko alderdiak barne hartzen dituzte (antzeko lanetan eskarmentua eta obrarako bereizitako giza edo gauzazko baliabideak), lizitazioan egiaztatu behar direnak eta ezin direnak esleipenean aintzat hartu, atal horretan eskaintza soilik baloratu behar delarik.

### **III.8 IZFE, SA SOZIJETATE PUBLIKOA**

Sozietate publiko honi dagokionez ondoko alderdi hau azpimarratu behar dugu:

- 2007ko ekitaldian guztira 1.358 mila euroan esleitutako hamar espedientetan, esleipen irizpide modura kontratarien kaudimenari buruzko alderdiak barne hartzen dituzte (antzeko lanetan eskarmentua, giza taldearen, baliabideen eta antolamenduaren balioa), lizitazio unean egiaztatu behar direnak eta ezin direnak esleipenean hartu aintzat, une horretan eskaintza baizik ezin baita balioztatatu.

### **III.9 BIDEGI, SA SOZIJETATE PUBLIKOA (ikus A.19 Eranskina)**

Sozietate honekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Guztira 212.158 mila euroan esleituta zazpi espedientetan, esleipen irizpide modura kontratisten kaudimen edo eskarmentuari buruzko alderdiak erabili dira, lehiaketan soilik balioztatatu daitezkeenak. Espediente hauetan beretan, administrazio klausulen pleguek eskaintza ekonomikoa balio-neurtzeko formula finkatzen dute; formula hau objektiboa eta publikoa izan arren, pleguan bertan aurreikusitako prezio faktorearen neurketari kontrajartzen zaio eta ez da dagozkion eskaintzak irekitzeko ekintza jasotzen duen akta egiten.



- 2007ko urtean gauzatutako aldaketen bost kontratuen sinadura, 191.841 mila euroan esleitutako obra espediente bati dagozkionak eta 14.765 mila euroko igoera eragin dutenak, aldaketa proiektuak onetsi zirenetik bost hilabete baino gehiagoko atzerapenez egiten da.
- Garbiketa zerbitzuen kontratazioa, 25 mila eurokoa, zuzenean egin da, eskaintzak eskatuz dagokion prozedura negoziatua bideratu gabe.
- A-8 Oiartzun-Irungo Bentak autobidea sei erreiletara zabaltzeko eraikuntza proiektuko obren espedientean, 16.817 mila euroko exekuzioa izan duena, ez dago erasota obra formalki hartu denik, pleguetan aurreikusia dagoen moduan, nahiz jada erabilera publikoa eman zaion.
- Zuzendari nagusia eta honen aholkulari bat 2005eko urtean goi zuzendaritzako moldepean kontratatu zituzten; kontratua eten izanaren ondorioz, 2007ko ekitaldian, hurrenez hurren, 18 eta 14 mila euroko kalteordainak jaso dituzte. Kontratuan jasotako kalteordain klausularen arabera, lan egindako urte bakoitzeko hilabete ordaintzen da. GFAn karguen lanuzterako aurreikusitakoak hilabetekoak izan ohi dira eta, hurrenez hurren, 12 eta 8 mila euroko ordainketa txikiagoa ekarriko zuketena.

### **III.10 ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, SA SOZietate PUBLIKOA**

Sozietate honekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2006ko martxoaren 27an Etorlur, SAk salerosketa kontratu bat izenpetu zuen enpresa pribatu batekin; horren arabera, 18.577 metro karratuko lursaila erosi zuen 28.567 mila euroko prezioan; eragiketa hori ondoko moduan finantzatzekoa zen: 5.267 mila euroko balioa zuen 31.500 metro karratuko lursaila emanaz, une hartan Etorlur, SAren jabetzako ez zena; 11.600 mila euroko hainbat inbertsio eginez Etorlur, SAk; enpresak erositako makineria eta instalakuntza hornigaiari 5.850 mila euroko ordainketa bidez; eta beste 5.850 mila euro, Etorlur, SAk erositako lursaila enpresak alde egiten duen unean. Eragiketa honek 2007ko ekitaldian izan duen bilakaerari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:
  - Sozietateak 2007ko ekitaldirako duen aurrekontuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu eta Finantza Araubidearen 4/2007 Foru Arauaren 63. artikuluari jarraiki, indarreko ekitaldirako eta ondo-ondoko hiru ekitaldietarako finantza egoera aurreikusgarriak besarkatzen ditu. Horiek aztertze eta oroitidazki argigarritik ez daiteke berariazko finantzaketa dagoela ondorioztatu aipatutako eragiketari dagokionez. Bestalde, eragiketa hau 2012 ekitaldira arte luzatuko da eta honenbestez, gaitu gabe ditu finantzaketarako beharrezko diren kreditu guztiak.

Gure iritzira, kontratuaren zenbatekoa aintzat hartuta eta Administrazio Kontseiluak berak horri aurre egiteko finantzaketa beharra egiaztatu duela ikusita, GFAn dagozkion urteanitzeko kredituak edo zorpetze baimena kontsignatu behar ziratekeen.



- 2007ko ekitaldian zehar GFAk 2006an izenpetutako kontratua gauzatzeko ematekotan geratu zen orubeko hainbat lursail erosi ditu. Ordaindutako prezioa Hernaniko Udalarekin izenpetutako hitzarmenean ezarritako bera da, 118 euro metro karratuko, erositako 4.000 metro karratuko lursail bat salbuetsita, metro karratuko 150 euro ordaindu baititu, erosketa prezioa justifikatuko duen txosten teknikorik ez dagoela.

Ondasun higiezinaren gaineko zeinahi balorazio hori justifikatuko duen txosten tekniko bidez euskarritu behar dela uste dugu.

- Guztira 4.430 mila euroan esleitu diren kontratazioko bi espedienteetan, esleipen irizpide modura kontratisten kaudimen edo eskarmentuari buruzko alderdiak erabili dira, lehiaketan soilik balioztatu daitezkeenak (ikus A.20 Eranskina).
- 2007ko ekitaldian zehar Administrazio Kontseiluak eraikitako edo eraikitzen ari diren etxebizitzetarako eta Sozietateak salgai dituen bulegoetarako irispidea izateko baldintzen pleguak onetsi ditu. Aipatutako pleguetan sarbidea izateko baldintzak eta zehaztutako prezioa ez daude justifikatuko dituen txosten tekniko bidez euskarrituak.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorritzen diren finantza magnitude nagusiak honako hauek dira:

	Mila euro				Aldaketa
	2004	2005	2006	2007	2007/2006
<b>Sarrera arruntak</b>	<b>3.304.097</b>	<b>3.669.926</b>	<b>4.035.628</b>	<b>4.451.303</b>	<b>% 10,3</b>
Itunpeko zergak .....	3.253.819	3.612.957	3.977.652	4.367.558	
Itundu gabeko zergak .....	14.464	13.994	23.118	22.668	
Transferentzia arruntak.....	31.302	37.296	25.932	50.120	
Ondare sarrerak .....	4.512	5.679	8.926	10.957	
<b>Erakunde konpromisoak</b>	<b>2.734.713</b>	<b>3.040.866</b>	<b>3.353.751</b>	<b>3.712.399</b>	<b>% 10,7</b>
Estatuari kupoa .....	373.709	396.702	451.070	508.126	
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	2.041.952	2.293.204	2.520.486	2.774.234	
Udalei ekarpenak .....	314.116	345.626	376.748	424.109	
Batzar Nagusiak .....	4.936	5.334	5.447	5.930	
<b>Sarrera arrunt garbiak</b>	<b>569.384</b>	<b>629.060</b>	<b>681.877</b>	<b>738.904</b>	<b>% 8,4</b>
<b>Gastu arruntak</b>	<b>(306.041)</b>	<b>(337.534)</b>	<b>(367.971)</b>	<b>(383.467)</b>	<b>% 4,2</b>
Langile gastuak .....	(79.950)	(82.954)	(88.192)	(91.149)	
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak .....	(60.118)	(68.620)	(80.858)	(87.176)	
Finantza gastuak .....	(8.991)	(7.776)	(6.703)	(1.407)	
Transferentzia arruntak.....	(156.982)	(178.184)	(192.218)	(203.735)	
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)</b>	<b>263.343</b>	<b>291.526</b>	<b>313.906</b>	<b>355.437</b>	<b>% 13,2</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETAK (2)</b>	<b>(248.365)</b>	<b>(213.243)</b>	<b>(280.375)</b>	<b>(307.085)</b>	<b>% 9,5</b>
Inbertsio errealeen besterentzea .....	1.932	2.724	1.464	2.333	
Kapital transferentzietatik eragindako sarrerak .....	45.632	51.849	47.118	35.762	
Inbertsio errealetan gastua .....	(242.484)	(205.505)	(252.681)	(253.341)	
Kapital transferentzietatik eragindako sarrerak .....	(53.445)	(62.311)	(76.276)	(91.839)	
<b>FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(80.811)</b>	<b>(5.966)</b>	<b>(50.803)</b>	<b>6.716</b>	
Finantza aktiboen aldaketa garbia.....	(4.067)	(1.343)	(2.528)	11.339	
Finantza pasiboen aldaketa garbia .....	(76.744)	(4.623)	(48.275)	(4.623)	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>(65.833)</b>	<b>72.317</b>	<b>(17.272)</b>	<b>55.068</b>	
Aurreko ekitaldietako emaitza (4)	(11)	(214)	(5)	(69)	
<b>URTEALDIAREN AURREKONTU SALDOA (1+2+3+4)</b>	<b>(65.844)</b>	<b>72.103</b>	<b>(17.277)</b>	<b>54.999</b>	



## EMAITZA ARRUNTA

- Emaidza arrunta 2007ko ekitaldian % 13,2 gehitu da, sarrera arrunt propioek % 8,4 gora egin izanaren ondorioz; gastu arruntek, berriz, % 4,2ko igoera izan dute, batik bat finantza gastuak murriztu izanaren ondorioz.
- Itunpeko zergen araberako diru-bilketa (aitortutako eskubideak) % 9,8 igo da eta erakunde-konpromisoak, berriz, % 10,7; azken datu honetan gogoan izan behar da GFak elkartasun fondotik 70.363 mila euroko sarrerak jaso dituela.

Ondoren, azken lau ekitaldietan erakunde konpromisoek eta itunpeko zergen dirubilketak izan duten bilakaeraren analisia egingo dugu, GFaren finantzaketa iturri nagusi dena (sarrera arrunten % 98,3):

	Mila euro			
	2004	2005	2006	2007
<b>DIRUBILKETA</b>	<b>3.253.819</b>	<b>3.612.957</b>	<b>3.977.652</b>	<b>4.367.558</b>
Estatuari kupoa.....	371.539	396.702	451.070	508.126
<i>Dirubilketaren g/%</i>	<i>% 11,4</i>	<i>% 11,0</i>	<i>% 11,3</i>	<i>% 11,6</i>
Eusko Jaurlaritzari ekarpena .....	2.041.952	2.293.204	2.520.486	2.774.234
<i>Dirubilketaren g/%</i>	<i>% 62,8</i>	<i>% 63,5</i>	<i>% 63,4</i>	<i>% 63,5</i>
Udalen partaidetza tributuetan .....	314.116	345.626	376.748	424.109
<i>Dirubilketaren g/%</i>	<i>% 9,7</i>	<i>% 9,6</i>	<i>% 9,5</i>	<i>% 9,7</i>
<b>ERAKUNDE KONPROMISOAK</b>	<b>2.727.607</b>	<b>3.035.532</b>	<b>3.348.304</b>	<b>3.706.469</b>
<i>Dirubilketaren g/%</i>	<i>% 83,9</i>	<i>% 84,1</i>	<i>% 84,2</i>	<i>% 84,8</i>

- Gastu arruntaren atalean azpimarratzekoa da ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa gastuek izan duten % 7,8ko igoera.

## KAPITALEZKO ERAGIKETAK

2007ko urtean exekutututako inbertsio garbiko eragiketak % 9,5 gehitu dira aurreko ekitaldiarekiko, ekitaldiko eragiketa arrunten emaitzarekin finantzatu direlarik.

## IV.1 BESTELAKO FINANTZA MAGNITUDEAK

	Mila euro			
	2004	2005	2006	2007
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA (*)</b>	<b>87.908</b>	<b>156.073</b>	<b>123.218</b>	<b>198.779</b>
Diruzaintza eta finantza inbertsioak .....	50.460	227.331	9.192	190.922
Aurrekontuko zordunak .....	12.693	11.490	20.706	13.796
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	189.032	105.387	250.968	149.887
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(137.624)	(161.463)	(113.488)	(119.871)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(35.179)	(31.260)	(53.707)	(45.564)
Zerga zordunak, hornikuntzetatik garbi.....	8.526	6.250	9.585	9.647
Aurrekontu sarrerak itzultzeagatik hartzekodunak.....	-	(1.662)	(38)	(38)
<b>ZORPETZEA: ERABILITAKO MAILEGUAK</b>	<b>117.891</b>	<b>113.268</b>	<b>44.493</b>	<b>60.370</b>
Aurrekontu zorra epe laburrera.....	4.622	94.775	4.623	6.948
Aurrekontu zorra epe luzera .....	113.269	18.493	39.870	53.422
<b>ERABILI GABEKO MAILEGUAK</b>	<b>204.950</b>	<b>204.950</b>	<b>225.450</b>	<b>204.950</b>

(\*) Diruzaintza Geldikina ez dator bat GFAk Kontu Orokorretan aurkeztutakoarekin, ez baititugu aintzat hartu erabili gabeko maileguen saldoak, GFAk barne hartzen dituenak. Bestetik, GFAk aurrekontuan erregistratu ez dituen kaudimengabeziatarako zuzkiduretatik garbi dauden zerga zordunak barne hartu ditugu.

### DIRUZAINZA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

2008ko maiatzaren 13an Diputatuen Kontseiluak oniritzi du 2008ko aurrekontuari 2007ko kreditu geldikinak txertatzea, guztira 259.783 mila euroko zenbatekoarekin; horiek nagusiki Diruzaintza Geldikinarekin finantzatzen dira, 191.299 mila euroko zenbatekoan eta gauzatzeko dagoen baimendutako zorrarekin, 41.265 mila euroko zenbatekoan.

Azken ekitaldietan zorpetzearen bilakaera, erabilitako maileguak, oso ona izan da. Honela, bada, "zorpetze/emaitza arrunta" ratioa 2004ko urtean % 44,8 izatetik 2007ko urtean % 16,9 izatera aldatu da.

Diruzaintza Geldikin handia eta zorpetze txikia, batik bat, egiazko inbertsioen exekuzio txikiak -% 58,1- eta kapital transferentzienak -% 48,9- eragin dute.

### AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorrak 5. artikuluan xedatzen du "Lege honen ezarpen eremuan dauden subjektuen Aurrekontuek eta horien likidazioek informazio behar adinako eta egokia jaso beharko dutela aurrekontu egonkortasunaren printzipioari egokitzen zaiela egiaztatu ahal izateko; baita, aurrekontu egonkortasunaren helburua bete eta kontabilitate nazionalari buruzko gaitan arau komunitarioek ezarritako obligazioak bete ahal izateko ere". Berebat, 1463/2007 Errege Dekretuaren 16.2 artikulua agintzen du Artekaritzak entitatearen beraren eta meneko dituen erakunde eta entitateen egonkortasun helburua betetzeari buruzko txostena egingo duela. Txosten hau ez da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007ko ekitaldiko Kontu Orokorri dagokionez gauzatu.





## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

#### A. 2007-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Mila euro

SARRERAK	Eranskina	Aurrekontua			Eskubide		Kobratu gabe
		Hasierakoa	Aldaketak	Behin-betikoa	kitatuak	Kobrantzak	
1.-Zerga zuzenak.....	A7	1.878.772	106.392	1.985.164	2.041.773	2.041.773	-
2.- Zeharkako zergak.....	A7	2.152.977	138.675	2.291.652	2.288.435	2.288.435	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak ....	A7	43.032	2.113	45.145	60.018	59.482	536
4.- Transferentzia arruntak.....	A9	105.794	14.397	120.191	124.695	117.655	7.040
5.- Ondare sarrerak .....	A13	3.900	-	3.900	10.957	10.340	617
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A6	83	-	83	2.333	2.333	-
7.- Kapitalezko transferentziak.....	A9	39.065	17.848	56.913	35.762	30.853	4.909
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	A10	88.641	175.542	264.183	19.457	19.063	394
9.- Finantza pasiboen aldak. ....	A11	25.654	53.203	78.857	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>4.337.918</b>	<b>508.170</b>	<b>4.846.088</b>	<b>4.583.430</b>	<b>4.569.934</b>	<b>13.496</b>

A2

A8

GASTUAK	Eranskina	Aurrekontua			Zorpetutako		Ordaindu gabe
		Hasierakoa	Aldaketak	Behin-betikoa	obligazioak	Ordaink.	
1.-Langile gastuak .....	A3	93.255	28	93.283	91.149	91.142	7
2.- Ondasun arr.-zerb. erosk. ....	A4	82.858	14.927	97.785	87.176	75.236	11.940
3.- Finantza gastuak .....	A11	11.000	(4.008)	6.992	1.407	1.236	171
4.- Transferentzia arruntak.....	A5	3.741.559	267.852	4.009.411	3.990.709	3.939.805	50.904
6.-Egiazko inbertsioak .....	A6	289.907	146.403	436.310	253.341	211.423	41.918
7.- Kapitalezko transferentziak.....	A5	106.008	81.703	187.711	91.839	77.233	14.606
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	A10	8.708	1.265	9.973	8.118	7.818	300
9.- Finantza pasiboen aldak. ....	A11	4.623	-	4.623	4.623	4.623	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>4.337.918</b>	<b>508.170</b>	<b>4.846.088</b>	<b>4.528.362</b>	<b>4.408.516</b>	<b>119.846</b>

A2

A8

#### B. AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	Eransk.	Hasierako	Baliog.	Kobran./	Azken
		zorra		Ordaink.	zorra
Zordunak .....	A8	20.706	(78)	20.328	300
Hartzekodunak.....	A8	(113.488)	9	113.454	(25)
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>			<b>(69)</b>		



### C. KONPROMISO KREDITUEN EGOERA

Mila euro

Kapitulua	Eranskina	Hasierako kredituak	Aldak.	Itxierako kredituak	Baimenduak	Hitzartutakoak
2.- Ondasun arrunt eta zerb. erosketa .....	A4	16.398	1.433	17.831	3.933	3.796
4.- Transferentzia arruntak.....	A5	6.439	(1.175)	5.264	5.264	5.086
6.- Inbertsio errealak.....	A6	321.000	31.640	352.640	140.883	85.483
7.- Kapitalezko transferentziak.....	A5	20.212	11.624	31.836	22.684	18.726
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	A10	13.250	-	13.250	-	-
<b>GEROKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>377.299</b>	<b>43.522</b>	<b>420.821</b>	<b>172.764</b>	<b>113.091</b>
					2008 urtea .....	82.401
					2009 urtea .....	25.755
					2010 urtea eta hurr. ....	4.935

### D. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA

Mila euro

Eskubide kitatuak .....		4.583.430
-Obligazio aitortuak.....		(4.528.362)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>		<b>55.068</b>
Eskubide kitatuak baliogabetzea .....	A8	(78)
Obligazio aitortuak baliogabetzea .....	A8	9
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)</b>		<b>(69)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2)</b>		<b>54.999</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 06/12/31n</b>		<b>339.121</b>
Aurrekontuan jaso gabeko sarreren itzuleragatiko hartzekodunen aldaketa		(38)
<b>07/12/31-N DIRUZAINZA GELDIKIN KONSOLIDATUA</b>		
<b>ERABILI GABEKO KREDITU ERAGIKETEKIN</b>		<b>394.082</b>

### E. DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Mila euro

Diruzaintza eta aldi bateko finantza inbertsioak .....	A13	190.922
Aurrekontuko zordunak.....		13.796
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	A12	4.457
Aurrekontuz kanpoko finantza kontuak.....	A12	145.430
Aurrekontuko hartzekodunak .....		(119.871)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	A12	(45.564)
Aurrekontuan jaso gabeko sarreren itzuleragatiko hartzekodunak .....		(38)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 07/12/31-N.....</b>		<b>189.132</b>
Kreditu lerroetan gauzatutako aurrekontu-finantzaketa		
(Erabili gabeko saldoa) .....		204.950
<b>07/12/31-N DIRUZAINZA GELDIKIN KONSOLIDATUA</b>		
<b>ERABILI GABEKO KREDITU ERAGIKETEKIN</b>		<b>394.082</b>



F. EGOERAREN BALANTZEA 2007 eta 2006ko abenduaren 31n

Mila euro

AKTIBOA	Eranskina	2007	2006	PASIBOA	Eranskina	2007	2006
<b>IBILGETUA</b>		<b>1.082.702</b>	<b>973.040</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>		<b>1.217.292</b>	<b>1.047.607</b>
Erabilera orokorrekoa .....	A6	299.687	250.904	Ondarea .....	A6	2.693.177	2.487.911
Ezmateriala .....	A6	111.704	96.870	Erabilera orokorrerako ondarea ..	A6	(898.574)	(837.341)
Amort. ezmateriala.....		(82.482)	(70.595)	Egoera berezi. ondarea.....	A6	(805.998)	(808.229)
Materiala eta indarrekoa.....	A6	842.729	771.372	Ekitaldiko ondare emaitza .....	A14	228.687	205.266
Amort. materiala .....		(173.018)	(157.552)				
Ibilgetu finantzarioa.....	A10	84.082	82.041				
<b>ZORDUNAK</b>		<b>89.941</b>	<b>96.515</b>	<b>ZUZKIDURAK</b>		<b>53.017</b>	<b>53.946</b>
Aurrekontuko zordunak.....		13.796	20.706	Erakunde konpromisoetarako z...	A7	53.017	53.946
Geroratu gab. zerga zord.....	A7	407.745	395.727				
Geroratu zerga zord.....	A7	65.764	57.261	<b>EPE LUZEKO ZORRA</b>		<b>56.888</b>	<b>43.714</b>
Aurrek. kanp. bestel. zord....	A12	3.195	3.169	Jasotako maileguak.....	A11	56.888	43.714
Kaudimengabeziatar. zuzkid.	A7	(401.821)	(381.674)				
Erakunde publ., eskud. k/k...	A12	1.262	1.326				
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>336.415</b>	<b>255.728</b>	<b>HARTZEKODUNAK, EPE LABURRERA</b>		<b>181.861</b>	<b>180.016</b>
Epe labur. emandako kred. .	A10	63	63	Aurrekontuko hartzekodunak.....		119.871	113.488
Bankukoak ez diren kontuak	A12	145.430	246.473	Sarrerak itzultzeag. hartzek. ....	A7	9.100	7.820
Diruzaintza.....	A13	190.922	9.192	Aurrek. kanpoko beste hartzek...	A12	17.958	35.295
				Epe laburreko zorra.....	A11	7.326	5.001
				Beste zor batzuk .....	A12	631	635
				Bestel. erak. publikoen baliab. ....	A12	5.413	4.641
				Aplikatzeko dauden sarrerak .....	A12	21.562	13.136
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.509.058</b>	<b>1.325.283</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.509.058</b>	<b>1.325.283</b>

G. 2007 eta 2006ko ekitaldietako GALDU-IRABAZIEN KONTUAK

Mila euro

GASTUAK	2007	2006	DIRU-SARRERAK	2007	2006
Langile gastuak .....	92.576	89.812	Zergak.....	4.367.053	3.991.249
Kanpoko zerbitzuak.....	138.939	133.510	Salmentak eta zerbitzuen emakida	27.737	28.212
Tributuak .....	339	360	Jasotako tran. eta dirul.....	160.626	160.757
Emandako trans. eta dirulag. ....	4.091.139	3.715.424	Kudeaket. sarrera osagarriak .....	43.590	39.497
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....	28.601	25.620	Kapital partaidetzak .....	198	198
Kaud.gabez. zuzk.-erak.kon. ald..	26.482	30.724	Interesak .....	10.754	8.722
Finantza gastuak .....	1.407	6.703	Finantza inb. zuzkidur. aldak. ....	-	30
Aurreko ekitaldietako galerak ....	19.959	25.318	Aurreko ekitaldietako mozkinak ....	4.905	-
Ibilgetuaren galerak.....	272	26	Ibilgetuaren mozkinak.....	13.538	4.098
Aparteko galerak.....	-	1.458	Aparteko irabaziak.....	-	1.458
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4.399.714</b>	<b>4.028.955</b>	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.628.401</b>	<b>4.234.221</b>
			<b>Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>228.687</b>	<b>205.266</b>



## V.2 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTUAK

2007ko Aurrekontuaren Likidazioa	Mila euro		
	Hasierako aurrekontua	Amaierako aurrekontua	Eskubideak Obligazioak
Tasak eta prezio publikoak.....	1.380	1.380	1.392
Transferentzia arruntak.....	11.784	11.784	11.786
Ondare sarrerak .....	40	40	110
Kapitalezko transferentziak.....	2.835	2.835	2.835
Finantza aktiboak .....	105	456	38
<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>16.144</b>	<b>16.495</b>	<b>16.161</b>
Langile gastuak .....	9.828	9.828	9.654
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak.....	3.376	3.376	3.375
Inbertsio errealak.....	2.835	3.186	791
Finantza aktiboak .....	105	105	23
<b>GASTUAK</b>	<b>16.144</b>	<b>16.495</b>	<b>13.843</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>			<b>2.318</b>
<b>AURREK. ITXIEN EMAIT. ETA AURR. DOIK.</b>			<b>(9)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>			<b>2.309</b>
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 07/12/31-N</b>			<b>1.377</b>

Egoeraren Balantzeak 2007 eta 2006ko abenduaren 31-n	Mila euro	
	31.12.07	31.12.06
Ibilgetua.....	9.788	9.423
Zordunak .....	206	193
Kaudimengabeziatarako zuzkidura.....	(60)	(58)
Finantza-kontuak.....	5.156	2.911
<b>AKTIBOA</b>	<b>15.090</b>	<b>12.469</b>
Berezko fondoak .....	13.493	10.829
Hartzekodunak, epe laburrera.....	1.597	1.640
<b>PASIBOA</b>	<b>15.090</b>	<b>12.469</b>

2007 eta 2006ko Galdu-lrabazien kontuak	Mila euro	
	2007	2006
Negozio zifra eta best. ustiaketa sarrerak.....	1.392	1.325
Transferentzia arruntak.....	11.786	11.151
Diru-sarrera finantzarioak .....	110	63
Kapitalezko transferentziak.....	2.835	1.334
<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>16.123</b>	<b>13.873</b>
Langile gastuak .....	9.654	9.076
Amortizaziorako zuzkidura.....	423	363
Kaudimengab. horniduren aldakuntz.....	8	11
Bestelako ustiaketa gastuak .....	3.375	3.232
Kapital diru-laguntzak.....	1.712	-
Aurreko ekitaldietako galerak .....	-	3
<b>GASTUAK</b>	<b>15.172</b>	<b>12.685</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>951</b>	<b>1.188</b>



### V.3 SOZIETATE PUBLIKOEN KONTUAK

	Egoeraren BalantzeaK 2007 eta 2006ko abenduaren 31n					
	IZFE, SA		Bidegi, SA		Etorlur, SA	
	2007	2006	2007	2006	2007	2006
Ibilgetu ezmateriala.....	590	1.071	171.408	182.831	24	24
Ibilgetu materiala .....	4.035	2.100	367.745	128.057	21	25
Ibilgetu finantzarioa .....	362	418	118	117	-	2
Izakinak .....	24	22	-	-	14.202	8.326
Zordunak.....	5.157	3.642	34.828	8.320	619	116
Finantza-kontuak .....	1.604	1.653	61.917	95.507	18	2.906
Periodokatzeagatiko doikuntzak.....	106	138	-	-	3	-
<b>AKTIBOA</b>	<b>11.878</b>	<b>9.044</b>	<b>636.016</b>	<b>414.832</b>	<b>14.887</b>	<b>11.399</b>
Berezko fondoak.....	2.140	2.004	242.444	167.344	11.302	10.944
Diru-sarrerak, hainb. ekitalditan banatzekoak	4.824	3.370	171.352	182.776	160	161
Hartzekodunak, epe luzera.....	-	-	123.000	-	2	-
Hartzekodunak, epe laburrera .....	4.690	3.411	99.220	64.712	3.423	294
Arriskuatarako zuzkidurak .....	224	259	-	-	-	-
<b>PASIBOA</b>	<b>11.878</b>	<b>9.044</b>	<b>636.016</b>	<b>414.832</b>	<b>14.887</b>	<b>11.399</b>

	2007 eta 2006ko Galdu-Irabazien kontuak					
	IZFE, SA		Bidegi, SA		Etorlur, SA	
	2007	2006	2007	2006	2007	2006
Negozio-kopuruen zenbateko garbia .....	17.662	16.449	68.306	64.953	-	250
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	237	221	10.065	9.762	5.813	7.566
Diru-sarrera finantzarioak .....	120	69	3.080	2.981	42	91
Kapital dirulaguntzak .....	2.101	2.071	-	-	-	-
Diru-sarrera bereziak .....	265	261	11.423	11.719	-	-
Diru-sarr. ta mozkinak, beste ekitaldi batz.....	-	-	20.904	-	-	-
<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>20.385</b>	<b>19.071</b>	<b>113.778</b>	<b>89.415</b>	<b>5.855</b>	<b>7.907</b>
Erosketak eta hornidurak.....	46	85	-	-	5.813	7.771
Izakinen aldakuntza .....	(1)	1	-	-	-	-
Langile gastuak.....	7.801	7.165	1.065	801	199	142
Amortizaziorako zuzkidura .....	2.101	2.071	11.708	11.608	13	8
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	-	-	-	224	-	-
Bestelako ustiaketa gastuak.....	10.156	9.661	23.816	25.706	119	69
Finantza gastuak .....	-	-	2.059	-	12	-
Gastu bereziak .....	134	-	30	-	-	-
Sozietateen gaineko zerga.....	12	3	-	-	-	-
<b>GASTUAK</b>	<b>20.249</b>	<b>18.985</b>	<b>38.678</b>	<b>38.339</b>	<b>6.156</b>	<b>7.900</b>
<b>EMAITZA</b>	<b>136</b>	<b>85</b>	<b>75.100</b>	<b>51.076</b>	<b>(301)</b>	<b>(83)</b>





## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2007KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Gipuzkoako lurralde historikoko 2007ko Kontu Orokorraren fiskalizazioaren emaitzei erantzuna emateko xedez, txosten honetan jaso ditugu fiskalizazio horren inguruko alegazio eta justifikazioak, 1998ko otsailaren 5eko 1/1998 Legeak 13. artikuluan ezarritakoa betez.

### 1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK PERTSONALAREN GASTUAK

Atal honetan, HKEEak honakoa dio, besteak beste:

*Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ez ditu lanaren etekin gisa sartu 16 zuzendari nagusiri kargua uztearen ondorioz ordaindutako 99 mila euro; ez eta 6 enplegaturi erretiro-sari gisa ordaindutako 352 mila euroko kopurua ere, ordainsari horiek ez daudela aipatutako zergari lotuak iritziata. Alabaina, zerga araudiak ez du inolako ordainarazpenik aurreikusitako ordainsari horiei dagokienez.*

Alegazioa

Kargu-uzteen ondorioz ordaindutako kopuru horiei dagokienez, egia da 8/1998 Foru Arauak ez duela inolako ordainarazpenik aurreikusten. Alabaina, Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoak 1996ko apirilaren 30eko bilkuran erabaki zuen, goi-karguei ordainsariak ematek uzteagatik onartzen zaizkien prestazioetan, hileko ordainsariari dagokion kalte-ordaina salbuetsitako kalte-ordaina dela, lan arloko legerian nahitaez ordaindu beharrekotzat ezarrita dagoen kopuruaren parekoa. Beraz, kopuru horri ez zaiola inolako atxikipenik egin behar<sup>1</sup>.

### ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak honakoa adierazi du:

*Diputatuen Kontseiluak 276 mila euroko gastua onartu zuen 2007ko ekitaldian, Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9an emandako epaiaren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundia defendatzen jardun duen abokatu bati, data hori arte sortutako lansariak ordaintzeko. Baina, alde aurretik ez zen sinatu bi aldeen eskubideak eta betebeharrak arautzeko kontraturik.*

<sup>1</sup> Zergak Koordinatzeko Organoa ez da organo eskumenduna zerga legeriaren alorrean, Foru Administrazioako atalei dagokiela egiteko hori.



*Egoera berbera gertatu da abokatu horri ordaindutako beste 290 mila euroko kopuruarekin ere; hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga arloko xedapen batzuk legez kanpokoak direla esanez Europako Batzordeak emandako erabaki batzuen aurka, abokatuak europar instantzietan emandako aholkularitza juridikoaren ordainetan emandako kopuruarekin. Ez dakigu gastu hori gauzatzekoan, baimendutako gastuak denbora arloan izan duen helmena, profesional horrek bere zereginetan jarraitzen baitu gaur egun ere.*

### Alegazioa

Gipuzkoako lurralde historikoko Batzar Nagusiek 1993ko ekainaren 26an onartutako 11/1993 Foru Arauak, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, betekizun jakin batzuk betetzen dituzten enpresa berriak Sozietateen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 10 urtez. Bestetik, 7/1996 Foru Arauak, uztailaren 4koak, 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, betekizun jakin batzuk betetzen dituzten enpresa berriek murrizketa bat egin ahal izango dute Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian. Eta bestetik, 7/1997 Foru Arauak, abenduaren 22koak, hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakori jarraituz, 2.500 milioi pezetatik gorako inbertsioei, % 45eko zerga kreditua aplikatuko zaie.

Aipatutako neurri fiskal horiek direla-eta, Europako Batzordeak 2001eko erabakietan adierazi zuen laguntza horiek bateraezinak direla merkatu komunarekin; beraz, % 45eko zerga kreditu hori berehala berreskuratzeko agindu zion Espainiako erresumari. Era berean agindu zion, berehala berreskuratzeko zerga arloko minioportzat jotzen diren horiek, hau da, 7/1996 Foru Araua indarrean jarri ostean enpresa jarduera Gipuzkoako lurralde historikoa hasi zuten enpresei onartutako % 99, % 75, % 50 eta % 25eko murrizketa, Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, lehenengo lau zergaldietan.

Erabaki horiek eragin berbera izan zuten Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien zerga erregimenetan ere.

Hortaz, ezinbestekoa zen gainerako foru aldundiekin lankidetzako lan ildo bat eratzea, euskal foru erakundeen interesak defendatzeko bide bat aurkitzearen. Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduketa sail bat proposatu zuen; eta proposamen horien ondorioz, erakundeetako bakoitzean kontratazio koordinatua baina bereziaz egin zitzaion esleipendun berari, zenbateko eta xede berdinez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2002ko apirilaren 19ko 357/02 Foru Aginduaren indarrez, 30.050,60 euroko prezioan esleitu zuen Europako Batzordeak 2001eko uztailaren 11n emandako erabakiak (1996ko zerga hobariak) gauzatzeko gaien, berariazko aholkularitza juridikoa emateko kontratua. Urtebeteko iraupena aurreikusi bazen ere, esleipendunak 120 orduko dedikazioa zenbatetsi zuen bere eskaintzan, beharrezkoa gerta zitekeen denbora guztia inbertitzeko konpromisoa hartuz.

Handik urtebetera, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak 198.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz ("Administrazioaren defentsa juridiko eta judizialerako kontratuen iraupena haren premiak egoki betetzeko behar den bestekoa izango





da”) pentsatu zen kontratua luza zitekeela, eta 2003ko maiatzaren 15eko 529/03 Foru Aginduaren indarrez, 30.560,60 euroko gastu berria onartu zen.

Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiak, hiru foru aldundien solaskide den partetik, hainbat jarduketa agindu ditu etengabe 2002. urtetik hasi eta gaurdaino; esate baterako, 2001eko uztailaren 11ko Erabakiekin loturik dauden gaietako eskuhartzeak (T-229/01 eta T-232/01 gaiak) letradu bezala gidatzea; edota 2001eko uztailaren 11ko erabakiekin lotutako idatziak prestatu, aurrekariak aztertu eta erabaki horiek deusezteko errekursoak jartzea, erkideagoarekiko auzietan, Lehen Instantziako Epaitegian, jarduketa horiek letradu bezala gidatzeko konpromisoa bere gain hartuz.

Abokatu horrek, halaber, 1993ko ekainaren 26ko 11/93 Foru Araua dela-eta, Europako Batzordeak 2002ko abenduaren 20an emandako erabakiarekin lotutako gaietan jardun du.

Beraz, hiru foru aldundien kontura onartutako zeregin profesionalen edukiak, kontratazioa egin zen egunetik hasi eta gaurdainokoa hartzen du bere baitan. Gero, jarduketa eremua zabaldu egin da, eta ez da soil-soilik hedatu 1996. urtean onartu eta hasierako kontratua bultzatu zuten zerga hobarietara; baita 1997an onartutako zerga hobarietara eta 1993an onartutako zerga hobarietara ere.

Abokatu defendatzaileak 290.000,00 euroko minuta gehigarria aurkeztu zuen (BEZ sartuta), egindako lanen xehetasunak emanez. Minuta hori, gaien benetako interes ekonomikoa aintzat hartuz (ordainsari profesionali buruzko arau orientagarrien zazpigarren xedapen gehigarria) eta murrizketa (aipatutako arauetako bigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera) negoziatu ondoren kalkulatu zegoen.

Zerbitzuaren prestazioa behar bezala egiaztatua zegoenez, eta interesdunak eskatutako zenbatekoa, ordainsari profesionali buruzko arau orientagarrietan aurreikusitakoa baino gutxiago zenez, zenbateko hori ordaintzeko behar zen gastua onartu zen<sup>2</sup>.

*Gipuzkoako Foru Aldundiak bi espedientetan banatu ditu 2007-2011 epealdirako Kudeaketa Estrategiko Plana ezagutzera emateko kanpainaren hedapen zerbitzuen kontratazioa, 142 mila eurokoa bat eta 175 mila eurokoa bestea. Eta horrela, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginak (HAKLTB) 68. artikuluan ezarritakoa urratu du, artikulua horren arabera debekatua baitago xede bereko kontratuak zatitzea. Bestetik, kontratazio hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen arren, ez zen bete HAKLTBak 78. artikuluan xedatutakoa, ez baitzen argitaratu ez Estatuko Aldizkari Ofizialean, ez eta Europako Batasunaren Egunkari Ofizialean ere.*

<sup>2</sup> Ez dago inongo hitzarmenik foru administrazioen artean zerbitzu hauek kontratatzeke, eta GFak ere ez du aldean eskubide eta obligazioak arautuko dituen inongo hitzarmenik izenpetu.



### Alegazioa

2007-2011 legealdirako Kudeaketa Plana martxan jartzeko komunikazio estrategia, hiru ataletan egituratu zen: sormena, komunikabideetan hedatzea, eta telebistan hedatzea. Horretarako, bidezko lehiaketa publikoak eratu eta, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen jakitera.

Bai erakundeen arloko bai enpresarien arloko komunikazioetan, ohikoan, era guztietako konbinaketak egiten dira hiru bloke horien artean. Zenbaitetan, enpresariak erabakitzen dute hiru zereginak batera esleitzea; beste zenbaitetan, komunikabideetako hedapena elkartu egiten da; eta bestetik, ohikoa izaten da bloke bakoitza bereizita esleitzea ere.

Foru Aldundiak azkeneko aukera horri heldu zion. Horrela, hiru lehiaketa antolatu ziren, bereizita. Arrazoiak: atal bakoitzean proposamenik egokiena hautatzeko aukera izatea. Blokeak bereizteak baztertu egiten du zeregin guztiak batera esleitu beharra, lizitatzaila atal guztietan hoberena ez den kasuetan<sup>3</sup>.

*2004-2007 epealdiko Inbertsioen Plan Bereziari buruzko informazioa hedatzeko zerbitzuak, eskuduntzarik ez duen organoak kontratatu zituen, publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, 183 mila eurotan, 210.b) artikuluan ezarritakoaren babesean. Baina ez zegoen inolako arrazoirik salbuespen hori aplikatzeko; eta horrela, ez ziren bete prozedura irekian nahitaez bete beharreko publikotasun eta konkurrentzia printzipioak. Gero, Diputatuen Kontseiluak, baliozkotu egin zuen espediente hori.*

### Alegazioa

Diputatu Nagusiak 2007ko martxoaren 15ean emandako 75/2007 Ebazpenari jarraituz, 2004-2007 Inbertsioen Plan Bereziari buruzko informazioa hedatzeko zerbitzuak euskal telebista publikoaren bitartez kontratatzeke espedientea onartu zen. Horretarako, prozedura irekia erabili zen, publikotasunik gabe, honako arrazoi hauek hala aginduta: ETB da ikus-entzule gehien dituen katea; ETB da kanal bat euskaraz duen bakarra; ETB Euskadi osora iristen da eta Euskadi osorako programazioa du, Gipuzkoa bakarretarako deskonexioak ere eginez<sup>4</sup>. Xede horrekin onartu ziren kontratazioaren baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako lurralde historikoko Erakunde Antolakuntza, Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, 31.6 artikuluan

---

<sup>3</sup> Kudeaketa Planaren merkaturatzea alegazioan jasotako atal bakoitzerako sortaka lehiatu daitezkeen zerbitzu bakarra da (izatez, bi espedienteak data berean eta lehiatzaile berari esleitzen zaizkio); horregatik, kontratazio espediente bakar bat bideratu behar zatekeela uste dugu.

<sup>4</sup> Inguruabar hauek ez dute publizitate eta lehia printzipioak betetzetik salbuesten, prozedura ireki batean baliozta baitaitezke.

ezarritakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokiola 125.000 euroko edo gehiagoko gastuak baimentzea, aipatutako ebazpen hori Diputatuen Kontseiluak baliozkotu zuen 2007ko maiatzaren 22ko bilkuran. Eta horrela, akatsa zuzenduta geratu zen.

*Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu bete publikotasun eta konkurrentzia printzipioak, aholkularitza eta laguntza teknikorako egindako hamaika kontratutan (809 mila euro guztira) ez baititu bete kontratazio araudian aurreikusitako prozedura irekian bete beharreko baldintzak. Kontratazio horiek prozedura negoziatuaren bitartez egin ditu, publikotasunik gabe eta eskaintzak eskatu gabe; eta ez ditu behar bezala egiaztatu, prozedura hori erabiltzeko arrazoi teknikoak edota eskubide eskusiboak babestearekin lotutako arrazoiak.*

#### Alegazioa

- Kontratuak: Foru Gobernuaren 2007-2001 Helburu Estrategikoak, 29.900 eurotan; eta Kudeaketa Estrategikoko Planaren estrategia eta berrikuspena diseinatzea, 138.300 eurotan.

Legealdi berria hasi zenean, Kudeaketa Estrategikoko Plan baten premia sortu zitzaion Foru Gobernuari; hau da, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua osatzen duten bi alderdi politikoek hauteskunde kanpaina hartutako konpromisoak bildu eta programa-egintzaren ildoak zehaztuko zituen plana egin beharra etorri zitzaion.

Hori horrela, eta presazko arrazoiek hala aginduta, Diputatu Nagusiaren Kabinetek enpresa baten zerbitzuak kontratatu zituen, legealdian zehar landu eta lortu beharreko helburu estrategikoak foru departamentuekin identifikatu ahal izateko.

Gobernualdi berri bati hasiera emateko unean, legealdirako oinarritzko jarduketa estrategia diseinatzea, Kudeaketa Plana esaten diogun hori egitea, nahitaezko premia izateaz gain, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak proposatutako lehentasun nagusia izan zen. Hori horrela, Diputatu Nagusiaren Kabineteko buruak txosten batean arrazoitu zituen, estrategia formulatzeko agintzeko unean Foru Aldundiak aintzat hartu beharreko nahitaezko betekizunak. Hauek izan ziren aipatutako txosteneneko argudioen oinarri: adostasuna, epea, arriskua, jakintza eta estrategia.

Kontratu horren helburua bete ostean, eta emaitza ikusirik, ildo estrategikoak eta jarduketa sistema ezartzea eta hori guztia Kudeaketa Estrategikoko Plan batean biltzea komeni zen. Gauzak horrela, ez zen gomendagarria, inondik inora, departamentuen helburuak identifikatzen jardundako profesional berak arduratzea helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko estrategia egiteaz eta diseinatzeaz, eta lau urterako Kudeaketa Planaren ildo estrategikoak ezartzeaz. Era berean, ez zirudien bidezkoa profesional horiek berak izatea, Plana ondorengo urteetan lagundu, jarraitu eta berrikusteaz arduratu behar zutenak.

Horrela bada, Diputatuen Kontseiluak 2007ko urriaren 9ko bilkuran erabaki zuen publikotasunik eta konkurrentziarik gabeko prozedura adostu bati ekitea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007-2011 epealdirako oinarritzko jarduketa estrategia –Kudeaketa



Estrategikoko Plana– diseinatzeko kontratua esleitzeko. Kontratu horrek 138.300 euroko aurrekontua zuen eta hiru urteko indarraldia: 2007, 2008 eta 2009<sup>5</sup>.

*Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu tramitatu administrazioaren kontratazioetan nahitaez tramitatu beharreko espedienteak, helburu bakarra izan duten eta ondoren laburtuko ditugun gastuetako bakoitza gauzatzeko lanetan: guztira 639 mila euroko gastua izan duten 7 obra; 93 mila euroko 2 hornidura; guztira 3.650 mila euroko gastua izan duten 22 laguntza tekniko; eta guztira 310 mila euroko gastua izan duten 2 kontratu pribatu.*

#### Alegazioa

- Kontratuak: Sueskolako argiteria, kanalizazioa eta kanpoaldea hiritartzea.

2006ko ekitaldiko kontuen txostenari egindako alegazioetan adierazitakoari jarraituz, Sueskola eraikina argiztatzeko eta hirigintza lanak kanalizatzeko kontratuan bete zen kontratatze prozedura, nahiz eta prozedura irekia ez izan. Izan ere, Sueskolako eraikuntza lanak bukatze arazoak, eraikin berria hartuko zuen lursailaren zabalunean kanpoko argiteriarik ez zegoela ohartu ginen. Argi bakarra, gutxi gorabehera ehun metrora dagoen suhiltzaileen parkekoa zen, baina ez zen nahikoa, eraikin berriaren zati handi bat ilunpean eta parkeko argitik at geratzen baitzen. Eraikinaren kanpoaldeko argia ez zegoen obren proiektuan sartua, ez eta kontratuan ere. Beraz, PVCzko hodi eta kobrezko eroaleen kanalizazioa egin, farolak ipini eta ainguratzeak egin behar ziren plataforma osoan. Obrako zuzendaritzak idatziz adierazi zuen, lan horiek eraikina argindarrez hornitzeko lanak bukatzean, baina eraikinean lanean ziharduten enpresen kontratua bukatu aurretik egitea komeni zela, horrela, bertan zeuden baliabide teknikoak eta giza baliabideak erabili ahal izango zirelako.

Bi arrazoi izan ziren eraikinaren kanpoaldeko argiteria berehala kontratatzeke: Eraikina prest zegoen jarduera martxan jartzeko, baina fisikoki suhiltzaileen parketik urrun zegoen, begiralerik gabe eta kanpoko argirik gabe. Segurtasun arazoiek agintzen zuten eraikin horren ingurunea argiztatua egotea, gauez inor sar ez zedin, oso zaila baitzen suhiltzaileen parketik bidegabeko sarrera horiek antzematea. Gainera, eraikina teknologia aurreratuko ekipamenduz hornitua zegoen, eta horrek lapurretak erakar zitzaizkeen. Bigarren arrazoia izan zen eraikina une batetik bestera martxan jartzeko moduan zegoela. Baina hori ez zen bidezkoa, aldeztatik sarbideak, hiritartze lanak eta kanpoko argiteria gauzatu gabe. Lan horiek berehala hasi eta lehenbailehen bukatzea komeni zen inolako ezbairik gabe.

Horrela bada, baztertu egin genuen esleitzeko hilabeteak beharko zituen prozedura irekiari ekitea. Horren ordez, prozedura adostuari ekin genion eraikineko argindarraz arduratutako enpresarekin; eta honek, bidezko proiektua egin zuen, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginak 141.d) artikuluan ezarritakoaren babesean.

<sup>5</sup> Aurkeztutako alegazioak ez du publizitate eta lehia bitartez prozedura irekia egiteko ezintasuna justifikatzen.



Kontratatu beharreko obrak, eraiketa lanen osagarri ziren. Ez ziren ageri, ez proiektuan ez kontratuan. Baina derrigorrez egin beharrekoak ziren. Obra horien prezioak, BEZ sartuta, ez zuen gainditzen kontratuaren jatorrizko prezioaren % 20. Prozedura horri jarraituz, obra nagusia ematearekin batera, egin beharreko beste lan horiek ere bukatuta egotea lortzen genuen. Eta gauzatze proiektuan jasotako prezioak ere, etxearen eraikuntzan aplikatutako prezio berak ziren.

Gauza bera esan dezakegu Sueskolaren kanpoaldeko hiritartze lanei buruz ere. Eraikina egiten bukatutakoan, obrako kamioien joan-etorriak hondatutakoa konpontzen saiatu ginen: zabaluneko zoru osoa eta suhiltzaileen parkerako sarbideak, edota erdibitutako kanalizazioak. Era berean, parkean mailatutako ur kutxetak jaso, eta itxitura ere berriro egin zen, zenbait puntutan erabat desagertua baitzegoen.

Kasu honetan ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginak 141.d) artikuluan aurreikusitako prozedura adostura jo genuen, publikotasunik gabe, argiteriaren kasuan azaldutako arrazoi berengatik. Obra horietarako proiektua, eraikuntzaz arduratutako enpresa esleipendunari eskatu genion; eta proiektu horretan adierazitako prezioak bat zetozen obra nagusiaren proiektuan jasotako prezioekin. Kasu honetan ere, aurrekontuak ez zuen gainditu jatorrizko kontratuaren prezio osoaren % 20.

Oraingo honetan ere segurtasun arrazoiak izan ziren tarteko; izan ere, hasierako hesia hautsia edota oso baxu geratu zen, eraikinaren kota metro batetik gora igo baitzen, segurtasun arrazoiak hala aginduta. Sarbide horiek, Ordiziako suhiltzaileen parkeko ibilgailuek eta prestakuntzarako eraikineko erabiltzaileek behar zituzten egunero; beraz, lehenbailehen bukatu beharrekoak ziren<sup>6</sup>.

- Kontratua: motoristak babesteko pantailak ezartzea.

Motoristak babesteko pantailak ezartzeari dagokionez, zehaztu behar dugu hainbat errepidetan burututako jarduketak izan direla, segidan adieraziko dugun moduan. Jarduketa horietako bakoitza bereizia eta osoa zenez, banaka tramitatzeko aukera zegoen, obra txiki gisa, HAKLTBak 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, bakoitzaren aurrekontua ez baitzen iristen HAKLTBak 121. artikuluan aurreikusitako kopurura; beraz, kontratazio hori ez zegoen, nahitaez, prozedura irekiaren bitartez tramitatu beharrik<sup>7</sup>.

ERREPIDEA	JARDUKETA	PREZIOA
GI-3950 errepidea.....	motoristen pantailak	29.717,11 euros
GI-3301 errepidea.....	motoristen pantailak	29.887,17 euros

<sup>6</sup> HKEEren aurrean ez da inongo kontratazio prozedurarik egin izana justifikatu, ez lana egiteko fasean, ez alegazioen fasean ere. Bestalde, ez da kontratu nagusiaren gaineko inongo aldakuntzarik egin, aipatutako obrak hasierako kontratuaren esleipen hartzaile izan denaz besteko enpresekin kontratatu direlarik.

<sup>7</sup> Bi errepidetan instalatu den hornigai bat da, xedea homoginoa eta erosketa aurreikusgarria izanik kontratazio espediente bakar bat egiteko.



- Kontratua: mediku zerbitzu profesionalak.

HKEEak, mediku zerbitzu profesionalak aipatzen dituenean, parke guztietako suhiltzaileen prestakuntza fisikoaren banakako jarraipena egiteko zerbitzuaz ari da. Zerbitzu hori ematen zuen enpresari urte horretan bukatu zitzaion kontratua. Ez genuen deialdi berririk egin, ordura arteko esperientziak garbi erakusten baitzuen Suteen Prebentzioko eta Larrialdietako Zerbitzuak aldaketa nabarmenak egin behar zituela baldintza teknikoen agirietan. Beraz, une horretan erabaki genuen zerbitzua enpresa beraren esku uztea kontratu berria egin arte, suhiltzaileei ezin baitzitzaien zerbitzu hori kendu, beste aukeraren bat eman gabe.

*Foru Aldundiaren eraikinen garbiketa zerbitzua, 3.298 mila euroko gastua duena, zerbitzua aurreko urteetan eman duen enpresa berari kontratatatu zaio zuzenean. Hasierako kontratu publikoa 2001ean esleitu zitzaion eta beraz, agortuak zituen HAKLTBak 121. artikuluan aurreikusitako luzapen guztiak; horrela bada, ez dira bete publikotasun eta konkurrentzia printzipioak.*

#### Alegazioa

Epaitegiak aipatzen duen kontratu horren deialdia, eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko deialdia, aldizkari ofizial guztietan eman zen argitara, baita Europako Batasuneko Egunkari Ofizialean ere; eta gero, tramitazio arrunteko prozedura irekiari jarraituz, 2008ko apirilean esleitu zen. Hala eta guztiz ere, egia da esleipen hori egin arte, garbiketa zerbitzua aurreko kontratuaren esleipendun gertatutako enpresak eman zuela, kontratua iraungia zuenak.

Baina kontratua bukatu eta esleipen berria egin arte denbora luzatu izanak badu bere arrazoiak. Eraikinen garbiketa zerbitzuko alorrak 2006. urtean planteatu zuen, hain zuzen ere, enpresa esleipendunetako langileen soldatak, kontratuak esleitzen dituzten administrazioetako kualifikazio bereko langileen soldatekin berdintzea.

Egoera aztertu ondoren, Foru Aldundiak erabaki zuen lehiaketa une horretan ez ateratzea, eta sindikatuek berdinketa planteamenduak egin eta beraien enprekin adostasun batera iritsi arte itxarotea. 2006. urte horretan, adostasuna berehala etorriko zela bazirudien ere, ez zen hala gertatu.

Horregatik atzeratu zen lehiaketa berrirako deialdia. Foru Aldundiaren eraikinetan, une hartan lehiaketak martxan jarritako sektore publikoko beste erakundeetan jasan behar izan zituzten lan gatazkak saihestu nahi izan genituen. Aldundiak ez zuen parte hartu enpresen eta sindikatuen arteko negoziazioan, gai pribatua zelako eta kontratazio publikoarekin zerikusirik ez zuelako.

Enpresak eta sindikatuek adostasun bat lortu zutenean, ordainsariaren aldaketak izango zuen eragina baloratu, eta kontratu berrian islatu zuen Aldundiak. Kontratu horretan erabaki zen ordainsarien berdinketa hori kontratuaren iraupeneko hurrengo lau urteetan banatzea.



*Hainbat kontratu gauzatzekoan, HAKLTBean jasotako lizitazio printzipioak urratzen dituzten aldaketa nabarmenak egin dira. Gertatu diren gehikuntzen zenbatekoa ez dator bat, ez kontratuaren xedearekin, ez eta kontratuaren bolumen ekonomikoarekin ere; eta gehikuntza horiek ez dira izan arrazoi berrien edo ezustekoen ondorio.*

#### Alegazioa

- Kontratuak:
  - Santa Teresa komentua birgaitzeko proiektua bera, obraren zuzendaritza, hala nola kalitate, segurtasun eta osasun kontrola aldatzea.
  - GI-131 saihesbideko obraren zuzendaritza, Martutene-Donostia zatian.
  - GI-131 saihesbideko obraren zuzendaritza, Donostia-Martutene zatian.

Baldintza administratibo berezien agirian jasotakoaren arabera, eta HAKLTBak 198. artikuluan ezarritakoari jarraituz, obraren zuzendaritzako kontratuak edota obraren zuzendaritzan laguntzeko kontratuak, obraren kontratuen osagarriak dira berez. Hori horrela, kontratu horiek betetzeko epea kontratu nagusia gauzatzeko epeari lotua dago nahitaez, prestazio horiek ezinbestekoak baitira kontratua gauzatzeko, zuzendaritza lanak egiteko eta administrazioak obrak kontrolatu ahal izateko. Hain zuzen ere, HAKLTBko 198. artikulua, 2 apartatuan dioenaren arabera “Gorago xedatutakoa hala izan arren, titulu honetan arautu eta obra kontratuen zein hornidura kontratuen osagarri diren kontratuek epe gehiagoko iraupena izan dezakete, baina ez da kontratu nagusiaren iraupena baino gehiagokoa izango, kontratu nagusia likidatzearekin zerikusia daukaten lanak hartzen dituzten kontratuen kasuan izan ezik; horien azken epea kontratu nagusiarena baino luzeago izango da, lanak amaitzeko behar den beste denboraz hain zuzen. Paragrafo honetan adierazitako kontratu osagarria hasteko unea etenda geratuko da, xedeari edo edukari lotuta bidezkoa den aurkako arrazoirik ez badago behintzat, harik eta dagokion obra kontratua gauzatzen hasi arte.”

Obrak gauzatzeko hasiera batean aurreikusitako denbora baino gehiago behar izatea zirkunstantzia berria da, obraren zuzendaritza kontratuan edota obraren zuzendaritzan laguntzeko kontratuan aurreikusi gabeko zirkunstantzia bat, eta gainera, kontratu horiekin zerikusirik ez duena, osatzen duen obra kontratutik baitator.

Bestetik, HKEEak aipatu dituen obraren zuzendaritzako kontratuen prezioa zehazteko erabili den sistema denbora faktoreari lotua dago; eta ondorioz, obrak gauzatzeko hasiera batean aurreikusitako denbora baino gehiago behar izateak, obraren zuzendaritzarekin lotutako kontratuen prestazioa luzatu beharra dakar berarekin. Prestazio hori ezinbestekoa da, halaber, administrazioak obrekin jarraitu ahal izateko, eta horrek, kontratistak eman duen prestazio handiago hori ordaindu beharra dakar derrigorrez, bitarte horretan ezin baita baztertu obraren zuzendaritzari lotutako kontratua, ez ezta lizitazio berria planteatu ere.

Adierazitakoa aintzat hartuta, epe luzapenak esanguratsuak izan badira ere, luzapen horiek ez dute kontratuaren xedea aldatu, obraren zuzendaritza kontratuei lotutako kontratuen berezko osagarritasun izaeratik sortu baitira; beraz, obraren kontratua

gauzatzearen ondorio direnez, kontratuarekin zerikusirik ez duten arrazoen eraginez sortutakoak dira.

## DIRU LAGUNTZAK

Atal honetan, HKEEak honakoa dio, besteak beste:

*Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 13an erabaki zuen zergadun batek aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioak onartzea, eta zergadun horri 164 mila euroko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortzea, Europako Komunitateen Justizia Auzitegiak 2005eko urriaren 6an emandako epaiaren ondorioz. Auzitegi horrek komunitateko zuzenbidearen aurkakotzat jo zituen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauak, erosketan jasandako zergaren kengarritasuna mugatzen baitzuten, erosketa hori diru laguntzen bitartez finantzatua zegoen kasuetan. Erreklamaturako kopuruak 1998 eta 1999ko ekitaldietakoak ziren, zergen arloan preskribituak zeuden ekitaldietakoak. Gainera, enpresak horiei buruz inolako erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, egoera finkatua zegoen ordurako.*

*Auzitegi Gorenak, 2008ko urtarrilean, aipaturako erreklamazio hori bezalako erreklamazio bati buruzko epaia eman zuen. Epaia horretan adierazten duenez, Justizia Auzitegiaren dotrinak epaia aplikatzeko aukera aurreikusten du barne zuzenbidearen arabera "agortu gabe" dauden eta erabaki gabe dauden egoera juridikoetan. Horrek baztertu egiten du finkatua dagoen eta beraz, berrikusi ezin den egoera batean, aipaturako epaia aplikatzeko aukera.*

### Alegazioa

- Aurrekariak
- Zergadunak, 1998 eta 1999ko ekitaldietan, une horretan indarrean zegoen 102/1992 Foru Arauak ezarritakori jarraituz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopentlikidazioetan ez zuen aplikatu jardueraren garapenean erabilitako baina Eusko Jaurlaritzatik jasotako kapital laguntzen bitartez finantzaturako ondasun eta zerbitzuen erosketan jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- Entitate horrek idatzi bat aurkeztu zuen 2004ko urtarrilaren 29an. Idatzi horretan, 1999ko ekitaldian BEZaren kontzeptupean jasandako kuotaren itzulketa eskatu zuen, garai hartan kopuru horren kenkaria egiteko aukerarik ez zuela izan argudiatuz. Idatzian zioen, halaber, Europako Komunitateen Justizia Auzitegian errekurtsioa jarria zeukala Batasuneko Zuzenbidea ez zelako bete (baina ordurako iraungita zegoen 1998ko ekitaldiari buruzko itzulketa bat eskatzeko eskubidea).
- Eskaturako itzulketa ukatu egin zitzaiola ikusita, berraztertzeko errekurtsioa jarri zuen; eta hori ere ezetsi zitzaionez, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen. Baina Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak erreklamazio hori ezetsi egin zuen





2005ean emandako ebazpenean. Eta zergadunak ez zuen ezespren erabaki horren aurkako errekurtsorik jarri Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

- Diputatuen Kontseiluak 2005eko azaroaren 6an erabaki zuen zergadun batek aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioak onartzea, eta zergadun horri 102/1992 mila euroko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortzea, Europako Komunitateen Justizia Auzitegiak 2006ko urriaren 24an emandako epaiaren ondorioz. Auzitegi horrek komunitateko zuzenbidearen aurkakotzat jo zituen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauak, erosketan jasandako zergaren kengarritasuna mugatzen baitzuten, erosketa hori diru laguntzen bitartez finantzatua zegoen kasuetan.
- Erabakia erabat deuseza aitortzeko prozedurari ekiteko eskaera ez zen tramitatzeko onartu; izan ere, 2007ko martxoaren 27ko ebazpenaren arabera, eskaera hori ez zegoen zergen foru arau orokorreko 224.1 artikuluan aipatutako deuseztatze-arrazoietako bat berean ere oinarritua. Zergadunak errekurtsio bat aurkeztu zuen, ebazpen horren aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, baina Auzitegi horrek aipatutako errekurtsioa bukatutzat eman zuen 2008ko urtarrilaren 8ko autoaren bitartez, errekurtsogilearen nahiak prozesuaz kanpo beteta zeudelako Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 13an emandako erabakiaren eraginez.
- Hain zuzen ere, Diputatuen Kontseiluak emandako erabaki horretan, onartu egin ziren entitateak aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioak, eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea aitortu zitzaion: 123.026,25 euro, 1998ko ekitaldiari dagokionez, eta 41.247,06 euro, 1999ko ekitaldiari dagokionez.

- 2008ko urtarrilaren 30eko epaia, eta horren aurrekoak.

Auzitegi Gorenak, 2008ko urtarrilaren 30eko epaian ezetsi egin zuen estatu legegilearen erantzukizuneko erreklamazioa, enpresa jakin batek eskatutakoa. Erreklamazio horretan adierazten denez, espainiar estatuak ez ditu bete Komunitateko Zuzenbidearen arabera dagozkion betekizunak; zehazki, Kontseiluaren 77/388/EEE Zuzentarauak, BEZ gaietako Seigarren Zuzentarauak, 17. artikuluko 2. eta 5. apartatuetan, eta 19. artikuluan ezarritako betekizunak. Eta ondorioz, zergadunari murriztu egin zaio jasotako diru laguntzetan jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kenkaria aplikatzeko aukera.

Epai horren aurretik, ordea, Auzitegi Gorenak epai gehiago emanak zituen estatu legegilearen jarduketak eragindako ondare erantzukizuneko kontzeptupean egindako kalte-ordain eskaerei erantzunez. Epai horiek, hain zuzen ere, jokoaren gaineko zerga osagarriari buruzko 5/1990 Legearen 38.2.2 artikulua (RCL 1990, 1337, 1628) konstituzioz kanpokoa dela aitortzearen ondorioz eman ziren. Epai horietan finkatutako dotrinaren arabera, konstituzioz kanpokotzat jo den egintza legegile batetik etorritako ondare erantzukizuneko egintza beti gauzatu daiteke, baita prozesua amaitua badago ere; izan ere, epaitutako gauzaren eraginkortasunak ez baitu eragozten egintza hori gauzatzea; gainera, aztertutako kasuan, egintza hori urtebeteko epean gauza daiteke, Europako Komunitateen Justizia Epaitegiak 2005eko urriaren 6an emandako epaia argitaratu zen egunetik aurrera.



Epai horietan, honakoak aipa ditzakegu, garrantzizkoenak diren partetik: 2000ko otsailaren 29ko epaia (RJ 2000, 2730), 2000ko ekainaren 13koa (RJ 2000, 5939), eta 2000ko uztailearen 15ekoa (RJ 2000, 7423).

Adibide gisa, 2000ko ekainaren 13ko epaian, Auzitegi Gorenak onartu egin zuen enpresari batek aurkeztutako errekurtsua. Kasu horretan, enpresariak, ordaindu zuen 5/1990 Legearen arabera ordaintzea zegokiona, baina aldez aurretik ez zuen errekurtsorik jarri, eskura zituen egintza judizialak erabiliz. Auzitegi Gorenak honakoa zioen gai horri buruz: “Bidezkoa litzateke, errekurtsogileek jasandako kaltea nozitzera behartuak daudela esatea, behar zen garaian autolikidazioen aurkako errekurtsorik jarri ez zutelako administrazio bidean. Tesi horri eutsiz, eragindako kaltea ez litzateke legez kontrakoa izango, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen Legearen 141.1. artikulua gaur egun adierazten duenaren arabera. Izan ere, artikulua horretan xedatutakoari jarraituz, herritarrei kalteak ordainduko zaizkie, bakar-bakarrik, legez kalte horiek jasan beharrik ez badute.

Areto honen iritziz, alabaina, legea konstituzioaren aurkakoa dela esanez, konstituzioari egokitutako egintza bat errekurritzea ezin da herritarrari exiji dakioken zamatzat jo, lege baten konstituzionaltasun ezaren ondorioak jasatetik salbuesteko xedez. Legeari, hain zuzen, konstituzionaltasun presuntzioa dagokio; ondorioz, lege horren babesean burututako egintza administratiboari ere legaltasun presuntzioa dagokio. .... Legeari kontrako interpretazio emateak, inpugnatzeko zama eragingo lieke konstituzioz kanpokotzat jo duten legearen eraginpeko herritarrei: auzitegiak konstituzionaltasun ezaren gaia planteatzeko aukera guztiak agortzeko, aipatutako legea aplikatuz emandako egintza guztiak, lehenik, administrazio bidean aurkatu beharko lituzkete (eta bide honetan ezinezkoa da konstituzionaltasun ezaren gaia planteatzea); eta gero, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko lukete, instantzia eta maila guztiak agortuz, hala behar izanez gero. Esandako nahikoa da legeari interpretazio hori ematetik ondorioztatuko liritekeen ondorioen zentzugabetasunaz ohartzeko. Izan ere, interpretazio horri eustea, neurritz kanpoko auzi-egoera baten eta beraz, egoera onartezin baten premia juridikoari eustearen pareko litzateke.

Gero, 2004ko urtarrilaren 29ko epaian, Auzitegi Gorenak jarrera kontraesankorra erakutsi zuen arestian aipatutako dotrina horri dagokionez, hau da, jokoaren gaineko zerga osagarriari dagokionez (eta jarrera hori bera erakutsi zuen 2005eko maiatzaren 24ko epaian ere).

Auzitegi Gorenak epai horretan dioenez “(...) ezin da gauza bera esan arau bat –kasu honetan 37/92 Legeko 111. artikulua– Europako legeriaren aurkakoa denean; izan ere, kontrakotasun hori espainiar auzitegietan azal daiteke zuzenean. Beraz, errekurtsogileak aukera osoa izan zuen likidazio-akta lehendabizi administrazio bidean aurkatzeko eta gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko. Eta, hala administrazioak nola jurisdikzioak, Batasuneko antolamendua aplikatu beharko zuketen zuzenean. Joko-tasaren zerga osagarriaren kasuetan normalean gertatzen ez den bezala, kasu honetan errekurtsogilea egintzaren titularra zen (sic) estatuko antolamenduaren eta estatuko auzitegiek zuzenean aplikatu beharreko Batasuneko antolamenduaren arteko kontraesana azaltzeagatik, baita



kontraesan hori espreski aipatu ez balu ere. Horrela bada, egintza irmo eta onartuaren dotrinak, segurtasun juridikoaren printzipioarekin batera, zerga osagarria behar ez den moduan ordaindu izanari buruz aipatutako epaietan ezarritakoaren kontrakoa justifikatzen dute kasu honetan, hau da, autoetako kasu honetan, epai haietan finkatutako dotrina ez aplikatzea. Era berean, kalte-ordainaren eskaera ezesten da; izan ere, Zerga Agentziak egindako adostasun akta aurkatu ez zuenez, sortutako kaltea jasatera behartua dago, aztergai dugun kasu honetan ez baita gertatu gorago aipatu ditugun epaietan gertatutako zirkunstantzia bera”.

- 2008ko urtarrilaren 30eko epaia

Epai horretan aztertutako kasuan, zergadunak, 1998 eta 1999ko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioak aurkeztu zituen; eta likidazio horietan ez zuen erabili diru laguntzen bidez finantzatutako inbertsioko ondasunen erosketan jasandako BEZaren kenkaria. Alabaina, ustiapenerako diru laguntzak jaso izanaren hainbanaketa erregela aplikatu zuen, eta gero ez zuen inolako erreklamaziorik jarri, ez egindako likidazioen aurka eta ez likidazio horien ondorioz egindako sarreraren aurka.

Auzitegi Gorenak, 2004ko urtarrilaren 29ko epaian eta 2005eko maiatzaren 24ko epaian erabilitako argudio juridikoei jarraituz, honakoa erabaki zuen: “... konpondu nahi den ondare-kaltea, egindako likidazioen ondorioz sortu zen, baina interesdunak likidazio horien aurka egin ez zuenez, erabaki irmo eta adostuak bilakatu ziren. Hori horrela, Justizia Auzitegiak 2005eko urriaren 5eko epaia eman zuenean, aipatutako egintza administratibotik etorritako egoera juridikoak ezin izan zuen desadostasunik edo berrikuspenik eragin; ... beraz, erreklamazioa ez da bideragarria, epai horretan Batasuneko Zuzentarauaren arabera aplikatutako zerga araua bateraezin aitortu izanean oinarritua baitago. Hau da, ondorioak hedatzea eta epaia, barne zuzenbidean finkatutako egoera bati aplikatzea izango litzateke, gorago aipatu dugun Justizia Auzitegiaren dotrinaren aurka. Eta, dotrina horrek, epaia aplikatzeko aukera aurreikusten du barne zuzenbidearen arabera “agortu gabe” dauden eta erabaki gabe dauden egoera juridikoetan. Eta horrek baztertu egiten du finkatua dagoen eta beraz, berrikusi ezin den egoera batean, aipatutako epaia aplikatzeko aukera.

- 2008ko urtarrilaren 30eko epaia aztertutako kasuan aplikatzea: entitateak egindako ondare erantzukizuneko erreklamazioa.

Entitateak aurkeztutako ondare erantzukizuneko eskaeraren kasu erabakigarria aztertuta, eta orain arte aztertu duguna aintzat hartuta, ondoriozta dezakegu hizpide dugun kasu hau ez dela Auzitegi Gorenak 2008ko urtarrilaren 30eko epaian aztertutako kasu bera.

Hain zuzen, entitatea ez zen ezer egin gabe geratu 1998 eta 1999ko ekitaldietako aitortpenetatik etorritako likidazioen emaitza ikusita; aitzitik, eragindako kalteak konpontzeko eskura zituen bidezko errekurtsioak eta eskaerak aurkeztu zituen, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia Batasuneko araudiari egokitua zegoen ala ez zalantzan zegoela jakin zuen bezain laster. Kasu honetan ezin dugu esan, hortaz, “legez kontrako” kaltea izan ez denik.



Gainerakoan, esan behar dugu, Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 13ko erabakia eman zuenean, Auzitegi Gorenak ez zuela inongo epairik emanik ondare erantzukizuneko eskaerari buruz; hau da, diru laguntzak jasotakoan zergadunak jasandako BEZaren kenkaria aplikatu ez izanari buruz. Eta, gorago aipatu dugun bezala, Auzitegi Gorenak dotrina kontraesankorra erabilia zuen aurreko epaietan.

Gainera, Auzitegi Gorenak, 2004ko urtarrilaren 29ko epaian eta 2005eko maiatzaren 24ko epaian emandako ezespren ebazpenak arrazoitzeko erabili zituen argudioak, luze eta zabal aurkatuak zituen dotrinak berak (esate baterako, Clemente Checa Gonzales)<sup>8</sup>.

*Diputatuen Kontseiluak zuzeneko 52 diru laguntza eman ditu, 13.876 mila euro guztira, publikotasun eta konkurrentzia printzipioak sustatzeko ezintasuna zegoela justifikatu gabe. Diru laguntza horien hobaridunak izan dira: 27 toki erakunde (9.276 mila euro), 8 enpresa (2.907 mila euro) eta irabazi asmorik gabeko 17 entitate (1.693 mila euro).*

#### Alegazioa

Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, zioen azalpenean adierazitakoaren arabera “diru laguntzak zuzenean emateko prozedura, III. kapituluan aurreikusitakoa, bakar-bakarrik foru arau honetako 20.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan erabili ahal izango da, betiere diru laguntzen berezitasuna, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa frogatzen duten arrazoiak egiaztatzen badira, edota deialdi publikoa egiteko eragozpena justifikatzen duten arrazoiak egiaztatzen badira”.

Bestetik, artikuluko 3.c) apartatuan ezarritakoaren arabera, diru laguntzak zuzenean eman daitezke “arrazoi publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioengatik ematen badira, edo behar bezala frogatuta badaude deialdi publikoa egitea eragozten duten bestelako arrazoiak”.

Horrela bada, diru laguntzak zuzenean ematea zuzenbidez egokia dela frogatzeko nahikoa da aipatutako arauan adierazita dagoen eta deialdi publikoa egitea eragozten duen arrazoiren bat eman dela egiaztatzea; edota, diru laguntzei buruzko lege orokorrak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, zioen azalpenean jasotakoaren arabera, deialdi publikoa ez egitea gomendatzen duen arrazoiren bat izatea (ez da ahaztu behar, diru laguntzei buruzko foru arauko 20. artikuluko 3.c) apartatuak, eta diru laguntzei buruzko lege orokorreko 22. artikuluko 2.c) apartatuak idazkera berbera dutela).

<sup>8</sup> Konpondu asmo den ondare-kaltea, gauzatutako likidazioen ondorioz gertatu zen; ordea, likidazio horiek ez zituen zergapekoak aurkatu, irmo eta onartuta geratu zirelarik, eta honenbestez, administrazioko jardueratik eratorritako egoera juridikoa ez zen auzi- edo ikuskaritza-gai Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 6ko epaia ebatzi zenean. Honek erreklamazioa bideraezina egiten du, izan ere, barne zuzenbidean kontsolidatutako egoera juridikoa baita, eta Justizia Auzitegiaren doktrinak epaia ezartzeko aukera aurreikusten baitu, betiere barne zuzenbidearen arabera egoera juridikoak “agortu gabe” badaude.



Egia da, aipatutako diru laguntza horietako askoren espedientean ez dela berariaz adierazi publikotasun eta konkurrentzia betekizunak betetzetik salbuetsiak daudela; baina hori, kasuan kasuko diru laguntzaren izaerak edo helburuak berak egiaztatzen du inplizituki. Izan ere, kasu askotan diruz laguntzen dena da entitate onuradunaren jardura espezifiko bat, edota entitate onuradunak eta ez beste inork planteatzen ditzakeen proiektu zehatzak.

- Donostiako Udala. Rolling Stones

Oso zaila izaten da mundu osoan lehen mailakoak diren ekitaldi horietakoak erakartzea lortzea. Jarrera aktiboa erakutsiz eta beste hainbat eta hainbat zirkunstantzia bateratuta bakarrik lor daiteke hori. Hori jakinda, eta ekitaldi horrek Donostiako hiriaren zein Gipuzkoako lurraldearen sustapenerako izan zezakeen ondorioa baloratuta, Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12ko bilkuran erabaki zuen Donostiako Udalaririk diru laguntza bat ematea, zuzenean, xede horretarako. Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen kasu honetan betetzen zirela Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 20.3.c) artikuluan ezarritako baldintzak, diru laguntza zuzenean emateko.

- Lurralde historikoko hamar udali emandako diru laguntzak, hiria eraberritzeko obren finantzaketan parte hartzearen.

Kontuan hartuta, horrelakoetan, hiria eraberritzeko xedez eta titularitate publikoko ondasunetan egiten diren obrak finantzatzeko eta gauzatzeko laguntzak direla, ondasun horiek herritarrek erabiltzeko izango direla, eta kasuan kasuko udalerriko biztanleen bizi kalitatea hobetzea dutela helburu, eta gainera, laguntzaren hobariduna herri administrazio bat dela, gure ustez behar beste egiaztatuak daude Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 20. artikuluko 3.c) apartatuan aipatutako interes publikoko arrazoiak, hau da, Foru Aldundiari horrelako esku-hartzeen finantzaketan zuzenean esku hartzeko aukera ematen dioten arrazoiak. Bestetik, esku-hartze hori, besteak beste administrazioen arteko harremanetan jarraitu beharreko printzipioaren barruan kokatu behar da, Toki Erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 55. eta 57. artikuluek ezarritakoari jarraituz, eta Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 4. artikuluko arabera.

Gainera, azken urte hauetan, hiria eraberritzeko obrak finantzatzeko xedez, lurralde historikoko udalerrietara bideratutako laguntzen deialdi publikoak egin badira ere, zenbaitetan diru laguntzak zuzenean emateko bideari heldu behar izaten zaio nahitaez; eta horretarako, lankidetzaren hitzarmena erabiltzen da. Gainera hitzarmen hori, legearen ikuspegitik baliabide zuzena izateaz aparte, kudeaketarako tresna baliozkoa izaten da; izan ere, kasu jakin batzuetan eta kasuan kasuko udalerriarekin elkarlanean, burutu beharreko esku-hartzearen helmen zehatza finkatzeko aukera ematen baitu.

Bestetik, kasu honetan eta beste hainbatetan, era horretako esku-hartzeak burutzeko lankidetzaren hitzarmena erabili badugu, figura hori lege onartua dagoelako izan da, besteak



beste. Aukera hori ematen du, batetik, Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko foru arauko 20. artikulua (3.c) apartatuak; eta bestetik, foru arau horretako 27. artikulua (1. apartatuak). Hauxe dio: “Hitzarmenak izango dira Gipuzkoako lurralde historikoaren aurrekontu orokorretan aurreikusita dauden diru laguntza izendunak eta foru arau honen 20. artikuluko 3.c) apartatuan aipatzen diren banakako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna”<sup>9</sup>.

- Elgetako eta Beizamako udalei emandako diru laguntzak, bidaiarien garraio zerbitzuak finantzatzeko.

Deba Garaiko eskualderako ezarritako bidaiarien garraio zerbitzu berriak 2006ko irailaren 1ean jarri ziren martxan, eskualde horretako Mugikortasun Planeko ondorioak gauzatzearren onartutako berrantolaketaren ondoren. Mugikortasun Plan hori, Deba Garaiko mankomunitateak, ukitutako udalerriek eta Foru Aldundiak eratu zuten elkarlanean.

Eskualdeko udalerrri batzuetarako, gutxieneko autobus zerbitzuak ezarri ziren, baina betiere, eskaintza hori taxi kolektiboaren bidezko zerbitzuez indartu behar zela pentsatuta, garraio mota horren ezaugarriak direla-eta, egokiagoa baita gaur egungo premiei erantzuteko.

Zehazki, Elgetari dagokionez, Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12ko bilkuran erabaki zuen udal horri 24.304,70 euroko diru laguntza ematea, eskaini beharreko garraio zerbitzuek eragindako defizita finantzatzeko, hau da, 2006ko irailaren 1etik 2007ko abuztuaren 31 arte, Elgeta eta Bergara artean autobus eta taxi kolektiboen bitartez eman beharreko garraioaren defizita finantzatzeko.

Beizamako udalari emandako laguntzak, 2007ko irailaren 1etik 2008ko abuztuaren 31 arte, herri hori eta Azpeitia arteko bidaiarien garraio zerbitzuak eragindako defizita finantzatzeko izan zuen helburu. Bada, laguntza hori buruz esan behar dugu, hasteko, ohiko garraio eskaintza zela udalerriko premiei erantzuteko. Eta horrela, Urola Erdialdeko eskualdearen mugikortasun azterlana bukatu bitartean, Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 27ko bilkuran erabaki zuen Beizamari diru laguntza ematea, 2005-2006 ikasturtean zehar Azpeitiarekiko lotunea erabakitzearen, Beizaman ezarritako zerbitzuen defizita finantzatzeko.

Gero, esperientzia horrek emaitza positiboa izan zuela ikusita, zerbitzu hori mantentzea proposatu zuen Udalak; eta hala, 2006-2007 ikasturterako zerbitzuak adostu ziren.

Hori horrela, Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 19ko bilkuran erabaki zuen Beizamako udalari zuzeneko diru laguntza ematea, 2007ko irailaren 1etik 2008ko abuztuaren 31 arte, herri hori eta Azpeitia arteko bidaiarien garraio zerbitzuak eragindako defizitaren % 70 finantzatzeko (hogeita mila bostehun eta berrogeita hamar euro gehienez – 20.550,00 euro–).

---

<sup>9</sup> Lurraldeko toki entitateetan egin beharreko obra guztiek interes publikoko izaera bat bera dute. Horregatik, deialdiak finka daitezke, erakunde guztiek finantzaketa honetarako irispidea izan dezaten.



Kontuan hartuta, kasu honetan laguntzen onuradunak bi herri administrazio izan direla, eta laguntza horiek, garraio erregularraren eskasia konpontzeko xedez eraturako bidaiarien garraio zerbitzu publikoak emateko erabiliko direla, gure ustez behar beste egiaztatutako daude Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 20. artikuluko 3. apartatuko c) letran aipaturako interes publikoko arrazoiak, hau da, Foru Aldundiari horrelako diru laguntzak zuzenean emateko aukera ahalbidetzen dioten arrazoiak<sup>10</sup>.

- Pasaiako Izotza SAri emandako diru laguntza.

Pasaiako badien jarduera ekonomikoa eta enpresa jarduera sustatzeko eta bultzatzeko, bidezkotzat jo genuen Pasaiako Izotza sozietateari zuzenean 396.000 euroko diru laguntza ematea, Pasaiako izotz fabrika birmoldatzeko eta egokitzeko lanetan 2005eko eta 2006ko ekitaldietan egindako inbertsioak finantzatzeko<sup>11</sup>.

- Autobuses Interurbanos SAri eta Eusko Trenbideak SAri emandako diru laguntzak

Autobuses Interurbanos SA sozietateari emandako laguntzak, Donostia eta Hondarribia arteko zuzeneko garraio zerbitzuarekin batera aireportuko zerbitzua ustiatzeak eragindako defizita finantzatzea izan zuen helburu. Eta, Eusko Trenbideak SA entitateari emandako diru laguntzaren helburua izan da, berriz, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamenduko foru diputatuak 2007ko martxoaren 13an emandako 258-T/2007 Foru Aginduaren bitartez onartutako Debarrenako bidaiarien errepidezko garraio zerbitzuen berrantolaketa finantzatzea.

Kasu batean zein bestean betetzen dira Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 20.3.c) artikuluan aipaturako interes publiko eta sozialeko arrazoiak; baina horrez gain, bidaiarien garraiorako linearen emakida duen enpresak bakarrik eman dezake zerbitzu hori; beraz, diru laguntza horiek nekez eman zitezkeen deialdi publikoaren bitartez<sup>12</sup>.

- Arantzazuko Frantziskotarren Komunitatea

Ukaezina da Arantzazuk bere osotasunean duen berezitasuna. Frantziskotarrek Arantzazun 500 urte bete zituztela ospatzearekin batera, Foru Aldundiak gune hori biziberritzeko lanetan esku hartzea erabaki zuen, ingurunearen aktibo historikoak, hala nola erlijio, kultura,

<sup>10</sup> Gogoan hartuta, aldia 2006ko irailetik 2007ko uztaila eta abuztura artekoa dela, nominatibo modura barne har liteke Batzar Nagusiek 2007ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan.

<sup>11</sup> Enpresa pribatu bati emandako diru-laguntza hau Batzar Nagusiek onetsi zuten 96 mila euroko zenbatekoarekin, Diputatuen Kontseiluak helburu bererako 300 mila euroko beste kopuru osagarri bat eman zuelarik; honek nabarmen eraldatzen du Batzar Nagusien borondatea.

<sup>12</sup> Diru-laguntza hauek deialdi publiko bitartez eman daitezke, bidaiarien garraio-kontzesionario guztientzat irizpide berberak ezarriz.



zein natur arloko balioak aintzat hartuta. Hala ulertu zuen Diputatuen Kontseiluak 2007ko maiatzaren 2ko bilkuran. Eta ondorioz, Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 20.3.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, diru laguntza bat eman zitzaion, biziberritze proiektua finantzatzeko <sup>13</sup>.

- Donostiako Orfeoia.

Diputatuen Kontseiluaren 2007ko ekainaren 12ko bilkuran garrantzi berezia eman zitzaion Donostiako Orfeoiak Gipuzkoako eta euskal abesbatza-kanturako duen erreferentzia ukaezinari; eta aldi berean, “txikien abesbatza-kantua bultzatzeko duen indar sustagarriari”. Sustatu beharreko jardueren interes publikoa aintzat hartuta, bada, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen kasu honetan betetzen zirela Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 20.3.c) artikuluan ezarritako baldintzak, diru laguntza zuzenean emateko.

- Madrilgo Real Congregación de Originarios de Vascos erakundeari emandako diru laguntza.

Diputatuen Kontseiluak 2007ko apirilaren 17ko bilkuran erabaki zuen erakunde horri diru laguntza ematea, Madrilgo San Inazio elizaren fatxada eta korua birgaitzeko obrek eragindako gastuaren zati bat finantzatzeko, 120.000 euro gehienez <sup>14</sup>.

Esku-hartze proiektuaren gastua 360.000 eurokoa zen; eta, Arabako zein Bizkaiko Aldundiek proiektu horretako obren finantzaketan laguntzea aurreikusi zen; hain zuzen ere, aipatutako aurrekontuaren heren banaren finantzaketa hartu zuten beren gain.

Baina proiektu horren berezitasuna ikusita, zaila zen foru laguntza hori diru laguntzen deialdi arruntaren bitartez bideratzea; izan ere, proiektuaren ezaugarri bereziek hala aginduta, tratamendu propioa eskatzen zuen, hau da, foru aldundien diru laguntzak emateko deialdi publikoen erregimen orokorrak kanpoko tratamendua. Hori horrela, gure ustez betetzen ziren Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 20.3.c) artikuluan ezarritako baldintzak, diru laguntza zuzenean emateko, entitate horrek egoitza Madrilen duenez, aparteko egintza puntual bat izan baitzen.

- Bertsozale Elkarteari eta Lanekiri emandako diru laguntzak.

---

<sup>13</sup> 2005eko aurrekontuan diru-laguntza nominatibo modura 600 mila euroko kopurua barne hartu zen; ekitaldi honetan, beraz, jarduera bera egin zatekeen edo GFak jarduera mota honetarako dituen diru-laguntza lerroetara makurtu.

<sup>14</sup> GFak berak alegatu duen legez, Kudeaketaren Alderdiak atalean beste bi aldundietako batek ez zuen ordaineketa egin. Bestalde, antzeko beste jarduera batzuk planteatu litezke eta honenbestez, egokiena aurrekontuan barne hartzea litzatekeela uste dugu, Batzar Nagusiek onartzeko.





Diru laguntza jaso behar zuten jarduerak oso bereziak dira, ezbairik gabe. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari emandako diru laguntzaren helburua zen Xenpelar dokumentazio zentroa garatzen eta digitalizatzen laguntzea, gune hori baita ahozko tradizioaren alorrean euskaraz dagoen dokumentazio artxibategi bakarra. Lanekiri emandako diru laguntzaren helburua izan zen, berriz, euskarazko Lanbide Heziketarako Materiala sortzea eta material hori herritar guztien eskura jartzea, internet bidez. Ez dugu ahaztu behar elkarte horrek Gipuzkoako lanbide heziketako zentro guztiak biltzen dituela, bai publikoak eta bai pribatuak, hain zuzen ere helburu horrekin sortu baitzen<sup>15</sup>.

*Diputatuen Kontseiluak, 2007ko maiatzaren 15ean, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak aldatu zituen, bidaiarien errepidezko garraio publikoko linea erregularren emakidadun diren 11 enpresekin, “Txartel Bakarra” ezarri behar zela-eta. Aldaketa horien eraginez, txarteleko sarrera finko batzuk bermatu ziren, 24.540 mila euro guztira. Baina ez zen egiaztatu konpentsazio hori soil-soilik enpresa emakidadunei eragindako kaltera mugatu zirenik, eta aurrez emakidadunaren arriskuan geratzen ziren etekinak bermatzeko ez zirenik; hau da, ez zen justifikatu, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 156. artikuluan aurreikusitako arrisku eta zoriaren printzipioaren arabera, emakidadunak bere gain hartu beharreko arriskua bermatzen ez zenik. Ildo honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 544 mila euro ordaindu ditu 2007. urtean.*

*Bestetik, ez da bete HAKPLTBak 101. artikuluan xedatutakoa, onartutako kontratuen aldaketak justifikatzeko espedienterik ez baita egin, ez eta alde aurretik egin beharreko txosten juridikoak eta fiskalizaziokoak ere.*

## Alegazioa

Diputatuen Kontseiluak, 2007ko maiatzaren 15ean erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren bidaiarien errepidezko garraio publikoko linea erregularren emakidadunekin adostutako zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak aldatzea. Aldaketa horren arrazoa izan zen foru titularitateko emakida guztietan “Txartel Bakarra” ezartzea, hau da, garraio tituluak emateko eta indargabetzeko sistema komun bat, monetika kudeatzeko eta autobus aldra kokatzeko sistema komun bat, eta konpentsazio gunea “Lurraldebus-Gunea” izango zituen “Txartel Bakarra” eratzea, alegia.

Azkenean, egutegi bat eratu zen; eta egutegi horretan, enpresa emakidadun bakoitzean “Txartel Bakarra” ezartzeko data zehaztu zen (2007ko ekainaren 4tik urriaren 1era). Aipatutako txartela ezartzeko egutegi hori enpresa guztietan bete zen, zerbitzua txartelak leihatilan salduz ustiatzen zuen enpresa batean izan ezik; izan ere, ustiapen hori kudeatzeko sistema informatikoa ezberdina denez, hasiera batean aurreikusitako denbora baino gehiago

<sup>15</sup> Gipuzkoako Batzar Nagusiek azken ekitaldian erakunde hauentzako diru-laguntza nominatiboak onesten dituzte. Diputatuen Kontseiluak nabarmen aldatu du Batzar Nagusiek onetsitako zenbatekoa, hau da, maila txikiagoko atal batek aldatu du zenbatekoa.



behar izan zuen txartel bakarria ezartzeko. Horregatik, zerbitzu horiek ez ziren “Txartel Bakarrean” txertatu 2008ko otsailaren 1era arte.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen aldaketa hori, legeak Administrazioari ematen dizkion ahalmenen babesean egin zen; besteak beste, honako arau hauen babesean: Lehorreko Garraioen Antolamenduari buruzko 16/1983 Legeak, uztailaren 30ekoak, 75.3 artikuluan xedatutakoa; Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina – HAKLTB– onartzen duen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 16koak, 101.1 eta 163. artikuluetan xedatutakoa; eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuak 126.2.a) eta 127.1.1.a) artikuluetan xedatutakoa. Eta aldaketa horren xedea izan zen, foru titularitateko emakida guztietan beharrezkotzat jotzen genuen “Txartel Bakarria” ezartzea.

Aipatutako xedapen horien arabera, emakida egiten duen Administrazioak ahalmen osoa du emakidadunek eskaintzen duten zerbitzuaren prestazioak edo ezaugarriak aldatzeko, betiere tartean interes publikoko arrazoiak badaude.

Indarrean dagoen antolamendu juridikoak emandako ahalmen horri esker, Administrazioak premia berrietara egokitu ditzake lehendik finkatuak dauden kontratuak, baldin eta egokitzapen horren arrazoia interes publikoa hobeto kudeatzea bada eta, betiere, gauzaren gainera helburuari lehentasuna ematen bazaio kontratu administratiboetan oro har, eta zerbitzu publikoen kudeaketan, bereziki.

Hala eta guztiz ere, “Txartel Bakarria” ordainketarako sistema komun gisa ezartzea, berez ez zen nahikoa garraio publikoaren erabileran antzemandako beheranzko joerari buelta emateko. Horretarako, aipatutako tresna horrekin batera, bidaiaren prezioa saritzera bideratutako tarifa-politika bat ere garatu beharra zegoen, batetik, zerbitzuaren erabiltzaileei hobari bat emateko, eta bestetik, erosotasunez edo ohituraz ibilgailu pribatuarekin jarraitzen zuten erabiltzaileak garraio publikora erakarri ahal izateko.

Hori horrela, Lehorreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeak 19. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoari jarraituz, hala nola HAKLTBak 163. artikuluan ezarritakoari eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoari jarraituz, emakidei zonaz zonako tarifak ezartzea eta bidaien prezioetan hobariak ezartzea erabaki zen; izan ere, aipatutako arau horien arabera, emakidadunek herritarrengandik jaso beharreko tarifak aldatzeko ahalmena baitu Administrazioak.

Hori horrela izanik ere, kontuan hartuta Administrazioak tarifetan esku hartzeak, eta “Txartel Bakarria” ezartzeak, berehalako eragina izango zuela enpresa emakidadunen sarreretan, enpresa horiei bermatu behar zitzaie, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren indarrez ustiatzen zituzten emakiden oreka ekonomikoa ez zela kaltetuko tarifak aldatzeagatik, edota “Txartel Bakarria” ezartzeagatik. Baina berme hori ziurtatzeko, bidezko prozedura konpentsatzaileak egituratu behar ziren.

Ildo horretan, gorago aipatu ditugun HAKLTBak 163. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduko 126.2.b) eta 127.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eta Lehorreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeak 75.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Administrazioak emakidaren oreka



ekonomiko eta finantzarioa mantendu behar du nahitaez, emakidaduna emakidan aldaketak egitera behartzen duenean.

Horrela bada, enpresei bermatu nahi izan genien, zerbitzu bera eskainita, txartel salmentaz lortuko zituzten sarrerak ez zirela, inolaz ere, azkeneko urteetan lortutako sarrerak baino gutxiago izango.

Bestetik, kontuan izanda neurri horiekin guztiekin lortu nahi zena, garraio publikora erabiltzaile berriak erakartzea zela, eta emakidadunen operadoreek ildo honetan egin beharreko ahalegina saritzearren, enpresa horiei prima bat ematea aurreikusi genuen, erreferentzia gisa hartutako urtean garraiatutako bidaiari kopuruarekin alderatuta, sistema berrian lortzen zuten bidaiari kopuruaren gorakadaren arabera.

Diputatuen Kontseiluak 2007ko maiatzaren 15ean onartu zuen erabaki hori; eta onarpen horri esker, aurreko legegaldi osoan landutako prozesu luze bat burutu ahal izan genuen, hau da, foru eskumeneko errepidezko bidaiarien garraio zerbitzuen irudi bakarra eskaini ahal izan genuen azkenean, LURRALDEBUS izeneko zerbitzua. Onarpen horri esker, halaber, kudeaketa eta ustiapen sistemak modernizatzeari ekin ahal izan genion, azken batean erabiltzailearentzako kostua merkatuz.

Dena den, onarpen erabaki hori eman aurretik, Lurzoru eta Garraioen diputatu nagusiak 2007ko martxoaren 15ean emandako 82/2007 ebazpenari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren bidaiarien errepidezko garraio publikoko linea erregularren enpresa emakidadunekin adostutako zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak aldatzeko prozedura jarri zen abian. Enpresa horiek alegazioen idatzi bar aurkeztu zuten, guztiek batera, 2007ko apirilaren 3an. Alegazio horiek, garai hartan Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua esaten zitzaion departamentuan aztertu ziren; eta hein batean aintzat hartu ziren, gainera, aipatutako Diputatuen Kontseiluaren erabakia idazterakoan<sup>16</sup>.

*Foru diputatu batek 279 mila euroko diru laguntza eman dio, zuzenean, irabazi asmorik gabeko entitate bati. Beraz, gainditu egin du araudiaren arabera foru diputatuek zuzenean eman lezaketen laguntzaren kopurua, hau da, 15 mila euro. Beraz, ez da bete Gipuzkoako lurralde historikokoaren 2007. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 9/2006 Foru Arauak 16.5 artikuluan ezarritakoa.*

#### Alegazioa

Zuzeneko laguntza hori emateko foru agindua Diputatuen Kontseiluak 2008ko azaroaren 25eko bilkuran emandako erabakian baliozkotu zen. Horrela bada, akatsa zuzendu da.

---

<sup>16</sup> Alegazioari dagokion testuan, ez zaie HKEEK azaleratutako legezkotasunaren ez-betetzeei erantzuten.



*Gipuzkoako Foru Aldundiak udal ondasunetan obrak egitea onartu du, guztira 237 mila euroko kostua duten obrak. Beraz, diru laguntza bat zuzenean eman du, publikotasun eta konkurrentzia printzipioak aplikatzeko ezintasuna justifikatu gabe.*

### Alegazioa

Obra horren inguruan zehaztaperen batzuk egin behar dira. Hasteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat egintza burutzen dihardu, azken urte hauetan, hiri espazioak eraberritzeko eta berreskuratzeko xedez, horrela Gipuzkoako udaletako herritarrek zerbitzu berriak izan ditzaten.

Hori horrela, Gipuzkoako lurralde historikoko hainbat udalerritako hiri espazioen hirigintza degradazioari aurre egin dio; eta horrez gain, udal titularitateko azpiegitura, espazio libre, aisialdirako gune eta ekipamenduen sorrera bultzatu du, eremu horietako jarduketa proiektuak finantzatzera bideratutako diru laguntzen deialdi publikoak eginez.

Askotan, xede horretarako, beste erakunde eta entitate publikoekin lankidetzak hitzarmenak egin ditu, diru laguntzak erregulatzen dituen araudian aurreikusitakoaren babesean.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari horrelako jarduketetan zuzenean esku hartzeko aukera ematen dio Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko foru arauko 20. artikulua 3.c) apartatuak. Bestetik, esku-hartze hori, besteak beste administrazioen arteko harremanetan jarraitu beharreko printzipioaren barruan kokatu behar da, Toki Erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 55. eta 57. artikuluek ezarritakoari jarraituz, eta Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 4. artikulua xedatutakoaren arabera.

Kontuan hartuta, kasu honetan obren onuradunak bi herri administrazio izango direla, obra horiek udal jabari publikoko ondasunetan egingo direla, eta obra horiek jendearen erabilerarako izango direla, udalerriko biztanleen bizi kalitatea hobetzea izango dutelako helburu, gure ustez behar beste egiaztatuak daude Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko foru arauko aipatutako artikuluan aipatutako interes publikoko arrazoiak, hau da, laguntzak zuzenean emateko aukera ahalbidetzen duten arrazoiak<sup>17</sup>.

*2007ko ekitaldian 800 mila euroko diru laguntza eman zaio enpresa pribatu bati, 8 autobus erosteko. Diru laguntza hori arautzen duen foru dekretuaren arabera, laguntza horiek bateraezinak dira xede bereko beste laguntzekin, edota xede bera aurreikusi zaien beste laguntzekin. Eta, edozein kasutan ere, gastuaren % 55aren finantzaketa ezartzen du gehienez. Baina 2006ko ekitaldian 672 mila euroko diru*

<sup>17</sup> Lurralde Historikoaren toki entitateetan egin beharreko obra guztiek interes publikoko izaera bat bera izango dute. Kasu honetan, gainera, ez dago zuzeneko emakida justifikatuko duen Batzar Nagusien inongo berariazkotasun edo agindurik.



*laguntza eman zen zuzenean, inbertsio berbererako; azkenean, beraz, % 99,24 finantzatu da, eta horrela, aipatutako dekretuan bateraezintasuna eta finantzaketaren portzentajea arautzen duten artikuluetan ezarritakoa urratu da.*

#### Alegazioa

Diru laguntza hau arautzen duen foru dekretua 2006ko maiatzaren 9ko 25/2006 Foru Dekretua da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren bidaiarien garraio publikoko linea erregularretan zerbitzua ematen duten autobusak berritzeko eta modernizatzeko laguntzak emateko programaren oinarri erregulatzailleak onartzen dituena. Foru dekretu hori, gero, 2007ko martxoaren 6ko 14/2007 Foru Dekretuak aldatu zuen.

Aipatutako oinarri erregulatzaille horiek ez dute esaten laguntzak xede edo helburu bereko beste laguntzekin bateraezinak direnik, beste entitateek emandako laguntzekin baizik. Beraz, hizpide dugun laguntza hau ez da sartzen foru arauak aipatutako bateraezintasun kasuetan, bi laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak berak eman baititu.

Zehazki, hauxe dio foru arau horretako seigarren oinarri erregulatzailleak: “oinarri hauetan araututako diru laguntzak ez dira bateragarriak izango estatuko edo nazioarteko beste herri administrazio batzuek nahiz beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru laguntzekin, xede berdina badute edo helburu berarekin ematekoak badira”<sup>18</sup>.

*Garapenerako kooperaziorako diru laguntzak direla-eta (7/2006 Foru Dekretua, I. eranskina), 31 entitateri laguntzak eman zitzaizkien, 3.272 mila euro orotara, baina entitate bati laguntza ukatu egin zitzaion, gutxieneko puntu kopurua betetzen zuen arren. Alabaina, puntuazio berbera zuten gainerako entitateei laguntza onartu egin zitzaion, batzuk hautatzeko eta beste bat ukatzeko arrazoiak justifikatu gabe. Gauza bera gertatu da nekazaritzako ustategietan egin beharreko inbertsioetarako emandako laguntzekin ere (80/2004 Foru Dekretua). Kasu honetan, 101 entitateri laguntzak eman zitzaizkien, 3.108 mila euro orotara, baina 20 entitateri laguntza ukatu egin zitzaion, gutxieneko puntu kopurua betetzen zuten arren. Alabaina, egoera berean zeuden beste 10 entitateri laguntza onartu egin zitzaion, proiektu batzuk hautatzeko eta besteak ezesteko arrazoiak justifikatu gabe.*

#### Alegazioa

Garapenerako kooperaziorako diru laguntzak direla-eta (7/2006 Foru Dekretua, I. eranskina), hauxe zioen, besteak beste, Balorzio Batzordeak 2007ko ekainaren 26an

---

<sup>18</sup> Laguntzen emakida arautzen duen Dekretuak erakunde publiko edo pribatu, nazional edo nazioartekoan aldetik finantzaketarako ehuneko gehienekoa % 55ean finkatzen du. GFA berriaz aipatzen ez bada ere, bistakoa da erakunde publikoen artean barne hartua dagoela. Gainera, dekretu honetara biltzeko beharrezkoa da autobusak matrikulazio berriko beste batzuekin ordezkatzea eta autobus hauek 2006 eta 2007ko diru-laguntzekin finantzatu dira.

emandako ebazpen proposamenak: “Jasotako eskaera guztiak oinarri erregulatzaila ezarritako irizpideei jarraituz baloratu dira, baina aurrekontuek eskaera guztiak finantzatzeko aukerarik ematen ez dutenez, bakoitzak lortutako puntuazioa gehienetik gutxienera antola daitezke; horrela, gutxienerako puntuazio bat ezarri da, eta puntuazio horretara iristen ez diren eskaerak ez dute diru laguntzarik jasoko. 1. eranskinetako eskaeren balorazioen eskalan, bost entitatek Ropka, Manos Unidas, Lankide, ADT eta Euskadi Cuba entitateek puntuazio bera lortu dute, 58 puntu, gutxienerako puntuazioa, hain zuzen ere. I eranskinetako 3 apartatuko 3.3 puntuan aurreikusitako murrizketa aukerak, aipatutako bost proiektuetatik lau laguntzea ahalbidetzen du, baina bat baztertuta nahitaez. Hori horrela, Balorazio Batzorde honek erabaki du, gertatu den berdintasun egoera hau gainditu ahal izateko, irizpide bat ezartzea, deialdiaren helburua eta ildo orokorrak aldatuko ez diren moduan. Eta irizpide hori izan da, 2007ko ekitaldi honetako deialdian aurkeztutako eskaerak, aurreko urteetan diru laguntzak jasotako ekimenei jarraipena emango dieten ekimenak izatea. Irizpide horri jarraituz, Euskadi Cuba eskaera baztertu eta gainerako eskaerak onartu egin ditugu”.

Beraz, izan da arrazoirik eskaera batzuk onartu eta bat baztertzeko.

Nekazaritzako ustiatagietan inbertitzeko diru laguntzei dagokienez, berriz, eskaerei zegokien puntuazioa aipatutako foru dekretuan ezarritako irizpideen arabera erabaki ondoren, puntuazio berdinketa gertatu zen, 2004ko irailaren 14ko 80/2004 Foru Dekretuko 12. artikuluan aurreikusitako laguntzen espedienteak baloratzeko batzordeak egindako bileraren aktan ikus daitekeen moduan. Baina laguntzak emateko oinarri erregulatzaila ez da aurreikusi horrelako kasuetan jarraitu beharreko irizpidea; alabaina, geratzen zen kreditu soberakina aipatutako eskaerei esleitu beharra zegoen. Hori horrela, Balorazio Batzordeak erabaki zuen honako irizpide hauek ezartzea:

“... lehen-lehenik, nekazaritzako ekoizpenari lotutako inbertsioak lehenestea, landalurreko etxebizitzarako inbertsioen gaitetik. Produktorako inbertsio horietan, oraingoz behintzat, hegazti eta untxi produktora bideratutako espedientei emango zaie lehentasuna; eta hurren, baratze, lore eta fruta produktora bideratutako inbertsioetarako eskaerei. Hirugarren lekuan, azkeneko bost ekitaldietan (2002-2206) laguntzarik jaso ez duten ustiatagien proiektuei emango zaie lehentasuna. Aipatutako irizpide horietako bakoitzean, lehentasunezko hurrenkera bat ezarri da, onartutako aurrekontu handiena dutenetik hasi eta onartutako inbertsio txikiagoa dutenera”.

Beraz, kasu honetan ere izan da arrazoirik eskaera batzuk onartu eta beste batzuk ezesteko. Ez batean ez bestean, ez da gertatu HKEEaren txostenean aipatzen den legea ez betetzerik<sup>19</sup>.

---

<sup>19</sup> Aurrekontua izatea edo ez, ez daiteke oinarri-arauak beste batzuek duten puntuaketa berberarekin betetzen dituzten proiektuak saihesteko argudio izan. Gainera, kanpoan uzteko zeinahi irizpidek oinarri-arauetan jasoa egon behar du.



## ONDAREA

Txosteneko apartatu honi dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hainbat gai aipatu ditu garraio enpresa bati Hernaniko udalerrian dauden lau finka erosi izanaz, finka horien trukean Zubietako Garraio Guneko b.100/1 lursaila emanez. Bada, horri buruz esan behar dugu, hasteko, Foru Aldundi honek, garraio jarduerak sortzen dituen premiei aurre egiteko berariazko azpiegitura lagungarrien gabezia nabarmenez oharturik, eta garraio gaietan dagozkion ahalmenak erabiliz, garraio gune bat sustatu zuela Zubietan, hau da, aipatutako gabezia konpontzeko aukera emango zuten instalazio batzuek hornitutako gunea.

Zubietako Garraio Gunearen lurralde esparrua “Donostiako Plan Orokorren aldaketa, ZU.05 HEA, Zubietako Garraio Gunea, alderdiari buruzkoa” dokumentuan zehaztu zen. Diputatuen Kontseiluak 2001eko uztailaren 3an onartu zuen Aldaketa hori. Eta dokumentu horretan, desjabetze sistemaz kudeatu beharreko lurzoru hiritargarri gisa kalifikatu zen aipatutako esparrua.

Donostiako udal barrutian dagoen 164.164 m<sup>2</sup>-ko eremua da. Zehazki, Zubietan dago, N-I errepidearen mendebaldeko ertzaren ondoan, eta errepide horretatik zuzeneko sarbidea du, Lasarte Hegoaldea izeneko lotunetik. Eremu honetan, 162.042 m<sup>2</sup>-ko azalera duen ZU.05.1 izeneko gauzatze unitatea desjabetu egin zen. Gainerako saila, 2.122 m<sup>2</sup>-ko azalera du, honakoek osatzen dute: E.110 zona, autobidea, autobiak eta errepideak (sistema orokorra).

ZU.05 HEA area garatzeko Plan Partzialak, 2001eko abenduaren 18an jaso zuen Donostiako Udalaren onepena.

Diputatuen Kontseiluak 2002ko azaroaren 26ko bilkuran erabaki zuen “ZU.05.1 gauzatze unitatearen, Zubietako Garraio Gunea, Hiritartze Proiektuan” jasotako obrak egiteko kontratua Construcciones Moyua SA enpresari esleitzea, 8.206.817 euroko prezioan.

Gero, 2004ko urriaren 19an, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen “ZU.05.1 gauzatze unitatearen, Zubietako Garraio Gunea, Hiritartze Proiektuaren Proiektu Eraberritua” onartzea. Eraberritze horrek 1.503.658,63 euroko aurrekontu gehigarria ekarri zuen; eta horrela, kontratuaren prezio berria 9.710.475,63 eurotan finkatu zen.

Hiritartze lanak bukatu, eta obra horiek jaso ondoren, Diputatuen Kontseiluak 2005eko abenduaren 13ko bilkuran erabaki zuen aipatutako proiektuko obrak likidatzea; eta beraz, 9.950.470,74 euro ordaintzea.

Bestetik, Diputatuen Kontseiluak 2003ko martxoaren 11ko bilkuran erabaki zuen “GI-131 errepidearen Donostia-Hernani Saihesbidearen Trazatu Proiektuaren Proiektu Eraberritua” onartzea. Baina proiektu honek, hein batean ukitu egin zuen errepideko merkantzien garraioa egiten duen enpresa baten jabetzako lursail bat. Lursail horretan, zabalune bat eta garraio jarduerako erabiltzen zuen eraikina zituen; eta proiektuak nabarmen kaltetzen zuen enpresa horren funtzionaltasuna.

Aipatutako proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak nahitaezko desjabetze bidez eskuratzeko espediente tramitazio bidean jarri ondoren, eta hain zuzen ere desjabetze espediente horretan adierazitakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta garraio enpresak bidezko zat jo zuten, lehen-lehenik, proiektuaren afekzio hori aipatutako



enpresaren finka osora zabaltzea; eta bestetik, finka hori Foru Aldundiari eskualdatzea, honen trukean garraioari lotutako industri erabilerako lursail bat emanaz, garatu beharreko ZU.05 HEA, Zubietako Garraio Gunea, alderdian.

Zehazki, egokitzat jo zuten, truke horren ondorioz, errepideko merkantzien garraioari lotutako sail industrial bat aipatutako enpresari eskualdatzea; zehazki, Zubietako Garraio Guneako Plan Partzialean b.100/1 izenaz mugatutako 38.034 m<sup>2</sup>-ko lurzattia, jabari eta erabilera pribatukoa.

Kontuan hartu behar da, oso korapilatsua zela aipatutako garraio enpresaren jabetzako finka nahitaezko desjabetze sistemaren bidez eskuratzea, merkataritza jarduerari lotutako pabilioia baitzen. Beraz, trukatzeko formula erabiltzeari buruz bi aldeen artean lortutako adostasunari esker, nabarmen erraztu zen Hernaniko saihesbidearen proiektuko obrak egiteko beharrezkoak ziren lursailak lortzeko aukera.

Trukatu beharreko lursaila erabat hiritartua eman behar zitzaion interesdunari, aipatutako ZU.05 HEA alderdiaren Hiritartze Proiektuan ezarritakoaren arabera hiritartu ondoren, alegia. Oro har esan liteke, lursail hori hiritartu ondoren entregatu behar zela, eta zabalunearen gaina oinarriko sestra arte eginarekin, hau da, zoladura bakarrik falta zuela.

Adostutakoaren arabera, lursail horrek enpresaren esku geratu behar zuen, eraginkortasunez, 2004. urteko lehen hiruhilekoan; baina betiere, 05. HEA alderdiko hiritartze lanak, trukaturako lursaila garatzeko eta eraikitzeko lanekin batera gauzatu ahal izango ziren moduan.

Trukearen eskritura publikoa eman aurretik, ordea, Foru Aldundiak Zubietako Garraio Guneako lursailak bere izenean izan behar zituen Jabetza Erregistroan. Hori eginda gero, desjabetze espedienteen tramitazioak legez uzten zuen momentuan egingo zen eskritura hori.

Beraz, aipatutakoa egin arte trukea formalizatzeko aukerarik ez zegoenez, bi aldeek erabaki zuten bata besteari jabetzako finkak aurretiaz okupatzea. Horrela, garraio enpresak Hernanin zituen lursailak berehala utzi ahal izan zituen; eta ondorioz, gorago adierazi dugun moduan, nabarmen erraztu zen Hernaniko saihesbidearen proiektuko obrak egiteko beharrezkoak ziren lursailak erabili ahal izateko aukera.

Hala eta guztiz ere, Urumeako Autobiak ukitutako finka, dimentsio eta izaera ezberdineko finka zen, eraikia baitzegoen. Hori horrela, bidezko konpentsazio ekonomikoak arautu behar izan genituen.

Urumeako Autobiak ukitutako finkak 5.868 m<sup>2</sup> inguruko azalera zuen. Bertako pabilioiak 1.700 m<sup>2</sup> inguruko azalera hartzen zuen, solairu batez hornitua, eta horrez gain, maniobrarako zabalune bat zituen. Hiritartutako finka hori, Hernaniko Hiri Antolaketa Arauetan SU-25.2 area gisa mugatutako eremua zen, industri erabilerako lurzoruan 3.300 m<sup>2</sup>-ko azalera zuena. Eta, Arau horietan jasotako ordenantzek, egungo eraikuntza finkatzea agintzen zuten. Katastroko datuen arabera, finka horrek hirilurren katastroko 3958003 eta 3958004 lurzatiak hartzen zituen, 2.561 m<sup>2</sup>-ko azalera bien artean. Gainerako saila, berriz, landalurra zen.





Ondasun higiezinak, lurzorua eta eraikina, 1.800.000 eurotan baloratu ziren desjabetzearen ondorioetarako. Eta balorazio hori egiterakoan, aintzat hartu ziren merkatuko baloreak, eraikinaren egoera, hiritartze maila, eta abar.

Zubietako b.100/1 lursaila baloratzeko, berriz, antzeko lursail bat garraioaren alorreko enpresarien artean lehiaketa publikoaren bitartez saltzeko finkatutako lizitazio prezioa hartu zen oinarritzat; zehazki, b.100/2 lursailaren salmentan erabilitakoa, nahiz eta lursail hau txikiagoa den. Lehiaketa horren oinarrietan, zabalunearen azalerako metro karratuaren prezio finkoa ezarri zen: 182,71 euro gehi BEZ,

Beraz, b.100/1 lursailari 4.331.232,34 euroko prezioa ezarri zitzaion, BEZ sartu gabe.

Horrela bada, trukearen balantze ekonomikoa honela geratu zen: 2.531.232,34 euro Foru Aldundi honen alde.

Adierazitako guztia espedientean jasota dago, Lurzoruaren Kudeaketarako zerbitzuburuak 2007ko martxoaren 26an egindako txostenean, hain zuzen. Beraz, ezin gara bat etorri Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin duen baieztapenarekin, esanez espedientean ez dela ageri trukatu beharreko finen balorazioa, Gipuzkoako lurralde historikoko Ondareari buruzko 8/1996 Foru Arauak, uztailaren 9koak, 48. artikuluan aipatzen duena.

Gero, garraio enpresak, bere kontura gauzatu zituen Zubietako Garraio Gunean jasotako lursailleko hiritartze lanak, 645.000 euroko gastuari aurre eginez, BEZ sartu gabe. Baina bi aldeek adostu zuten hiritartze lan horien kostua erdi bana ordaintzea, garraio enpresak erabat hiritartua jaso behar baitzuen lursail hori. Hori horrela, erabaki zuten obra horien zati bat Foru Aldundiak gauzatu beharrekoak zirela, ZU.05.1 gauzatze unitatearen, Zubietako Garraio Gunea, Hiritartze Proiektuan” jasotako obrak egiterakoan. Horrela bada, azkenean 4.008.732,34 eurotan erabaki zen b.100/1 lursailaren eskualdaketa balioa; eta horrela, 2.208.732,34 euroko aldea ondorioztatu zen Foru Aldundi honen alde.

Gauzak horrela, puntu bat argitu beharrean gaude. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dio Gipuzkoako Foru Aldundiak hiritartze obra osagarrien kostuaren % 50 bere gain hartzeko erabakia ez zuela alde aurretik Foru Aldundiko organoren batek onartu. Bada, baieztapen horren aurrean esan behar dugu hiritartze gastuen % 50 Aldundiak bere gain hartzeko erabaki hori Diputatuen Kontseiluak onartu zuela 2007ko maiatzaren 15eko bilkuran, hau da, Gipuzkoako lurralde historikoko Erakunde Antolakuntza, Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, ezarritakoaren arabera, erabaki hori emateko eskuduntza duen organo bakarrak, hain zuzen ere<sup>20</sup>.

Aipatutako lursailaren erosketa kostua, azkenean 3.995.024,21 eurokoa izan zen, Zubietako Garraio Gunea hiritartzearen kostua likidatu ondoren, eta hiritartze gastuak Foru Aldundiari esleitutako lurzatien artean banatu ostean. Horrela bada, aurreikusitako truke horren ondorioz, Foru Aldundi honek ez zukeen inolako ondare galerarik jasango, ez eta arestian aipatutako lursailaren hiritartze gastuen gainkostuaren % 50 bere gain hartuta ere.

<sup>20</sup> HKEEren txostenean baitetsi den moduan, trukaketa kontratuak ez zuen urbanizazio obrei buruzko inongo gasturik bere gain hartzea aurreikusten, horregatik esaten da GFAREN inongo atalek ez dituela gastu hauek alde aurretik onetsi.



Dena den, espedientean jasota daude, besteak beste, honako txosten hauek:

- Lurzorua Kudeatzeko zerbitzuburuaren txostena, 2007ko martxoaren 26koa.
- Ondare eta Arkitektura Zerbitzuaren memoria, 2007ko martxoaren 28koa.
- Garai hartan Lurraldearen Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua esaten zitzaion saileko idazkari teknikoaren txostenak, 2007ko martxoaren 29koa bat, eta 2007ko apirilaren 20koa bestea.

Orain arte adierazitakoa ikusita, hau da, aipatutako txostenen edukia aztertuta eta Diputatuen Kontseiluak 2007ko maiatzaren 15eko bilkuran emandako erabakiaren azalpenak begiratuta ondoriozta daitekeenez, truke hori erabat justifikatua zegoen.

Azkenik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dio organo eskuduna ez dela Garraio eta Plangintzako zuzendari nagusia. Bada, baieztapen horri buruz argitu behar dugu Gipuzkoako lurralde historikoko Ondareari buruzko 8/1996 Foru Arauak, uztailaren 9koak, 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokiola erabaki hori emateko eskumena. Eta horregatik, hain zuzen ere, gai hau organo horren irizpenera jarri zen; eta organo horrek, 2007ko maiatzaren 15eko bilkuran onartu zuen aipatutako erabakia<sup>21</sup>.

b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru higiezin eskuratu ditu Gipuzkoako lurralde historikoko Ondareari buruzko 8/1996 Foru Arauak, 38. artikuluan aurreikusitako deialdi publikoa egin gabe, eta prozedura negoziatura jotzeko bide eman zezaketen zirkunstantziak egiaztatu gabe.

Higiezin horiek salerosketaren bidez eskuratu zituen Foru Aldundiak. Horietatik bi, adin txikikoen harrera egoitzarako etxebizitzak izan ziren, Errenteriako eta Beasaingo udalerrietan, zehazki. Eta hirugarren eragiketa, berriz, Azkoitiko Insausti arean dagoen eta jabetza banatu gabea duen orube baten % 50eko partaidetza eskuratzea izan zen.

Adin txikikoen harrera egoitzarako etxebizitzari dagokienez, hasteko esan behar dugu, azken urte hauetan arazo larria eragin duela bidaidetik gabeko atzerritar adingabeen etorrerak, hau da, atzerritarrak diren eta beren ingurunean erreferentziako pertsona heldurik ez duten adingabeen etorrerak, haurrak babesteko aurreikusitako sistemaren gaitasuna gainditu egin baita. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2008ko otsailaren 1ean, era honetako 164 adingabe hartu zituen fase ezberdinetan. Duela 3 urte, zifra horren heren bati erantzun beharko geniokeen; eta duela hamar urte, berriz, ia-ia ez zegoen horrelako kasurik. Garbi dago, beraz, haurren babesgabetasun egoera berri bat sortu dela, etengabe eta nabarmen hazten ari dena, Gipuzkoako lurraldean martxan dagoen egoitza harrerako sarearen ahalmena gainditzen duen egoera.

Gaszte hauek, magrehtar jatorriko gizonezko nerabeak gehienak, berariazko ezaugarriak dituzte (kultur arloan, erregulazio administratiboaren arloan, edota babesgabezia adierazteko eran). Eta berariazko ezaugarri horiek erantzun berezia eskatzen dute gizartean

<sup>21</sup> Alegazioari dagokion testuan, ez zaie HKEEK azaleratutako legezkotasunaren ez-betetzeei erantzuten.

zein lan munduan ahalik eta hobekien txerta daitezen, eta gipuzkoar gizartean erabat integra daitezen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, pertsona horien harrera lanak egiteko eskura zituen higiezinak ez zirela nahikoak ikusita, harrera sarea hedatzeari ekin zion 2006. urtean. Hori horrela, baliabideak anizteaz gain, beharrezkotzat jo zuen adin txikiko horien ezaugarri soziokultural eta pertsonalei egokitutako ibilbide bat ezartzea.

Zehazki, Gizarte Politikarako Departamentuak higiezin bereziak behar ditu, gizarte eta hezkuntza mailan esku hartze egokia burutzeko aukera bermatzeaz gain, adin txikikoen premiei erantzuteko ahalmena duten higiezinak.

Gipuzkoako lurralde historikoko Ondareari buruzko 8/1996 Foru Arauak, uztailaren 9koak, honakoa dio 38. artikuluan, ondasun higiezinak eskuratzeko sistema arautuz:

“1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko foru entitate publikoek beren helburuetarako behar dituzten ondasun higiezinak diru-truke eskuratzeko, Diputatuen Kontseiluan erabakiko da ondare gaietan eskumena duen Departamentuko foru diputatuak proposatu eta gero.

2.- Eskurapena lehiaketa publikoaren bitartez egingo da. Dena den, Diputatuen Kontseiluak lehiaketa baztertu dezake eta prozedura negoziatua erabili hurrengo egoera hauetakoren bat, espedientean arrazoitu eta kreditatu beharko dena, gertatzen bada:

- a) Eskurapena premia handikoa dela agerian egotea.
- b) Eskuratu nahi den ondasunak edo erantzun beharreko premiak berezitasun bat edukitzea.
- c) Higiezinaren merkatuan eskaintza gutxi egotea.

3.- Aurreko apartatuan adierazi diren suposamendu guztietan, ahal dela, hiru eskaintza eskatuko dira gutxienez.”

Kasu honetan, planteatutako eragiketen izaera kontuan hartuta, hau da, oinarrizko harrera programaren barruan adin txikikoen egoitza gunerako etxebizitzak eskuratu behar zirela kontuan hartuta, gure iritziz bete dira aipatutako b) apartatuan adierazitako zirkunstantziak, lehiaketaren prozedura alde batera utzi eta prozedura negoziatuari heltzeko aukera ematen dutenak.

Eta aukera horri heltzeko bidea ematen duten bi arrazoi gertatu dira funtsean: batetik, harrera gunera bideratu beharreko higiezinak ezaugarri espezifiko batzuk bete behar dituzte bai kokagune, ingurune eta eraikuntzazko elementuei dagokienez, baita baldintza tekniko, material eta funtzionalei dagokienez ere. Izan ere, babes gabezia dauden haur eta nerabeak egoitza batean hartzeko baliabideek bete beharreko ezaugarriak direla-eta, merkatuan gaur egun egon litekeen etxebizitza eskaintzarik gehiena baztertu beharra dago, xede honetako. Bestetik, adin txikikoen gune hauek begien bistako egonezina eragiten dute gizartearengan; herritarrek ez dute nahi auzoan zerbitzu hauek emateko etxebizitzak ezartzerik.



Gorabehera horiek guztiak kontuan hartuta, prozedura negoziatuaren aukerari heltzea erabaki genuen; gainera, bi etxebizitza horiez aparte, beste batzuek ere aztertu genituen, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere txostenean adierazten duen moduan<sup>22</sup>.

Bestetik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dio Errenteriako etxebizitza eskuratzeko 978.000 euroko prezioa ordaindu zela, hau da, tasazio balioa baino 46 mila euro gehiago.

Kasu honetan, era bateko eta besteko zirkunstantziak aintzat hartuta, Foru Aldundi honek iritzi zion alde hori bere gain har zezakeela. Batetik, ez da ahaztu behar salerosketaren prezioa zehazterakoan, perituek egindako tasazioaren emaitzaz aparte, saltzailearen borondatea ere aintzat hartu behar dela. Bestetik, garbi dago etxea aipatutako xedera bideratzeak, hau da, harrera gunerako izateak, erabilera baldintza oso bereziak ekartzen dituela berarekin, eta horrek nabarmen murrizten du higiezinaren merkaturaren era honetako etxebizitzaren salmentarako eskaintza. Hori guztia aintzat hartuta, Gizarte Politikarako Departamentuak pentsatu zuen kasu honetan higiezina bete-betean egokitzen zela higiezin horrek hartu beharreko zerbitzu publikoaren premietara.

c) Azkoitiko Insausti arean dagoen, eta jabetza banatu gabea duen, orube baten % 50eko partaidetza erosteari buruz esan behar dugu erosketari hori lurzorua sustatzeko politikaren barruan egin genuela. Hau da, aurreko legealdiko Lurralde Antolaketa eta Sustapeneko Departamentuak bultzaturikoa jarraitzeko egin zen, jarduera ekonomikoak bultzatzeko eta, horrez gain, egoitza erabilerako lurzoruaren garapena bultzatzeko eta etxebizitzak sustatzeko.

Politika horren oinarritzko elementu bat lurzoru erabilgarria izatea zen; eta horretarako, Foru Aldundiaren ondarekoa ziren lursailak erabiltzeaz gain, lursail berriak erostea aurreikusi zen. Hori horrela, 2006ko ekitaldirako aurrekontuan konpromisozko kreditu bat sartu zen, 2007. ekitaldira luza zitekeen modukoa. Eta ekitaldi hartako aurrekontuan, 3.000.000 euroko kreditua aurreikusi zen.

Baina helburu horien arabera garatu beharreko lursailen erosketak, kasuan kasuko hirigintza tresnetan (lurralde plan partzialak, lurralde plan sektorialak) zehaztutako lurralde antolaketako irizpideekin bat etortzeaz aparte, bat etorri behar zuten, halaber, Foru Aldundiak bultzatzen zituen lurralde izaerako jarduketara estrategikoekin ere.

Ildo horri jarraituz, Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12ko bilkuran erabaki zuen Azkoitiko "Insausti" izeneko 13. Area lurzorua eskuratzeko. Eta Area horren garai hartako hirigintza kalifikazioa industri erabilerako lurzoru hiritarra bazen ere, Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen dokumentuan (Diputatuen Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 30ean behin betiko onartutako dokumentua) aurreikusi zen area hori egoitza erabilerarako birkalifikatzea. Birkalifikazio horren eraginez, 550 etxebizitza berri egiteko aukera zabaldu zen, eta horrela, udalerriaren hiri bilbea osatzeko aukera ahalbidetu zen, Area zeuden industriak lekuz aldatzeko baliabideaz lortuz.

<sup>22</sup> 2006 eta 2007ko ekitaldietan norako bera zuten hainbat etxebizitza erosi izanak, eskaintzak aurkezteko eskaria egin izanarekin batera, lehiaketa publikoa egiteko aukera zegoela erakusten dute.



Zehazki, Foru Aldundiak 2006. urtean erosi zuen, “Azkoitia Lantzen, SA” udal sozietate publikoarekin batera, Azkoitiko Julio Urkijo hiribideko 31 zenbakian dagoen 7.663,62 m<sup>2</sup>-ko lursail baten jabetza zatitu gabea.

Erosketa horri jarraituz, 2007. urtean beste lursail bat erosi zuen, “Insausti” izeneko 13. Arean dagoen beste lursaila, Kasu honetan ere, zatitu gabeko jabetzaren erdia eskuratu zuen, beste erdia Azkoitia Lantzen sozietateak eskuratu zuelarik. 5.027,38 m<sup>2</sup>-ko orubea da, Insausti kaleko 11 zenbakian dagoena.

Kasu honetan, planteatutako eragiketen izaera kontuan hartuta, gure ustez bete dira Ondareari buruzko Foru Arauak 38.2 artikuluko b) apartatuan adierazitako zirkunstantziak, lehiaketaren prozedura alde batera utzi eta prozedura negoziatuari heltzeko aukera ematen dutenak<sup>23</sup>.

d) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoaren arabera, *“Gipuzkoako Foru Aldundiak Fik ekimeneko (Interes ekonomikoa duen elkarte) akzioak erosi ditu, 1.000 mila euroko prezioan, hau da, ekimen horren kapital sozialaren % 2. Baina eragiketa horretan, Interes ekonomikoa duten elkarteei buruzko 12/1991 Legeak, apirilaren 19koak, 4. artikuluan ezarritakoa urratu du. Izan ere, artikuluko horren arabera, horrelako elkarteak soil-soilik era dezakete enpresa jarduerak, nekazaritzakoak edota artisautza garatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, edo ikerkuntzan diharduten irabazi asmorik gabeko entitateak, edota lanbide liberalak burutzen dituztenek”*.

Herri administrazio bat, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundia, interes ekonomikoa duen elkarte batean sartzeak eragiten zituen zalantzak argitzearren, abokatuen bulego ezagun baten aholkularitza juridikoa jaso genuen, eta gainera, Gipuzkoako Merkataritza Erregistrozaleari ere bidezko kontsulta egin genion.

Azkenean ondorioztatu genuen Gipuzkoako Foru Aldundia sar zitekeela gorago aipatutako 12/1991ko Legearen 4. artikuluko esparru subjektiboan. Bi izan ziren ondorio horretara eraman gintuen arrazoiak.

Batetik, legea interpretatzeko zein irizpide erabili jakiteko, interes ekonomikoa duten europar elkarteei buruzko 2137/85 EEE Erregelamendura jo behar da; eta horren arabera “horrelako elkarte baten kide izan litezke sozietateak, [...], eta zuzenbide pribatu zein publikoko gainerako entitate juridikoak”.

Bestetik, Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusiak 2002ko azaroaren 22an emandako ebazpenaren arabera, zuzendaritza nagusi horrek ez du zalantzan jartzen erakunde publiko batek, kasu honetan Energiaren Euskal Erakundeak, interes ekonomikoa duen elkarte bateko kide izateko duen ahalmen juridikoa<sup>24</sup>.

<sup>23</sup> Eremu berean hainbat lursail izateak, lehiaketa publikoa egiteko aukera agerian uzten du.

<sup>24</sup> Energiaren Euskal Erakundea enpresa jarduerak garatzen dituen pertsona juridikoa da.



Azkenik esan behar dugu Gipuzkoako Merkataritza Erregistratzaileak zuzentzat jo zuela Gipuzkoako Foru Aldundia interes ekonomikoa duen elkarte batean sar zedin onartzea.

## 2. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Epaitegiaren txostenean jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 31n zuen Diruzaintzako Gerakinari 4.702 mila euro erantsi behar zaizkio, hiru doikuntzen ondorioz.

Lehenengo doikuntzak honakoa dio:

*Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga arloko zordunak eta hartzekodunak ez ditu aurrekontuetan jaso. Ondorioz, diruzaintzako gerakinean ez da islatu kaudimen-ezetarako hornidura, ez eta erakundearen konpromisoak betetzeko hornidura ere. Diru-sail horien eraginez, aurrekontuaren kontabilitatetik ondorioztatzen den diruzaintzako gerakinari 9.647 mila euro erantsi behar zaizkio (ikus A.7 eranskina).*

A.7 eranskinak –zerga sarrerak eta zordunak-, honakoa dio:

*Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu aurrekontuan sartu ez zerga zordunak (473.509 mila euro), ez eta zerga hartzekodunak ere (9.024 mila euro), eta ondorioz, aurrekontuetan ez da ageri eragiketa horien ondorioz kobratzeke dagoen kopururik. Diruzaintzako gerakinean ez da islatu kaudimen-ezetarako hornidura (401.821 mila euro), ez eta kobratzeke dagoen kopurua dela eta, erakundearen konpromisoak betetzeko hornidura ere (53.017 mila euro). Diru-sail horien eraginez, bada, aurrekontuaren kontabilitatetik ondorioztatzen den diruzaintzako gerakinari 9.647 mila euro erantsi behar zaizkio.*

Iritziari buruzko atalean, HKEEak bi gai aipatu ditu, biak ere bereizi beharrekoak.

A) Lehenengoan, dio, Foru Aldundiak aurrekontuetan ez dituela jaso ez zerga zordunak ez hartzekodunak. Gai honi gagozkiola, Finantza eta Aurrekontu Erregimenaren Foru Arauak unibertsaltasun printzipiori ematen dion definizioa hartu behar dugu aintzat:

Unibertsaltasun printzipioa: Gipuzkoako lurralde historikoaren aurrekontu orokorrek bere baitan hartu behar dituzte likidatzea aurreikusitako eskubide guztiak eta nahitaez erantzun beharreko obligazioak.

Hala eta guztiz ere, aurrekontuetan, zerga sarrerak Herri Finantzen Euskal Kontseiluak onartutako erabakien arabera aurreikusiko dira.

Xedapen horren arabera, zerga sarrerei dagokienez, Foru Aldundiak Herri Finantzen Euskal Kontseiluak onartutako dirubilketa aurreikuspenen arabera egiten du sarreren aurrekontua. Eta erakunde horrek, aurreikuspenak egiterakoan, kutzaren printzipioa erabiltzen du: hurrengo ekitaldian benetan izango den dirubilketa zenbatetsi ondoren,

aurreikuspenen arabera ordaindu beharreko sarrera itzulketak kentzen ditu zenbatespen horretatik.

Gure iritziz, aurrekontuetako aurreikuspenak bilketa garbiko (kutxa) aurreikuspenak badira, aurrekontuaren kontabilitateak islatu behar dituen sarrerak ere kutxaren printzipioak aplikatuta ondorioztatzen diren sarrerak izan beharko dute, koherentziari eutsiz. Zerga sarreraren kontabilitatea egiterakoan sortzapean printzipioa aplikatuko balitz, aurrekontua gauzatzen den ala ez begiratzeak ez luke zentzurik izango, aitortutako eskubideak dirubilketa garbiaren aurreikuspenekin parekatuko bailirateke.

Hori horrela, sarreraren kontabilitatean aplikatutako tratamendua, Finantza eta Aurrekontu Erregimenaren Foru Arauak unibertsaltasun printzipiori ematen dion definizioak berak babesten du; beraz, bat dator aurrekontua egiterakoan jarraitutako irizpidearekin.

Bestetik, esan behar dugu, aitortutako zerga eskubideak (likidazioak) zerga kontabilitatearen alorrean eta kontabilitate orokorrean adierazita daudela. Zerga likidazioei, likidazio horien eragiketei, eta sartzeke dauden zordunen saldoei buruzko informazioa 2007ko Kontu Orokorreko hainbat dokumentutan ageri da. Beraz, egia bada ere *“Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dituela aurrekontuan sartu ez zerga zordunak ez eta zerga hartzekodunak ere”* esan behar dugu baieztapen hori osagabea dela; hau da, informazio gehigarria eman beharko litzateke, alegia, zordun eta hartzekodun horiei buruzko eragiketak zerga kontabilitatean eta gainera, kontabilitate orokorrean ere jaso direla esan beharko litzateke.

B) HKEEak planteatu duen bigarren gaiari dagokionez; alegia, *“ondorioz, diruzaintzako gerakinean ez da islatu kaudimen-ezetarako hornidura, ez eta erakundearen konpromisoak betetzeko hornidura ere”*, oharpen batzuk egin behar dira. Zerga zordunen kaudimen-ezetarako hornidurak eta erakundearen konpromisoak betetzeko hornidurak, zerga kontabilitatean jasota dauden eta likidatzeke dauden zordun eta hartzekodunen informazio xehekatua jaso ondoren kalkulatzeko dira. Kontabilitateko informazio hori guztia 2007ko Kontu Orokorrean ageri da; eta hain zuzen ere, zehaztasun osoz adierazten ditu zerga eragiketen ondoriozko kredituen eta zorren zenbatekoa, hornitutako zuzkidurak eta hornidura horiek kalkulatzeko erabilitako prozedura.

Foru Aldundiak zuhurtziaz jokatzeko Diruzaintzako Gerakina zehazterakoan; eta ez ditu konputatzen honako zerga eragiketen saldo hauek: kobratzeke dauden zerga zordunak, ordaintzeke dauden zerga hartzekodunak, kaudimen-ezetarako hornidurak eta erakundearen konpromisoak betetzeko hornidurak. Izan ere, diru-sail horien guztien saldo positibo garbia erlatiboki oso txikia da zerga zordunen kopuru osoarekin alderatuta: 9.647 mila euro eta 473.509 mila euro, hurrenez hurren.

HKEEak ez du garbi adierazi bere iritzia. Izan ere uler liteke diru-sail horiek Foru Aldundiak ez dituela Diruzaintzako Gerakinean adierazi, informazio hori ez zuelako; baina hori ez da arrazoia.

Bigarren doikuntza, honako saldoari dagokio:



*Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.111 mila euroko saldo hartzekodun garbia mantentzen du aurrekontuaz kanpoko kontuetan. Baina zenbateko hori jasa ez da exigigarria hiru foru aldundiek adostutakoa erabakiaren ondorioz. Izan ere, erabaki horren indarrez, behin betiko likidatutzat eta kitatutzat eman dituzte foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak. Beraz, kopuru hori diruzaintzako gerakinari erantsi beharko litzaioke (ikus A.7 eranskina).*

Txostenean aipatutako egintza hori egia da. Gauza bakarra esan dezakegu horren inguruan: erabaki genuen Herri Finantzen Euskal KOnitseiluak emandako erabakiaren ondorioak kontabilitatean ez jasotzea, harik eta ukitutako espediente guzti-guztiei buruzko kontabilitate oharpenak egiteko beharrezkoa den dokumentazio osoa prest eduki arte. Erabaki hori 2008ko otsailaren 13an eman zenez, ezinezkoa izan zen 2007ko ekitaldiko kontabilitatean sartzea; beraz, 2008ko ekitaldian sartu zen Foru Aldundiaren kontabilitatean.

Azkeneko doikuntzak honakoa dio:

*Gipuzkoako Foru Aldundiak 9.056 mila euro erregistratu ditu sarrera gisa, Estatuak zerga kenkariak eta hobariak direla-eta egindako laguntza itzulketen kontzeptupean eta laguntza horiek sortutako berandutza interesen kontzeptupean. Sarrera horien aurkako errekurtsioak jarri dira; beraz, ez dira behin betikoak. Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidezko zuzkidura hornitu behar zukeen, diruzaintzako gerakina gutxituz (ikus A.9 eranskina).*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz, HKEEak egindako doikuntza zuzena da; eta ondorioz, behar den zuzkidura hornituko du 2008ko ekitaldiko kontabilitatean.

### **3. SOZIETATE PUBLIKOEI BURUZKO IRITZIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK BIDEGI, SA**

*Sozietateak bi langile kontratatu ditu, zuzendari nagusiaren iraupenaldi bererako, hautaketa prozesurik deitu gabe. Beraz, pertsonala kontratatzeko ezarrita dauden berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu ditu.*

Alegazioa

2002ko uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretuak, “Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia” merkataritza entitate anonimoa eratzeari buruzkoak, aplikatu beharreko erregimen juridikoan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako lurralde historikoko finantza eta aurrekontu erregimenari buruzko foru arauak, eta aurrekontu orokorren foru arauak ezarritakoaren arabera funtzionatuko du; era berean, 2000ko ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretuak,





Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, seigarren xedapen gehigarrian jasotakoren arabera jardun beharko du. Gaur egun, aipatutako legean ezarritakoaren orde, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoa hartu behar da erreferentziatzat, era honetako sozietateei dagokienez.

Gainontzean, sozietatearen beraren estatutuetan jasotakoaren arabera, eta kasuan kasuko araudian merkataritza sozietateei buruz jasotakoaren arabera jardun behar du. Sozietate hori eratzearen helburua izan zen Gipuzkoako azpiegituren sareak behar zituen inbertsioak arinago kudeatzea, eta inbertsio horiei modu egokian aurre egin ahal izatea. Aplikatu beharreko araudia modua murriztagoan interpretatzea, sozietate anonimoaren izaera aldatzea izango litzateke.

Beraz, ondorioztatu behar dugu barne pertsonala kontratatzerakoan ez dela aplikagarria 1989ko uztailearen 6ko 6/89 Legea, funtzio publikoari buruzkoa, Eusko Legebiltzarrak onartutakoa. Hau da, kasu honetan ezin da aplikatu lege horrek 25. artikuluan dioena: “Euskal herri administrazioek deialdi publikoaren bitartez eta edonorentzako oposizio, lehiaketa edo lehiaketa-oposizioko sistemen bitartez aukeratuko dute beren langileria, funtzionarioa zein lan kontratupekoa izan, betiere publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuko diren moduan”. Beraz, kasu honetan aplikatu beharreko araudia sozietate anonimoan legea izango da, nahiz eta kontratazio organoa berak, langileria kontratatzeko jarduketa protokolo propioa ezarri ahal izango duen.

Azkenik, gure ustez ezinbetsekoa da kontratatutako lanpostuaren izaera aipatzea. Izan ere, zuzendaritzako idazkaria izanik, konfiantza eta mendekotasun lotura berezia izan behar du zuzendari nagusiarekin; eta horren arabera, zentzuzkoa da lanpostu hori zuzendari nagusiak berak hautatutako pertsona jakin batek betetzea<sup>25</sup>.

*356 mila eurotan esleitutako laguntza teknikorako kontratu batean, % 33ko aldaketa bat onartu da. Horrek, HAKLTB-an jasotako lizitazio printzipioak urratzea dakar berarekin, aldaketaren kopuruak kontratuaren xedea aldatzen baitu.*

#### Alegazioa

Obraren zuzendaritzarako laguntza teknikoaren kontratuak, berezko izaeraz, zuzendu behar den obra kontratuari estu-estu lotutako indarraldia eta ondorioak ditu kasu honetan. Beraz, kontratu nagusia ukitzen duten ezusteko guztiek zuzen-zuzeneko eragina dute laguntza teknikoaren kontratuan. baina horrek ez du esan nahi kontratuaren xedea aldatzen denik, edota lizitazio printzipioak urratzen direnik, gorabehera horiek guztiak, HAKLTBak aldaketak egiteko duen ahalmenaren barruan sartzen baitira.

Berdintasun printzipioak, bada, kontratu hau aldatzea eta obraren garapenak bizi dituen egoera berrietara egokitzea agintzen du, baina egokitze horrek ez dakar kontratuaren xede

<sup>25</sup> Txostenean esaten dena da sozietate publikoen langile kontratazioari ezargarriak zaizkion berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ez direla gorde.



aldaketarik. Bestetik, zenbatekoaren gehikuntza beharrezkoa da jabetzaren bidegabeko aberastea ekiditeko; baina horrek ez du esan nahi esleipendunak kontratua indargabetezko eskubidea erabili ezin duenik, baldin eta aldaketa onartzen ez badu.

Jardueraren izaera aintzat hartuta, lizitazio berria egiteko aukera ez litzateke bideragarria izango, obra beraren zati desberdinetarako bi laguntza tekniko izateko arriskua eragingo bailuke; eta gainera, zenbaitetan, batek bestea estaliko luke.

Adierazitako guztia aintzat hartuz ondorioztatu behar dugu, kontratuan egindako aldaketak ez dituela kaltetu lizitazioa egiterakoan jarraitutako berdintasun eta konkurrentzia printzipioak gisa, eta aldaketa hori, HAKLTBean araututakoaren arabera egin dela.

#### **4. KUDEAKETA ALDERDIEI ETA GOMENDIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

##### **4.1 III.2 ZERGA SARRERAK, APARTATUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Herri Kontuen Euskal epaitegiak, atal honetan, honakoa adierazi du, besteak beste:

*2007ko ekitaldian zehar, 14 zergadunen zerga likidazioen baja eman da, preskribitu direlako. Likidazio horien kopurua 13 mila eurokoa da guztira, eta PFEZan egindako zorrei zegokien, borondatez ordaintzeko epea lau urtetik gorakoa zuten zorrei, hain zuzen. Preskripzio hori, zorrak jakinarazteko tramiteak bete ez direlako gertatu da.*

##### Alegazioa

HKEEak aipatzen dituen likidazio horietan gertatutakoa zera izan da: lehen jakinarazpena egin eta Postetxeak jakinarazpen hori itzuli arren, ez ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali, berorren berri emateko. Uste izan zen, likidazio horien kudeaketa prozeduran, aldizkarira bidali beharreko likidazio guztiak bide horretan zeudela; baina ez zen horrela izan. Aurreko urteko fiskalizazio txostenari egindako alegazioetan adierazi bezala, prozedura hori aztertu zen barne kontrola hobetzeko estrategiaren barruan. Hain zuzen ere, dagoeneko garatu dira borondatezko epean zorraren jakinarazpenak kontrolatzeko, eta horien jarraipena egiteko, tresna berriak; beraz, sistema berri hori martxan jartzen denetik aurrera ez luke berriro horrelako egoerarik gertatu behar.

*Gure ustez, kaudimen ezaren ondoriozko baja guztietan, erantzukizuna deribatzekeko prozedurari ekitea ezinezkoa dela justifikatu beharko litzateke.*

##### Alegazioa

Barne jarraibide batean ezarrita daude deribazioari ekiteko irizpideak. Eta jarraitu beharreko irizpide horiek, zorraren zenbatekoaren arabera, zorraren izaera edo arrazoiazen arabera, eta egin litekeen deribazioaren arabera ezarri dira.



Jarraibide horretan finkatutako irizpide orokorren arabera deriba daitekeen guztia deribatzen saiatzen gara.

Aipatutako jarraibide horretan ezarritako irizpideen arabera deribazio prozedurari ekitea bidezkoa ez denean bakar-bakarrik ez da abiarazten prozedura hori.

Jarraibide horren helburua da deribazio prozedurari ekiteko edo ez ekiteko irizpide objektibo orokorrak finkatzea, betiere eskura dauden baliabideen eragimen eta optimizazio irizpideari jarraituz.

*Gure ustez irizpide orokorrak finkatu beharko lirateke konkurtso prozeduretan murgilduak dauden sozietateen lehentasunezko kredituen eta kreditu pribilegiatuen kiten, berandutza interesen eta bermeen portzentajeak aplikatzeko.*

#### Alegazioa

Oso zaila da konkurtso prozeduretan kreditu pribilegiatuen kiten, berandutza interesen eta bermeen portzentajeak aplikatzeko irizpide orokorrak finkatzea. Izan ere, konkurtso prozesu batean sartua dagoen enpresa edo entitate bakoitzaren egoera eta errealitatea oso ezberdina da.

Zor pribilegiatuei buruz adostasun berezi bat lortzen denean, prozeduran sartua dagoen enpresa aurrera ateratzeko ahaleginak egiten direlako izaten da; eta horretarako, irtenbiderik hoberena eta Ogasun Publikoaren eskubideen defentsarik hoberena uztartzen dira. Eta uztartze horrek, erabaki beharreko irtenbidea enpresaren eta honen zorraren errealitatera egokitu beharra dakar kasuz kasu.

Jakina, Konkurtso Legeak berak ezarritako legezko mugak errespetatzeaz gain, irizpide orokor gisa, zorra kobratzeko baldintzek onuragarriagoak izan behar dute hartzekodun arrunten kobrantza baldintzak baino; eta, era berean, gainerako erakunde hartzekodunen (normalean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra) baldintzen antzekoak.

Hala eta guztiz ere, HKEEak aipatzen dituen lau kasu horietako bi entitatek kreditu arruntean bakarrik dute kita. Gainera, argitu behar dugu, kreditu arruntak Hartzekodunen Hitzarmen Judizialean erabakitzen direla. Hitzarmen hori Hartzekodunen Batzordean bertan onartzen da, eta hor, hartzekodun bat baino ez da GFA; beraz, hitzarmenean erabakitakoa bete behar du.

*Azkenik, azpimarratu behar dugu konkurtso prozeduretan dauden zordunen egoera eskuz kontrolatzen dela. Alabaina, zordun horien benetako egoera kontrolatzea ahalbidetuko lukeen aplikazio informatiko bat ezarri beharko litzateke, horretarako espediente bakoitza banan-banan aztertu beharrik gabe.*



#### Alegazioa

2007. urteaz aurretik badago HOST tresna informatiko bat, IFAP2 izenekoa. Tresna horrek aukera ematen du konkurtsoan dauden entitateak, entitate horien konkurtso zorra eta hitzarmen judzialen gauzatze maila kontrolatzeko; baita erabaki berezien egoera kontrolatzeko ere, halakorik izanez gero. Gainera, tresna horri esker, erabakietan aurreikusitako ordainketen jarraipena egin daiteke.

Berez ez da kudeaketa tresna bat, baina konkurtso prozeduretan dauden zordunak kontrolatzeko aukera ematen du.

Atal honetan HKEEak honako hau ere adierazi du:

*Erregelamenduak aurreikusitako informazioa ez da jasotzen, ez zorrak bi urte baino gehiagoz geroratuak dituzten enpresen altxortegiaren egoerari buruz, ez eta kapitala gehitzeko erabakien egoerari buruz ere (38/2006 Foru Dekretua, 44.5 art.).*

*Erregelamenduan aurreikusitako jarraipena ez da egiten, bermeak guztiz edo partzialki salbuetsiak dituen zordunaren egoera ekonomiko—finantzarioari edota ondarearen egoerari buruz (38/2006 Foru Dekretua, 42.5 art.).*

*Ez da kontrolatzen enpresaren ibilgetu materiala osatzen duten ondasunen salmentaren produktua zor geroratuaren ordainketarekin lotuak dauden gerorapenak emateko erabakietan ezarritako baldintza bereziak betetzen diren ala ez. Datu basean ere ez da informazio hori jasotzen.*

#### Alegazioa

Dauden bitarteko materialek eta giza baliabideek ez dute jarraipen horiek egiteko aukerarik ematen. Jarraipen hori egiteko askoz ere giza baliabide gehiago izan beharko genituzke. Hala eta guztiz ere, esanguratsukoak izan litezkeen kontrol elementuak mugatzeko aukera aztertzen ari gara, administrazioaren jarduketa elementu horietan bildu ahal izateko.

## **4.2 III.3 KONTRATAZIOA, APARTATUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

### **Kontratisten erregistroa**

*Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratuen Erregistroan ez dira jasotzen erregistroaren eraketa arautzen duen 24/2001 Foru Dekretuan ezarritako alderdi guztiak. Gipuzkoako Foru Aldundiak kontabilitateaz integratutako prozedura bat ezarri beharko luke, kontratuen erregistroa eratzeko.*

#### Alegazioa

Epaitegiak badaki kontratuen erregistroko mantentze lanak eskuz egiten direla, lan asko eskatzen duen zeregina eta denbora luze eskatzen duen prozesua dela. Erregistroan



kontratueta luapenak eta aldaketak sartu ahal izateko, gaur egun Erregistroan lanean diharduten langileen kopurua bikoiztu egin beharko litzateke; izan ere, Epaitegiaren iritziz departamentuek Erregistroan sartzeko bidali beharreko informazio guztia, alde aurretik egiaztatu egin beharko litzateke, erregistroan gordetako informazioa benetakoa dela ziurtatzearen.

Kontratu publikoak kudeatzeko aplikazio informatiko bat eratzen ari da Foru Aldundia. Eta aurreikuspenen arabera, Kontratuen Erregistroa 24/1001 Foru Dekretuan xedatutako baldintzetan eramateko beharrezkoak diren datuak lortuko dira aplikazio hori garatzerakoan.

### Kontratazio espedienteak

HKEEak dioenez “kontratu batzuen baldintza administratiboen agirietan ez da zehazten esleipena egiteko irizpideak aplikatzeko era; irizpide horien garapena eta balorazioa, esleipenari buruzko txosten teknikoetan zehazten da”. Horri buruz esan behar dugu baldintzen agirietan beti adierazten direla bai eskaintzak baloratzeko irizpideak, baita emango zaien puntuazioa ere. Beraz, betetzen dira Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek 67. artikuluko i) apartatuan xedatutako betekizunak, hau da “lehiaketa esleitzeko irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera zerrendatuta, eta dagokien puntuazioa”. Horrela bada, adjudikazio txostenak bat etortzen dira baldintza administratiboen agirietan egindako aurreikuspenekin; baina horrez gain, esleipena egiteko irizpideei dagokien puntuazioa baloratzeko modua zehazten dute. Horrekin lortu nahi dena da, eskaintzak baloratzeko prozedurari objektibotasun eta gardentasun handiagoa ematea, esleipena egiteko irizpideen agirietan esleitutako puntuak banatzerakoan<sup>26</sup>.

*2007ko ekitaldian esleitutako bost kontratazio espedientetan, 69.675 mila euro guztira, proiektuaren aurretik egin beharreko zinketa proiektu hori behin betiko onartu aurretik egin zen. Eta, 2007ko maiatzean 6.990 mila eurotan esleitutako obra espediente batean, obren hasiera etenda utzi zen, behar besteko lursailak lortu arte, hau da, 2008ko otsailera arte.*

### Alegazioa

N-121-A errepidea, Laskuaingo biribilguneetik hasi (Behobia) eta Endarlatsaraino (Nafarroaren muga) zabaltzeko eta hobetzeko kontratuei dagokienez, hala nola A-15 autobideko tuneletako instalazioak konpontzeko eta egokitzeko kontratuari, eta GI-2637 errepidea Seguratik hasi eta Zegamako udal barrutiraino zabaltzeko eta hobetzeko kontratuei dagokienez, esan behar dugu proiektua eta obren lizitazioa egun berean onartu

<sup>26</sup> Berdintasun eta ez diskriminazio printzipioak ezartzeak eskatzen du eskabideak hainbat azpi-irizpideei jarraiki baloratzen badira, horiek lizitazioak aurkeztu aurretik ezagutu behar direla, eta honenbestez, pleguetan jaso behar liratekeela.



zirela, eraginkortasun eta arintasun arrazoiek hala agintzen zutelako. Baina horrek ezin du ondorio kaltegarrikerik ekarri, formazko akats soilaz aparte.

GI-2635 errepidearen saihebidetza, Landetako biribilgunetik hasi eta Zapatariko biribilgunera arte (Azpeitiko saihebidetza 1. etapa partziala) eraikitzekeko proiektuko obrak hasiera eten bazen, espedientean jasota dagoen ezusteko gorabehera baten ondorioz izan zen. Hain zuzen ere, akats bat izan zen proiektuko lurrak, hau da, soberakinak gordetzera bideratutako lursailen kudeaketan, eta horrek ekarri zuen obrak hasiera eten beharra.

*Azkenik, bost obretan, kontratuan aurreikusitako gauzatze epeari dagokionez, luzapen nabarmenak antzeman ditugu. Plangintza desegoki edo obrak exekuzioaren kontrol desegoki horri erantsi behar zaio, hain zuzen ere epea izan dela Gipuzkoako Foru Aldundiak obrak esleitzeko erabilitako irizpide bat. Beraz, gero nabarmen aldatuko den irizpide bat erabili du esleipena egiteko.*

#### Alegazioa

HKEEak zuzeneko erlazioa ipini du kontratuen exekuzioan emandako luzapenen, eta obrak exekuzioaren gaineko plangintza eta kontrol desegokiaren artean. Ez gaude ados erlazio horrekin, izan ere, kasuz kasu aztertu beharreko gaia kausa-efektua erlazioa litzateke, obrak plangintzarekin eta kontrolarekin zerikusirik ez duten arrazoiek eragiten baitute erlazio horretan.

Gai honi gagozkiola, HAKLTBak berak aurreikusten du kontratuen exekuzioan atzerapenak gerta daitezkeela, bai kontratistari lepora dakizkiokkeen arrazoiengatik (HAKLTBeko 95. art.), bai kontratistari egoztekoak ez diren arrazoiengatik (HAKLTBeko 96.2. art.). Horren arabera erabakitzen da, hain zuzen, exekuzio epea zigorrekin edo zigorrik gabe luzatzea, eta baita kontratua indargabetzea ere.

Bestetik, zenbaitetan, proiektu eraberrituak onartzearen ondorioz, obrak exekuzio epeetan aldatzea batzuk egiten dira HAKLEOak ezarritakoari jarraituz (159. eta 162. artikulua). Hori gertatu da A.15 eranskinean aipatu diren obra batzuetan, hau da, proiektua eta kontratua bera aldatzearen ondorioz, obrak exekutatzeko epeak ere zabaldu egin dira.

Azkenik esan behar dugu, epea luzatzeak ez duela aldatzea nabarmenik eragiten kontratua esleitzeko irizpidean; izan ere, eskaintzaren balorazioa egiterakoan ezin dira identifikatu kontratuaren exekuzioa atzeratu beharra ekar lezaketzen zirkunstantziak. Gainera, baldintza administratibo berezian agirian ezarritakoaren arabera, esleitzeko irizpidea baloratzerakoan aparteko garrantzia ematen zaio proposamenak bere osotasunean eskaintzen duen bermeari, hau da, obra aurkeztutako proposamenaren arabera behar bezala gauzatuko dela begiratzen da.

## Prozedura negoziatuak, publikotasunik gabe.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, prozedura negoziatuen bitartez esleitutako kontratu batzuk aipatu ditu. Kasu horretan, hiru eskaintza eskatu genituen eta enpresa bakarrak erantzun zuen, kontratuko aurrekontuaren prezio bera eskainiz.

Ildo honetan esan behar dugu HAKLTB onartzen duen 2000ko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 92.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, 162.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gutxienez hiru eskaintza eskatu behar direla publikotasunik gabeko prozedura erabiltzen denean.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak txostenean aitortzen duen bezala, aipatutako espediente horietan hiru eskaintza eskatu dira; beraz, bete dugu indarrean dagoen legeriak arlo honetan exijitzen duena<sup>27</sup>.

## Kontratazio administratiboko espedienterik gabeko gastua

- Kontratua: GI-2133 errepidean bide segurtasuna hobetzea

Bi jarduketa bereziak eta osoak izan dira. Beraz, jarduketa horietako bakoitza banaka tramitatzeko aukera zegoen, obra txiki gisa, HAKLTBak 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, bakoitzaren aurrekontua ez baitzen iristen HAKLTBak 121. artikuluan aurreikusitako kopurura; horrela bada, ez zegoen prozedura negoziatuaren bitartez eta eskaintzak eskatuz tramitatu beharrik:

Kontratu horietako baten helburua izan zen GI-2133 errepidean espaloiak egitea, 2,800 eta 4,000 k.p.en artean, gutxi gorabehera, 21.130,74 eurotan.

Beste jarduketa, berriz, GI-2133 errepidearen Zaldibiako zeharbidean bide segurtasuneko baldintzak hobetzearen premiak bultzatu zuen. Gune horretan, pasabidea estua denez, oinezkoek galtzadatik ibili behar izaten zuten. Hori horrela, Zaldibiako saihebidetako brak bukatu zirenean, eta ibilgailuen joan-etorria murriztu zenean, bidezorua berritzeko jarduketak burutu ziren, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako aldi bereko zatiak eginez<sup>28</sup>.

- Kontratua: obrak Aristirako bidean

Aristegi-Alorregi bidearekin lotutako bi kontratu izan dira, guztiz bereziak eta osoak. Beraz, jarduketa horietako bakoitza banaka tramitatzeko aukera zegoen, obra txiki gisa, HAKLTBak 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, bakoitzaren aurrekontua ez baitzen iristen HAKLTBak 121. artikuluan aurreikusitako kopurura; horrela bada, ez zegoen prozedura negoziatuaren bitartez eta eskaintzak eskatuz tramitatu beharrik:

---

<sup>27</sup> HKEEK ez du esaten arautegia ez dela bete, baizik eta lehia eskaintza gehiago eskatuta sustatu behar dela gomendatzen du, aipatutako kasu guztietan eskaintza bakarra jaso baita.

<sup>28</sup> Obrak errepide berean, gertuko datetan eta esleipendun berarekin egiteak agerian uzten du prozedura negoziatu bitartez egin izan zitezkeela.



Lehenengo jarduketa, bide osoaren luzeran hormigoizko areka egitea izan da, urak bildu eta hustubideetara bideratzeko, galtzada higatu eta kaltetu ez dadin. Hori horrela, obraren aurrekontua 2006ko abenduaren 28ko ebazpenaren bitartez onartu zen; eta gero, obrak bukatu ondoren, aurrekontu horren zenbatekoa ordaindu zen, 29.741,89 euro, 2007ko otsailaren 23ko ebazpenaren indarrez.

Bigarren jarduketa, bi baserritara ura hornitzeko hodieria eraberritzea izan zen. Hori horrela, obra gauzatzeko aurrekontua 2007ko martxoaren 13ko ebazpenaren bitartez onartu zen; eta gero, obrak bukatu ondoren, aurrekontu horren zenbatekoa ordaindu zen, 4.049,34 euro, 2007ko apirilaren 11ko ebazpenaren indarrez<sup>29</sup>.

- Kontratua: Zarauzko Surf Baga Kirol Elkartea

Lehenengo kontratuak, 24.000 eurokoak, elkarte horretako bi surflari babestea izan zuen helburu; hau da, berez kontratu txikiak izango ziren, baldin eta kirolari bakoitzak bere zerbitzua fakturatu izan balu; baina hori ezinezkoa izan zen, bi kirolari horiek ez baitira profesionalak.

- Kontratua: EYO sarea 2007

Kontratuaren zenbatekoa 21.000 eurokoa izan zen. Kasu honetan, ikusirik aipatutako entitateak -EYO, European Youth Organisation-, idazkaritza exekutiboa Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurakoa duenak, hain zuzen, azken urteetan ez zuela mugimendu handirik, erabaki genuen sarearen etorkizunari buruzko gogoeta bat egin zezan eskatzea kontsulta-etxe bati, bazkide guztiekin batera (hamabi bat kide).

Gogoetaren emaitzak ikusita, bazkide gehienek erabaki zuten sarean parte hartzen jarraitzea. Horretarako, jarduketa plan bat egitea erabaki genuen, eta jakina, plan hori kontsulta-etxe berarekin egitea zen zentzuzkoena. Bi kontratazioak kontratu txikitzat jo behar dira, elkarrekin lotuak egon arren, zirkunstantzia eta garai ezberdinetan sortuak baitira.

- Kontratuak: Dokumentazioa berrikusteko baldintzak

Obrak kontratatze beharrezkoak den dokumentazioa erredaktatzeko kontratua eta obren exekuzioaldian laguntza teknikoa emateko kontratua, bi jarduketa bereziak eta osoak izan ziren, segidan adieraziko dugun moduan. Beraz, kontratu horietako bakoitza banaka tramitatzeko aukera zegoen, kontratu txiki gisa, HAKLTBak 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, bakoitzaren aurrekontua ez baitzen iristen HAKLTBak 121. artikuluan aurreikusitako kopurura; horrela bada, ez zegoen prozedura negoziatuaren bitartez tramitatu beharrik.

---

<sup>29</sup> Obrak errepide berean, gertuko datetan eta esleipendun berarekin egiteak agerian uzten du prozedura negoziatu bitartez egin izan zitezkeela.





Kontratuak:

- Beasaingo bulegoa eraberritzeko obrak, 4.988,00 euro guztira.
- Hernaniko bulegoa eraberritzeko obrak, 4.988,00 euro guztira.
- Errenteriako bulegoa eraberritzeko obrak, 4.988,00 euro guztira.
- Donostian Sekundino Esnaola kalean dagoen bulegoa eraberritzeko obrak, 6.496,00 euro guztira<sup>30</sup>.

- Kontratua: diseinua eta serieko produkzioa, 24.000 euro guztira.

Bi lan berezi izan ziren:

- Eskualde mailan dinamizatze prozesu bat egituratzeko xedez Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako ekimen berezi bat aztertzea.
- Ikaskuntza prozesu hau jarraitzen duten pertsonen esperientziak, berauen arrakastak eta porrotak, zalantzak eta ziurtasunak, argi eta garbi azalduz.

Lan horietako bat berak ere ez du gainditu sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak kontratu txikiak egiteko exijitzen duen atalasea<sup>31</sup>.

- Kontratua: IKASMINA proiektua, 18.000 eurokoa.

Kontabilitateko dokumentuan izen bera eman bazaie ere (IKASMINA), hiru lan ezberdin izan dira:

- eGELA 2006 deialdiaren gaineko azterlana kitatzea
- IKTak hezkuntzaren arloan sartzeko xedez 2004ko eta 2005eko deialdietan elkarrekin finantzatutako proiektuen eragina aztertzea; eta
- 2007ko deialdian onartutako proiektuak aztertzea eta baloratzea

Hiru lan horietako bat berak ere ez du gainditu sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak kontratu txikiak egiteko exijitzen duen atalasea<sup>32</sup>.

---

<sup>30</sup> Emandako zerbitzuaren homogeneotasunak, alegatutako testuan agerikoa dena, bai kontzeptuari, bai zenbatekoei dagokienez, kontratazio ondorioetarako gastua osotasunean hartzea gomendatzen du.

<sup>31</sup> Berdin aurreko oharra.

<sup>32</sup> Proiektu bera da, hirugarren berberak exekutatua eta ekitaldi berean fakturatua.



### 4.3 III.4 DIRU LAGUNTZAK, APARTATUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

#### Gabezia orokorrak aztertutako diru laguntza motetan

- Deustuko Unibertsitateari, Euskal Herriko Unibertsitateari eta Mondragon Unibertsitateari, berrikuntza pedagogikoa sustatzeko programarako emandako diru laguntzei dagokienez, eta Nafarroako Unibertsitateari jakintza programarako emandako diru laguntzari dagokionez, honako gabeziak antzeman ditu Epaitegiak:
  - Espedientean ez da jaso onuradun izateko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen agiririk
  - Ez da exijitu diruz lagundutako jarduerak burutzeko beste fondoek justifikaziorik
  - Ez da exijitu 3 eskaintza eskatzea
  - Aurrerakinak eman dira, bermerik ezarri gabe.

Entitate horiei emandako laguntzak, diru laguntza izendunen bitartez eta Gipuzkoako Foru Aldundiak entitate bakoitzarekin adostutako hitzarmenen bitartez kudeatu dira.

Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauan ezarrita dago onuradun izateko debekurik ez dagoela egiaztatzeko obligazioa. Baina foru arau horretako xedapen iragankor bakarreko “Prozeduren araubide iragankorra” 1. apartatuak dioenaren arabera: “Foru arau hau indarrean jartzean lehendik hasita zeuden diru laguntzak emateko prozedurei, prozedura horiek hasi ziren unean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie”.

Ez da frogatu lagundutako jardueretarako bestelako laguntzak izan direla; baina horrek badu bere arrazoia: diru laguntza berrikusteko unean, proiektua ez zegoen bukatua, eta hitzarmenean aurreikusitako urteko laguntza ixtean, unean uneko laguntzen deklarazioa jasotzen da.

Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauan ezarrita dago “3 eskaintza eskatzeko obligazioa”. Baina foru arau horretako xedapen iragankor bakarreko “Prozeduren araubide iragankorra” 1. apartatuak dioenaren arabera: “Foru arau hau indarrean jartzean lehendik hasita zeuden diru laguntzak emateko prozedurei, prozedura horiek hasi ziren unean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie”.

Azkenik, emandako diru laguntza hauen helburua izan da unibertsitatearen esparruan egintzak edota inbertsioak bultzatzea, Gipuzkoako unibertsitateak jakintzaren gizartean bete beharko duten zeregin berrietara egokitzeko. Entitate onuradunen izaera ikusi ondoren, hala nola lurraldean duten ezarpen maila eta eragina, eta finantzaketarako ahalmenaz jabetuta, eta burutu beharreko egintzak edota inbertsioak ahalik eta lasterren gauzatzea eta betetzeak lurraldearen ekonomiari ekarriko zizkion ondorio onuragarriak kontuan harturik, aipatutako aurrerakinak egitea erabaki genuen. Hala eta guztiz ere, 2007ko diru laguntza ez genuen ordaindu 2006ko ekitaldian diruz lagundutako egintza eta inbertsio guzti-guztiak frogatu ziren arte. Ordainketak egiteko sistema hori, sinatutako hitzarmeneko zazpigarren klausulan jasota dago.

2008ko ekitaldian unibertsitateari eman beharreko laguntzak erregulatzen dituen araudian sartu ditugu Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak,

martxoaren 27koak, ezarritako obligazioak: onuradun izateko debekurik ez dagoela egiaztatu beharra, eta 3 eskaintza eskatzeko obligazioa<sup>33</sup>.

▪ Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin, Garraio eta Herrilan Sailarekin, eta Donostiako Udalarekin batera, 2004ko azaroaren 8an adostutako erakundeen arteko Hitzarmenean jasotakoari jarraituz, 1.200.000 euroko ekarpena egin zaio Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteari, nahiz eta hitzarmen horren arabera, Foru Aldundiari guztira 3.600.000 euro ematea dagokion. Bada, ekarpen hori dela-eta, Epaitegiaren txostenean honako adierazpenak egin dira:

- *“Finantzaketa ez dator bat exekuzioarekin”*. Txosten hau egiteko garaian obrak bukatu berriak ziren arren, hasierako fasean halako atzerapen batzuk izan zituzten. Baina Foru Aldundiak, edozein kasutan ere, obrako ziurtagiriak aurkeztu eta Jarraipen Batzordeak Hitzarmeneko zortzigarren klausulako e) apartatuan ezarritakoaren arabera ziurtagiri horiek onartu ondoren, egin zuen aipatutako ekarpena.

- *“... debekurik ez izatea...”*. Bagenekien, jakin, onuradun izateko gaitua zegoela Elkarte<sup>34</sup>.

▪ Arantzazuko Frantziskotarren Komunitatea

Diru laguntza honi buruz, honakoak aipatu dira txostenean:

- *“... debekurik ez izatea...”*. Bagenekien, jakin, onuradun izateko gaitua zegoela Frantziskotarren Komunitate<sup>35</sup>.

- *fakturak, onuradunaz bestelako norbaiten izenean*. Izenak ezberdinak badira ere, diruz lagundutako entitate beraren sozietateak dira. Ildo honetan, Arantzazu Gunea SL entitateko kide guztiak Arantzazuko Komunitateko fraide frantziskotarrak dira.

- *gehiegizko finantzaketa BEZaren bitartez*. Egindako lehen bi ordainketen egoera erregularizazio tramitean dago. Hirugarren ordainketan zuzendu zen gorabehera hori.

---

<sup>33</sup> Diru-laguntzaren emakida hasi zen unean aipatutako betekizunak ez eskatu izana argudiatzen duen alegazioa ez da zuzena, indarreko Diru-laguntzen Legeak eskatzen baitzituen.

<sup>34</sup> “Jasota zegoen” alegatutako testua, ez da ez dokumentatu, ez egiaztatu ere.

<sup>35</sup> Aurreko oharraren berdina.



- Donostiako Orfeoia

Txostenean honako adierazpenak egin dira:

- "... *debekurik ez izatea...*". Bagenekien, jakin, onuradun izateko gaitua zegoela Donostiako Orfeoia <sup>36</sup>.

- "*bermerik gabe ordaindutako aurrerakinak*". Ekarpen horiek, 2007ko ekainaren 20an adostutako Lankidetzaren Hitzarmenean xedatutakoaren arabera ordaindu ziren. Gainera, Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxaren 27koak, 15.4.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta lagundutako entitatearen izaera aintzat hartuta, ez genuen beharrezkotzat jo bermeak exijitzea. Azkeneko % 25a ordaindu aurretik, Foru Aldundiak egiaztatu zuen Orfeoia bete zituela behe beharreko obligazio guztiak.

- Epaitegiak Publizitate Zinemaldiari emandako laguntzari buruz egindako aipamena dela-eta, zehaztu behar da zinemaldi hori ekitaldi berezia eta bakarra dela. Aldundiak, ekarpen hori, Eusko Jaurlaritzarekin eta Donostiako Udalarekin adostutako erakundearen arteko lankidetzaren esparruan egin zuen, Zinemaldia lekuz aldatzeko oso arrisku handia zegoen unean <sup>37</sup>.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren bidaiarien garraio publikoko linea erregularretan zerbitzua ematen duten autobusak modernizatzeko eta berritzeko laguntzak.

Laguntza programa horri dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dio, kasu batean, aurkeztutako gastuen frogagiriak laguntzaren onuraduna ez den beste entitate batean izenean daudela, nahiz eta fakturako azalpena bat datorren jasotako laguntzaren xedearekin.

Programa honen oinarri erregulatzailerek ezarritakoaren arabera "laguntzak emango dira kontzesio bat duten autobusak kendu eta matrikulazio berriko beste batzuek aldatzeko, baldin eta ibilgailuen ikuskaritza teknikoak errepideko bidaiarien garraio publikorako eskatutako beharrezkoak eta baldintzak, eta ibiltzeko arazoak dituzten pertsonak autobusetara igotzeari buruzko baldintzak betetzen badituzte".

Nahiz eta ohikoan, foru eskumenekoak diren bidaiarien garraioko lineen emakida duten enpresek autobus berriak salerosketaren bitartez eskuratzen dituzten, oinarri erregulatzailerek ez dute inolako mugarik ezartzen autobus horiek eskuratzeko beste aukeraz erabiltzeari buruz, baldin eta ibilgailu berriak kasuan kasuko emakidari atxikitzen bazaizkio, dagokien eremuko garraio baimena badute, eta Gipuzkoan matrikulatzen badira.

---

<sup>36</sup> "Jasota zegoen" alegatutako testua, ez da ez dokumentatu, ez egiaztatu ere.

<sup>37</sup> HKEEK deskribatutako akatsak hiru eskaintza eskatu izanari egiten dio erreferentzia, betekizun hori ez delarik ez betetzen, ezta alegatzen ere.



Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatzen duen kasu horretan, laguntzak jasotako emakidadunak erabaki zuen autobusak leasing bitartez berritzea, salerosketaz eskuratu ordez. Horregatik, autobus berrien erosketako fakturak leasing enpresaren izena ageri da, emakidadunaren izenaren ordez<sup>38</sup>.

- Bertsozale Elkarteari eta Lanekiri emandako diru laguntzei dagokienez, txostenak dio aurrerakinak bermerik gabe ordaindu zaizkiela. Ildo honetan esan behar dugu entitate horiek finantzaketarako gaitasun urria dutela, euskara dinamizatzeko esparruan diru laguntzak jasotzen dituzten entitate gehienek bezalaxe. Horregatik, diru laguntzaren kopuruaren zati handi bat aurreratu ezean, oso zaila izango zaie, beren baliabide propioez bakarrik, kasuan kasuko jarduera edo produktua gauzatzea.
- Kultur Kudeaketaren Foroa kultur elkarteari, bermerik gabe ordaindutako aurrerakinen inguruan, txostenean egindako aipamenari buruz esan behar dugu laguntza hori hitzarmen baten bidez zertu dela. Hitzarmen horretan arautuak daude laguntza emateko baldintzak; eta bertan jasotakoaren arabera, artistak hautatu direla egiaztatu ondoren, laguntzaren % 50eko aurrerakina ordainduko zaio, bermea ezartzeko obligaziorik gabe. Gure ustez, % 50eko aurrerakin hori nahitaezko eta ezinbesteko finantzaketa da proiektuak hasiera-hasieratik bultzatu ahal izateko eta, horrela, lagundutako jarduketa bideragarria eta gauzagarria egiteko, finantzazioari dagokionez.

## Aztertutako diru laguntzetan antzemandako gabezia espezifikoak

### Zuzenekoak

- Madrilgo Real Congregación de Originarios de Vascos erakundeari emandako diru laguntza

Diputatuen Kontseiluak laguntza emateko erabakian ezarritakoaren arabera, diru laguntza honako honela eman behar zen:

“a) Behin onuradunari aipatutako erabakiaren berri eman ondoren, diru laguntzaren ehuneko berrogeita hamar (% 50) emango zaio, baldin eta aurrez, indarrean dauden xedapenen arabera, zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatu badu.

b) Gainerako berrogeita hamarra (% 50) aurtengo abenduaren 31 baino lehen emango zaio. Ordainketa, onuradunak hala eskatzen egingo da. Hori horrela, eskaerarekin batera, onuradunak burututako jardueraren memoria aurkeztuko du, lagundutako proiektuaren sarreren eta gastuen likidazioa erakutsiz. Memoriak, halaber, diru laguntza honen helburuarekin zuzenean lotutako fakturen kopiak jasoko ditu”.

---

<sup>38</sup> Leasing enpresak autobusaren erosketako ordainagiria aurkezteak, garraio enpresak ordaindu beharreko etorkizuneko kuotak aurreratzea suposatzen du.



Kontuan hartuta beste bi foru aldundietako batek azkenean ez zuela inolako laguntzarik eman proiektu honetarako, entitate onuradunak obren proiektuko bi heren bakarrik gauzatu ahal izan zituen. Eta une horretan eskatu zuen, hain zuzen, Foru Aldundi honek onartutako diru laguntzatik eman gabe zegoen % 50a.

Lagundutako obren proiektua gauzatu zela egiaztatzen zuen dokumentazioa aztertu ondoren (zehazki, obren % 67 gauzatu izana egiaztatzen zuen dokumentazioa aurkeztu zuen), ordaintzeke zegoen beste % 50a ordaindu zitzaion, entitate onuradunak gauzatutako obrari zegozkion ziurtagiriak ordaintzeko aukera izan zezan.

### Txartel bakarra ezartzea

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazten duenez “2007ko ekitaldian, uztailetik aurrera milioi bat euro aurreratu zitzairen enpresa emakidadun guztiei, zerbitzua ezarria zuten ala ez kontrolatu gabe. Hain zuzen ere, enpresa horietako batek txartel bakarra ez zuen ezarri 2008ko ekitaldira arte; beraz, aurreratutako kopurua itzuli egin behar du”.

Ez gatoz bat Epaitegiaren iritzi horrekin. Hasteko, Lurzoru eta Garraioko Zuzendaritza Nagusiak Txartel Bakarra ezartzeko egutegiaren betetze maila zorroztasun osoz jarraitu zuen, lehen egunetik hasita, kontzesioz kontzesio eta lineaz linea. Eta bigarrenik, lehen ere adierazi dugun bezala, Txartel Bakarra ezartzeko egutegia enpresa guztietan bete zen, zerbitzua txartelak leihatilan salduz ustiatzen zuen enpresa batean izan ezik; izan ere, ustiapen hori kudeatzeko sistema informatikoa ezberdina denez, hasiera batean aurreikusitako denbora baino gehiago behar izan zuen txartel bakarra ezartzeko. Horregatik, zerbitzu horiek ez ziren txartel bakarrean txertatu 2008ko otsailaren 1era arte. Baina, hala eta guztiz ere, aipatutako enpresa horren gainerako zerbitzu guztiak 2007. urtean sartu ziren Txartel Bakarrean.

Azkenik, Txartel Bakarraren proiektuan sartutako enpresei, 2007ko maiatzaren 15eko erabakian bermatutako zenbatekoaren kontura, 2007. urtean aurrerakin gisa egindako ordainketen inguruan esan behar dugu 2007ko ekitaldiko laguntzak 2008ko martxoaren 29ko 1012-T/08 Foru Aginduaren bitartez likidatu zirela. Likidazio horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuli zitzaizkion Txartel Bakarra ezartzearen konpentsazio gisa 2007ko ekitaldian jasotako gehiegizko kopuruak<sup>39</sup>.

### Deialdi publikoaz emandako laguntzak

*Enpresa ekimena sustatzeko foru dekretuko (58/2008 Foru Dekretua) bi apartaturen babesean emandako laguntzetan, 1.017 mila euro guztira, eskaerak baloratzeko txostenetan, oinarrietan azpi-irizpide gisa aurreikusitako irizpideak jarraitu dira. Alabaina, irizpideak ahalik eta gehien garatu beharko lituzke dekretuak, gardentasuna berma dadin.*

<sup>39</sup> Zerbitzua abian jartzeko datak ekainetik urrira bitartean aldatzen dira, aurrerakinak enpresa guztiei ekainetik aurrera ematen zaizkiela.



*2.447 euroko diru laguntzak ematea onartzen duen dekretu horretako beste apartatu batean, eskaeraren baloraziorik ez da egin, hau da, eskaerak iritsi ahala eta hurrenkera horretan esleitu dira, laguntzetarako aurrekontua agortu arte. Eskaera bat bera ere ez da ukatu.*

#### Alegazioa

58/2004 Foru Dekretuan jarduketa mota ezberdinak eta entitate onuradun mota desberdinak aurreikusten dira: diru laguntza jakin batzuk lehiakortasun erregimenean ematen dira, eta beste batzuk, berriz, lehiakortasunik gabeko erregimenean.

Maila operatiboan, gure ustez, dekretuko oinarrietan aurreikusitako irizpideen zehaztasun maila nahikoa da; izan ere, bidezko konkurrentzia eta gardentasuna bermatzen dira, osagarri gisa, onuradunak izan litezkeen entitate guztiei, eskaera egiteko unean ematen zaizkien kudeaketa gidaliburuaren bitartez.

Araudi horren barruan, bi laguntza mota handi bereizten dira: lehiakortasun erregimenean ematen direnak, eta lehiakortasunik gabeko erregimenean ematen direnak. Lehiakortasunik gabeko erregimenean ematen diren laguntzetan, bi jarduketa mota bereizi behar dira: TXEKIN (legez homologatutako enpresek bidezko jarraibideak aplikatzen dituzte —eta laguntzen epea ireki aurretik banatzen dituzte— laguntzak ekimenaren helburua duten proiektuek bakarrik eska dezaten), eta TXEKINTEK (SPRI, SAREkin batera ezarritako erabakia eta prozedura bat dago, aipatutako araudiak lagun dezakeen proiektu mota zehazteko).

Proiektu horien helburua da enpresa teknologikoen eta berritzaileen proiektuak garatzea; eta, aipatutako erabakiari jarraituz, proiektuak BIC BERRILAN eta SAIOLAN Enpresa eta Berrikuntza Zentroek aurkeztu dituzte, horiek baitira aipatutako laguntzen onuradunak<sup>40</sup>.

*Gipuzkoako lurralde historikoaren sentsibilizazio edota hezkuntza proiektuetarako emandako diru laguntzetan eta larrialdiko laguntzetan (7/2006 Foru Dekretua), 496 mila euro eta 319 mila euro hurrenez hurren, diru laguntzen helburua frogatzeko eperik ez da ezarri, nahiz eta laguntzen % 100 aurreratu den. Txosten hau egin den egunean, oraindik ere frogatu gabe dago aipatutako helburua; eta aurreko deialdietan ere, atzerapen handiarekin frogatu izan da.*

#### Alegazioa

Ez dugu ahaztu behar aipatutako foru dekretuko diru laguntzen deialdia egin zenean, 2007. urtean, indarrean zegoela 2006ko uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, diru laguntzei buruzko lege orokorra, 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen

<sup>40</sup> Alegazioak ez ditu azaleratutako akatsak argudiatzen.



duena. Eta legezko testu horietako 42.2.d) artikulua eta 88.2 artikulua, honakoa diote hurrenez hurren:

- 42.2: “Bermea eratzetik salbuetsita geratuko dira, oinarri erregulatzaileretan bereziki kontrakoa esan ezean: ... d) Irabazi asmorik gabeko entitateak, hala nola federazioak, konfederazioak edota hauen guztien elkarteak, baldin eta gizarte ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak garatzen badituzte”.
- 88.2: Oro har, oinarri erregulatzaileretan bereziki kontrakoa esan ezean eta, betiere, aurrekontuek ahalbidetzen duten heinean, aurretiazko ordainketak egingo dira, diru laguntzen lege orokorrak 34.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, baldin eta diru laguntzen helburua gizarte ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzea bada, eta onuradunak irabazi asmorik gabeko entitateek, hala nola federazioak, konfederazioak edota hauen guztien elkarteak badira,…”.

Gipuzkoako lurralde historikoko diru laguntzen erregelamendua onartzen duen 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, aurreikuspen horiek antzeko terminoetan jasotzen ditu 21.2.d) eta 60.2 artikuluetan.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, gure ustez ez da gertatu adierazitako gabezia hori<sup>41</sup>.

#### **4.4 III.5 APARTATUARI ETA A.3 LANGILERIA, ERANSKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Atal honetan HKEEak honako hau adierazi du:

*Erretiro sariak eman zaizkie giza baliabideen arrazionalizazio programan sartu gabeko sei funtzionarioari; eta ordaindu zaien kopurua, 1988ko Giza Baliabideen Plan Estrategikoan xede horretarako aurreikusitako kopurua baino gutxiagoa izan da.*

Alegazioa

Hain zuzen ere, beren borondatez aukera honi heltzen dioten funtzionarioei urtero ematen zaizkien aurretiazko erretiro sariak ez daude giza baliabideen arrazionalizazio programaren babespean, Foru Aldundiak eta sindikatuek adostutako enplegu erlazioaren arau erregulatzaileren babespean baizik. Hau da, hitzarmenaren babespean daude; eta horregatik, Foru Aldundiak derrigorrez bete beharrekoak dira.

Eman zaizkien kopuruak, berriz, sindikatuen ordezkariekin adostu eta Diputatuen Kontseiluak onartutako pertsonalaren erregelamenduan aurreikusitakoak dira; ez ordea, 1988ko Giza Baliabideen Plan Estrategikoan aurreikusitakoak. Izan ere, Plan horren indarraldia, ondorio hauetarako, 1999ko abenduaren 31n bukatu zen, eta indarraldi hori ez da luzatu, ez eta aukera hori aurreikusten duen beste plangintza batez ordeztu ere.

<sup>41</sup> Adierazitako akatsa diru-laguntzaren norakoa justifikatzean atzerapena da, ez aurrerakinak bermerik gabe eman izana.



*Foru Aldundiak, 2007. urtean, maila ertaineko 102 teknikari kontratatu ditu errentaren kanpainarako, eta beste 24 zerga iruzurraren aurkako kanpainarako. Teknikari horiei bitarteko funtzionarioen itxura eman zaie baina, egiturazko premiekin lotuak badaude, lanpostuen zerrendan sartu beharko lirateke.*

#### Alegazioa

Errenta aitortpenak aurkezteko eraren azken urte hauetako joera ikusita, ez dirudi bidezkoa lanpostuen zerrenda aldatzea. Geroz eta aurrelikidazio gehiago aurkezten da, urtetik urtera aurretiazko hitzordu gutxiago adosten da, eta urtero likidazio gehiago aurkezten da bitarteko elektronikoak erabiliz. Eta, iruzurraren aurka jarduteko funtzionarioak kontratatzen badira, urtero premia ezberdinak izaten direlako da, bai kontratuaren iraupenari dagokionez, baita kontratatu beharreko pertsona kopuruari dagokionez ere. Horregatik, Foru Aldundiaren iritiz, gaur egun ez da komeni lanpostuen zerrenda aldatzea.

*Suhiltzaileen jaiegunetako lanaren eta gaueko lanaren plusak kontzeptu finko gisa ordaintzen dira, baina kontzeptu aldakorrak dira; beraz, lan horiek benetan egiten direnean ordaindu beharko lirateke.*

#### Alegazioa

Beste noizbait ere adierazi izan dugun bezala, suhiltzaileen lan sistemak guardiak eta lan txandak aldatzeko aukera ematen du. Sistema horri jarraituz, urtero lan egutegi finkoa ezartzen da, jaiegunetan eta gauez egin beharreko lanorduak kalkulatuta. Horren emaitza, 14 hilekotan banatzen da. Horrela, berez aldakorrak diren kontzeptuak finkoak bihurtzen dira, txanda edo guardia aldaketan arabera funtzionario batek edo besteak burutzen dituelarik ere.

### **4.5 III.7 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMIA, APARTATUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Erakunde autonomo honi dagokionez, HKEEak honako alderdiak nabarmendu ditu:

*Ekitaldian zehar, honakoak egin dira: hainbat eraberritze lan, hornitzaile batekin, 83 mila euro guztira; elikagai hornidurak, hamalau hornitzailearekin, 299 mila euro guztira; material teknikoen hornidurak, hiru hornitzailearekin, 49 mila euro guztira; eta su-itzaltzeko material hornidura, hornitzaile batekin, 25 mila euro guztira. Hornidura horiek kontratazio espediente baten bitartez eskura zitezkeen, banakako edo lotez loteko preziotan.*



## Alegazioa

- Kontratuak: hainbat eraberritze lan

Ezaugarri oso zehatzetako konponketak egin beharrak bultzatu du, batez ere, hainbat lanen kontratazioa: Konponketa horiek Zentroa itxia dagoenean egin behar dira, zerbitzua emateko behar-beharrezko instalazioak baitira. Aurten, zehazki, egoitza unitateko bainugela eta fisioterapiako gela eraberritzeari ekin zaio.

Aurreko urtean bezala, Eguberrietan bakarrik itxi zen Zentroa; eta orduan ere, lanerako egun gutxi izateaz gain, batzuk jaiegunak ziren.

Hori dela eta, enpresa esleipendunak halako baldintza jakin batzuk bete behar ditu; esate baterako, eraikineko instalazio guztiak ezagutu behar ditu (argindar hornidura, urarena...) gerta litekeen edozein arazori aurre egin ahal izateko. Era berean, ohiko jardunalditik kanpo lana egiteko prest dagoen langileria behar du; are gehiago, kontuan hartuta zenbat egun dauden lanerako, jaiegunak barne, eta eraikuntzako enpresei sasoi horretan (Eguberria) oso zaila egiten zaiela langileak topatzea.

Horregatik, lana behar bezala egin zezakeen enpresa zuzenean kontratatzea erabaki genuen.

Ildo honetan esan behar dugu Foru Aldundiko Arkitektura Departamenduak, aipagai dugun Zentroa birmoldatzeko proiektua egin duela. Proiektu hori gauzatzen denean — aurten, 2009. urtean, aurreikuspenen arabera— ez da egin beharko arestian aipatutako kontratu baldintzak eskatzen duen eskuhartzerik. Horrela, gure ustez, orain arte jarraitu dugun kontratazio prozedura hobetzea lortuko dugu.

- Kontratua: elikagaiak

2005. urtearen azken aldera bukatu zen elikagaien hornidurarako kontratazio espedientearen tramitazioa; eta hornidura horretan, hainbat lote sartzen ziren.

2006ko urtarriletik aurrera, aipatutako lehiaketa horretatik ateratako esleipendunei erosten zaie.

Hala eta guztiz ere, epe laburrera kontratazio espediente berriari ekiteko asmoa dugu; eta lizitazio horretan, lote kopuru handiagoa sartuko da<sup>42</sup>.

- Kontratua: mediku zerbitzuak eta programa espezifikoak

Uliazpi fundazioaren zeregin nagusia da herritarren kolektibitate oso espezifiko baten ongizate orokorra sustatzea eta bizi kalitatea hobetzea; zehazki, adimen ezgaitasunak eta laguntza premia orokorrak dituzten pertsonen zuzendua dago.

Horretarako, beste hainbat eta hainbat elementuren artean, mediku zerbitzu berezia behar da, Adimen Ezgaitasun larriaren arloan adituak diren eta eremu honetan esperientzia

---

<sup>42</sup> HKEEk adierazitako hornigaiak aipatutako lehiaketan esleitu gabeko produktuei egiten diete erreferentzia.



duen profesional bezalako arreta eman ahal izateko. Guztira 51 mila euroko zerbitzua kontratatu da, hiru zerbitzu mota erabat bereizitan banaturik: neurologian, pediatrian eta enpresako medikuntzan espezializatutako mediku zerbitzuak. Hori horrela, bidezkotzat jo genuen hiru kontratazio bereizi egitea, eta halaxe egin dira.

Horrez gain, Uliazpi fundazioak bestelako hainbat jarduera antolatzen ditu; besteak beste, lantegi okupazionalak. Hauek, Gureak Lantegi Babestuak erakundean egin behar dira nahitaez, bera baita zerbitzu hau ematen duen bakarra.

Horregatik, aipatutako zerbitzu profesional espezializatuak eta Lantegi Babestuak kontratatzerakoan, aintzat hartu dira bai exijitu beharreko espezialitatea eta bai benetan esku har dezakeen profesional eta entitate bakoitzaren ospe handia ere.

Orain arte adierazitako guztiari dagokionez, eta Uliazpi fundazioan kontratazio prozedurak hobetzarren, 2008. urtean bost kontratazio espediente onartu dira. Horietako bi berriak dira: sukaldeko tresneriaren erosketa eta altzarien erosketa. Horrek, gure ustez, aurrerapauso nabarmena eragin du arlo honetan.

*44 mila euroko gastuak kontratatu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren hornitzaileekin, nahiz eta Uliazpi Erakunde Autonomoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean kontratazio zentralizatuko sistemekiko atxikipenik ez dagoen, HAKLTBeko hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.*

#### Alegazioa

Orain arte, inolako formalitaterik gabe egin izan dira Gipuzkoako Foru Aldundiak tramitatutako kontratazio espedienteekiko atxikipenak.

Ekitaldi honetan, sistema horietan txertatzeko eskaera formala egin dugu, araudiak ildo honetan agindutakoa betetzearren.

#### **4.7.A.18 IZFE SA SOZietate Publikoa, ERANSKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

- Kontratua: Internet.

Segurtasun eta erreduantzia arrazoiek hala aginduta, kasu honetan kontratu berdinerdina egin genuen zerbitzua eman zezakeen merkataritza entitate bakoitzarekin.

- Kontratua: Telefonía.

Telefonia finko eta mugikorrekó zerbitzuei dagokienez, sozietate hau Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzartutako kontratuei atxiki zaie<sup>43</sup>.

---

<sup>43</sup> Atxikimendu txosten hauek eskatu zaizkiolarik, ez zaizkigu eskuratu ez lana egiteko fasean, ez eta alegazioak aurkeztekoan ere.





## I. INTRODUCCIÓN

La Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa comprende todas las operaciones presupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio 2007 por la Diputación Foral de Gipuzkoa, por el organismo autónomo foral Uliazpi (atención residencial a deficientes mentales profundos) y por las sociedades públicas forales IZFE, SA (participada al 100%, presta servicios informáticos a la administración foral y municipal), Bidegi, SA (participada al 100%, su objeto es el mantenimiento, conservación, construcción y explotación de las autopistas A-8 y AP-1, sus instalaciones y servicios) y Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA (participada al 100%, su objeto es promover, ordenar, urbanizar, comprar y vender suelo destinado a la ubicación de actividades económicas, viviendas y toda clase de equipamientos públicos, así como la adquisición, gestión y explotación de suelo susceptible de uso agrario).

El presente informe sobre la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa del ejercicio 2007 se efectúa de acuerdo con la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, estando incluido en el Plan de Trabajo del TVCP para el ejercicio 2008.

Este informe abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
